Goienkaria

2007ko maiatzaren 11 > Egubakoitza > VII. urtea > 287. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Belaunaldi berriei lekukoa uzteko sasoian dira gaur familia enpresak"

Esteban Heredia

Elkargiko kidea > 09

G2a Bergara argazkizaleen topagune > 43-44

SAN JUAN DE DIOS PSIKIATRIKOA Arrasateko zentroak Instalazio berriak inauguratu zituen atzo > 06

ESKORIATZA Udalerriko mapa eta mugarrien liburuxka kaleratu dituzte > 34

ARRASATE Euskadiko Openeko mendiko bizikleta lasterketa, domekan > 40

EUSKAL PRESOAK > MOBILIZAZIOAK EGINGO DITUZTE ARAMAION

Jon Agirre aramaioarrak 26 urte beteko ditu gaur espetxeratuta

PAROT DOKTRINA Iaz aplikatu zioten, eta honezkero kalean egon beharko lukeen arren, 30 urteko zigorra osorik bete beharko du

OSASUN DELIKATUA Gaixotasun sendaezinak dituen arren 92. artikulua aplikatzeko eskaria atzera bota diote

MOBILIZAZIOAK Bilkura eta ekitaldia deitu dituzte gaur Aramaion, 18:30ean eta bihar, auto-karabana Langraizera > 04

HAUTESKUDEAK 07

Batzar Nagusietarako hautagaiek gure ibarrerako dituzten proposamenak jaso ditugu

Hiru galdera luzatu dizkiegu Batzar Nagusietarako hautagaiei, Debagoiena ardatz duten galderak. Hala, hautagaietako bakoitzak gure ibarrerako dituen proposamenen berri eman digu: zaborren kudeaketa, garraio publikoa, gizarte zerbitzuak, etxebizitza sozialak, Deba ibaia, bidegorria... aipatu dituzte, besteak beste Debagoienean bultzatu beharreko arlo gisa. > 02-03

Markel Olano / EAJ

Antton Gomez / EAE-ANV

Miguel Buen / PSE-EE

Iñaki Galdos / EA

Regina Otaola / PP

Rebeka Ubera / Aralar eta EB-Berdeak

Arrasateko Erdi Aroko azoka

GOIENKARIarekin batera, lau orriko gehigarria Erdi Aroko azokaren gainean.

OSASUNA > TRASPLANTEAK

Hezur-muin maileguak bultzatzen

Iturrigorri elkarteko kideak Legebiltzarreko Osasun Batzordean izan dira. Hezur-muin maileguak bultzatzeko Arrasaten sortutako taldea da Iturrigorri. Hala, Osasun Batzordeari eskatu diote hezur-muin mailegu eta transplanteetan beste herrialde batzuetan dauden kopuruetara iristeko neurriak hartzeko. > 5

ARETXABALETA > EUSKARA

Euskararen aldeko astea

Egunero ekitaldiak izango dira datorren zapatura bitartean > 15

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

HAUTESKUDEAK > BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTAGAIAK

Garraio publikoa eta etxe sozialak hautagaien kezka

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA

GOIENKARIA Batzar Nagusietara aurkezten diren sei hautagaiekin izan da, eta ondoan dituzuen galderak erantzuteko eskatu diegu. Alderdi erabat ezberdinak izanda ere, hainbat gairen gainean berba egiterakoan bat egiten dute.

NONDIK NORAKO BATZUK

Oraingo legegintzaldian egon diren alderdiek egindako lana azpimarratu dute. Hori horrela, garraiobide publikoen gainean galdetuta, bide onetik joanda ere oraindik egiteko asko dagoela onartu dute bai Mikel Olanok (EAJ) eta baita Iñaki Galdosek (EA) ere. Oposizioan egon diren beste alderdi batzuk, Miguel Buenek (PSE-EE) adibidez, arlo horretan egon diren hutsuneak azpimarratu dituzte, Bizkaiarekin egon den lotura eza, adibidez. Hala, Aralar-Ezker Batua ordezkatzen duen Rebeka Uberak proposamen gertukoagoak egin dituen bitartean, EAE-ANVko Antton Gomezek ezkertiarren beharra aldarrikatu du, eta baita hauteskunde hauek ez-demokratikoak direla salatu ere. PPri dagokionez, Regina Otaolak politika soziala azpimarratu du, nagusiei zuzendutakoa, batez ere.

1. Azal iezaguzu zeure alderdiak Debagoienerako dituen asmoak

2. Herritarrek gabezia handia sumatzen dute zerbitzuetan; horren aurrean zer proposatzen duzu?

3. Ze asmo duzu garraio publikoarekin? Eta bidegorriarekin?

Markel Olano
EAJ

Antton Gomez
EAE-ANV

Markel Olano

EAJ-KO HAUTAGAIA

"Garraiobide publikoa bultzatzeko kalitatezko zerbitzua behar da"

1 - Debagoienari dagokionez, herritarrekin batera bakea eta erabakitzeko eskubidearen alde elkarlana burutzea da gure helburuetako bat. Horrekin batera, Debagoieneko gizarte zerbitzuak hobetu gura ditugu, eta baita ere, garraio publikoan zerbitzuak areagotu ere.

Komunikabideen alorrean, Debagoieneko euskarazko komunikabideak babestu gura ditugu, eta baita bailarako enpresen berrikuntza bultzatu ere.

2- Gure ustetan, azpiegitura batzuk behar beharrezkoak dira gizarteari zerbitzu onak eskaini ahal izateko. Egia da azken urte hauetan esfortzu handia egin dugula herritarrendako gizarte zerbitzuak hobetzen. Oraindik asko dago egiteko, baina bide onetik goazela uste dugu. Hurrengo legealdian Debagoienean ahalegin berezia egingo dugu garraio zerbitzuetan eta kultura eskaintzan.

3- Gure ustetan garraio publikoa bultzatzeko ezinbestekoa da kalitatezko zerbitzua eskaintzea. Horrek esan gura du autobus eta tren zerbitzu onak jarri behar direla martxan.

Bidegorrien gaiari helduz, guztiz bat gatoz bidegorriak egitearekin bai herri barruko komunikazioa hobetzeko eta baita herri arteko komunikazioak hobetzeko ere.

Antton Gomez

ANV-KO HAUTAGAIA

"Eskuinari aurre egin eta herrien Gipuzkoa eraiki nahi dugu"

1 - Gipuzkoa hiria eredu atzerakoi eta eskuindarrari aurre egin eta herrien Gipuzkoa ezkerretik eraikiko dugu. Herrien eta herritarren beharrei erantzungo dion eredua. Herritarren parte hartzea bultzatuko duena. Ustelkeria, bezerokeria eta porlanaren diktadurari aurre egingo dion eredua. Eredu abertzale, ezkertiar eta parte hartzailea, *Partido del Negocio Vasco*-ren ereduaren alternatiba izango dena.

2 - Arazo larria dugu, garapenaren izenean sekulako azpiegiturak egin dira, bailarako mapa ez dago hutsik eta egindako guztiak eredu jakin bati erantzuten dio, eskuindarra eta atzerakoia. Guk beste eredu bat garatuko dugu. Hau guztia herritarrei bizkarra emanda egin da; Agenda XXI mozorrotze ariketa izan da.

3- Garraio publikoaren inguruko hausnarketa eta eztabaida sakona egin behar da. Beharren azterketa eta honen araberako planteamendua eginez. Autobusa edo tranbia? Edo biak? Apustua definitu behar da. Guk, printzipioz, tranbiaren alde egiten dugu, bailara osorako. Bestalde, AP1-eko obratzarra ez da ibarrarendako irtenbidea.

Horrekin batera, mugikortasunerako plan orokorra, bailara mailakoa, prestatu behar da. Bertan oinezkoendako bidegorrien sarea aurreikusi behar da, bizikletak ere kontutan hartuz.

Edozein premiatarako:
• Antzutasuna
• Erditzeak
• Antisorgailuak
• Menopausia
• Titietako gaixotasunak
• Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
• Hezur dentsitometria
• Jaioaurreko diagonestikoa-ekogarfia (4D)
• Endoskopia ginekologikoa
• Laguntza bidezko ugalketa
• Obstetrizia
• Nerabezaroko ginekologia

Zure zerbitzura:
• Antonio Estomba
• Fernando Cristobal
• Alfredo Otalora
• Jose M. Gomez
• Maite Albizu
• Domingo Murgiondo
• Miguel Gabarain
• Maria Jose Ruiz
• Fatima Azkue
• Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

Miguel Buen
PSE-EE

Iñaki Galdos
EA

Regina Otaola
PP

Rebeka Ubera
Aralar eta Ezker Batua-Berdeak

Miguel Buen

PSE-EE-KO HAUTAGAIA

"Bizkaiarekin lotura sendotu behar da, orain arte egin ez dena"

1 - Diputaziotik, Etorlur enpresarekin batera, gazteendako alokairuan jartzeko etxebizitza sozialak bultzatzen ibili gara, eta Kutxako gizarte-ekintzatik ere gauza bera egingo dugu.

Zerbitzu publikoak hobetzeko politika egingo dugu, zerbitzu sozialen eskaintza areagotzeko (zahar-etxeetako itxaron zerrendak kendu, plaza gehiago jarri, Dependentzia Legea aplikatu, sektore horretako langileen soldatak hobetu...).

2 - Gure asmoa da Mankomunitatearekin batera Oñatiko hiltegia mantentzeko lankidetza bultzatzea, sektore horren alde apustu sendoa eginez. Horrez gain, Udalekin berba eginda, Arrasatekoarekin batez ere, geltoki intermodal bat jartzea proposatuko dugu, estatuko edozein lurralderekin hobeto komunikatzeko. Horrekin batera, aparkaleku publikoak egingo ditugu autokarabana eta kamioiendako, ibilgailuak herrien erdigunetik ateratzeko.

3 - Garraio publikoari bultzada emateko Bizkaiarekin lotura sendotu behar da, oraingo Diputazioak ahaztuta izan duen kontua da hori. Txartel bakarra eta txartel soziala jarriko ditugu. Eta, zailtasun fisikoak dituztenendako autobusak hobetuko ditugu. Bidegorriei dagokienez, onartuta dagoen Norma Forala aplikatuko dugu, bidegorri sarea egiteko.

Iñaki Galdos

EA-KO HAUTAGAIA

"Tranbiaren aldeko apustu sendoa egin behar dugu"

1 - EA-tik beti esan dugu historikoki Gipuzkoa zorretan dagoela Debagoienarekin, jaso baino eman egin dugulako gehiago. Azken legegintzaldian Foru Aldundia zorra kitatzen ahalegindu da, baina oraindik asko dago egiteko, bai azpiegitura mailan eta baita zerbitzuetan ere. Oraingo legegintzaldian, adibidez, tranbiaren aldeko apustua egingo dugu.

2 - Datu objektiboek erakusten dute zerbitzuetan ere asko egin dela azken agintaldi honetan: kirol instalazioak, kultura etxeak... Horrekin batera, Garaia Berrikuntza Guneak ere bultzada handia izan du. Hori bai, datorren legegintzaldian gizarte alorrean dauden behar berrietara egokituko gara: haurtzaindegiak, zahar-etxeak, eguneko zentroak...

3 - Garraio publikoa bultzatzea erronka handia da, eta gure ustez, oraingo legegintzaldian ahalegin nabarmena egin da horretan, eta erabiltzaile kopuruak erakusten du hori. Hori bai, bide horretatik jarraituz, oraindik ahalegin handiagoa egin beharko da herritarrei zerbitzu ona eskaintzeko.

Bidegorriei dagokienez, Gipuzkoan 375 kilometro egingo dira, horietako asko ibarrean. Gainera, uste dugu bidegorriak aisialdiarekin batera, garraiobide alternatiboa bultzatzeko bide direla.

Regina Otaola

PP-KO HAUTAGAIA

"Gipuzkoa osoa trenez konektatuta egon behar dela uste dugu"

1 - Herritar guztiok askatasunez bizi ahal izateko dugun eskubidea oinarri hartuta, bizi kalitatearen alde egin gura dugu. Garraiobide kontuetan, adibidez, gazteak unibertsitatera joan ahal izateko autobus zerbitzuak hobetuko ditugu. Horrekin batera, gazteei zuzendutako etxebizitzak eraikiko ditugu. Azpiegiturei dagokionez, ados gaude Beasain-Durango proiektuekin. Horrekin batera, araztegiak egiteko lanak bultzatuko ditugu, Urkuluko ur kalitatea hobetu, eta noski, politika sozialen alde egingo dugu.

2 - Azken urteotan zerbitzuetan horrenbeste inbertitu ez delako gura dugu politika sozialaren alde egin, batez ere gure nagusiendako: zahar-etxe gehiago, etxera egiten dituzten zerbitzuak hobetu, tratu txarrak jaso dituzten emakumeei lagundu... eta horrelako beste neurri batzuk hartu.

3 - Garraiobide publikoa bultzatzeko neurri onena kalitatezko zerbitzua eskaintzea da. Gure proposamena da horizontalki egituratutako tren sarea –Irun-Donostia-Deba– bertikalki egituratutako beste bi sarerekin uztartzea –Debagoiena eta Debabarrena eta Donostia-Goierri–. Horrela, Gipuzkoa osoa egongo litzateke trenez konektatuta. Horrez gain, bidegorriak ondo ikusten ditugu aisia bultzatzeko.

Rebeka Ubera

ARALAR ETA EZKER BATUA-BERDEAK

"Ibarreko bidegorri sarea bere osotasunean garatu gura dugu"

1- Tokian tokiko azpiegitura txikietan oinarritutako zaborren kudeaketa bultzatuko dugu, konposta osotasunean hartuz. Hiltegi txikien kudeaketa publikoa sustatu gura dugu, sektoreko eragileekin batera. Baita lur bankuak sortu eta berauek nekazarien eta interesatuen eskuetan uzteko kudeaketa batzordeak egin ere. Deba ibaiaren berreskurapenaren alde egin gura dugu, eta natur ondarea babestu, Ikutixo eta Udalatx defendatuz. Babes ofizialeko etxeak sustatuko ditugu, alokairu soziala lehenetsiz.

2 - Gipuzkoan bezala, Debagoienean ere azpiegituretan zerbitzu sozialetan baino askoz gehiago inbertitu da. Horri buelta eman nahi diogu. Dauden itxaron zerrendekin bukatzeko kalitatezko zerbitzu publikoen alde egingo dugu, esaterako, zahar egoitzetan, eguneko zentroetan... plaza publiko gehiago sortuz eta etxez etxeko laguntza zerbitzua beharretara egokituz.

3 - Bonobus sistemaz eta garraio sare ezberdinen arteko txartel bakarraren bidez bultzatu behar da garraio publikoa, ibilgailu pribatua baino eraginkorrago eta merkeago izan dadin. Bizkaiarekin lotzeko zerbitzua martxan ipini behar da. Horrekin batera, ibarreko bidegorri sarea bere osotasunean garatu eta osatu gura dugu, oinezkoen kulturak autoena ordezkatzeko.

Julen Agirre > Jon Agirre presoaren loba

"Itxaropena ez du inoiz galtzen osabak, trabak jartzen direla ikusi arren"

MIRIAN BITERI > ARAMAIO

Asteburu honetan Jon Agirre aramaioarra etxera ekartzeko ekimenak antolatu dituzte. Gaur, barikua, 26 urte egin ditu kartzelan. Zigorraren 3/4ak beteta ditu, hala eta guztiz ere, 2.011 urtera arte luzatu diote kartzela zigorra. Presoaren osasun delikatuaz eta espetxe egoeraz berba egin du haren loba Julen Agirrekin.

Jon Agirreri 197/2006 sententzia aplikatu diote, *Parot Doktrina* deitzen dena. Zertan datza?

Portaeraren arabera penak murrizten dizkiete presoei, baina euskal preso politikoei horiek kendu eta zigor osoa betetzera behartzen dituzte. Gure osabak 2011n kalean beharko luke, 30 urteko zigorra betetzen du-eta. Baina, ez gara fidatzen. Agian, beste trikimailuaren bat aterako dute espetxean mantentzeko.

Zer dio berak honen aurrean?

Itxaropena ez du inoiz galtzen. Buruz kontzientziatuta dagoela dio berak, baina gogorra da 26 urtez kartzelan egotea. Gorputza noraino iritsiko den, ez dakigu.

Osasunaz mintzo zara. Zigor Kodearen 92. artikuluak dio gaixotasun sendaezinak dituzten presoak kalean izan behar direla. Osabaren osasuna oso delikatua da. Zer moduz dago?

Osasun aldetik ez dago oso ondo. Diabetesa dauka, mokor batetik operatu berri dago eta orain bestean egin behar diote ebakuntza. Diabetesak, gainera, bistan eragiten dio. Egoera ez da ona eta kartzelako zaintza ezta ere. Langraizeko erietxean dago.

Azken hiru urteak espetxe horretan eman ditu. Zer nolako baldintzetan dago han?

Ni bisitan joaten naiz, kartzelan ezagutu dut osaba, baina zailtasunak izaten dira hura ikusteko. Kartzela gertu dagonez bisiten zerrenda luzea da. Orain arte, hiru hilabetetan hamar lagunek zuten zapatu eta domekan bisitatzeko aukera. Baina, orain sei hilabetera luzatu nahi omen dute. Zerrenda hori koordinatzea oso zaila da. Hala ere, ahal dena egingo dugu. Bisitak oso inportanteak dira kartzelako monotonia hausteko.

Jon Agirreren egoeraz hitz egin du haren loba Julen Agirrek. M.B.

"Hitz egin eta gutxieneko batzuetara heldu beharra dagoela uste du osabak"

"Estatus politikoan eskatzen den guztia betez gero, konponbiderako bidea zabal daiteke"

Jon Agirre herri ekimenak saiakera asko egin ditu osaba kartzelatik ateratzeko. Erantzunik jaso duzue instituzioetatik?

Bai. Plataforma 2004an hasi zen lanean eta lehen eskaera mokorretik opera zezatela izan zen. Ebakuntzarako Donostiara ekarri zuten azkenean, nire ustez, egindako presioagatik. Horrez aparte, argazkian atera bai, baina konpromisorik ez dute hartzen instituzioek. Ez dute ezer egiten.

Asko hitz egiten da bake prozesuaz. Zer dio osabak?

Itxaropena ez du sekula galtzen. Baina, trabak jartzen ari direla ikusten du. Hitz egin behar dela eta gutxieneko batzuetara heldu beharra dagoela dio: batetik, euskal presoak Euskal Herrira ekarri eta, bestetik, zigorra bete dutenak eta gaixo larriak kaleratu.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak bide beretik jotzen du. Senitarteko gisa, nola ikusten duzu hori guztia?

Ondo. Estatus politikoan eskatzen den guztia betez gero, konponbiderako bidea zabalduko litzateke. Baina, hori ez dago nire esku, guztion esku baizik.

EKITALDIAK

Elkarretaratzea eta Langraizera karabana

Aste bukaeran hainbat ekitaldi deitu dituzte Jon Agirre etxera ekar dezatela aldarrikatzeko. Gaur, egubakoitza, manifestazioa eta ekitaldia izango dira Aramaion. 18:30etan izango da.

Bihar, zapatua, Langraizeko espetxera joango den auto karabana egingo dute. 10:00etan abiatuko da Arrasatetik. Arbolapetatik, hain zuzen ere. Ordu erdi beranduago, Aramaiora iritsiko da eta Kurtzetatik espetxe aldera egingo dute. Jon Agirreren lobak ekimenetan parte hartzeko deia luzatu du. "Osaba kalean ikusi behar dugu eta bizirik, noski", esan du. Horrelako ekimenek aramaioarra "animatzen" dutela ere gaineratu du.



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

HEZKUNTZA

Osasun neurketak ikasleen eskutik

Arizmendiko ikasleek osasun neurketak egingo dituzte Eroskin

A.I. > ARRASATE

Bihar, zapatua, hainbat osasun neurketa egiten jardungo dute Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako erizaintzako hainbat ikaslek. Arrasateko Hiper Eroskin izango da hori, 11:00etatik 13:00etara, hantxe jarriko dituzten hainbat *stand*etan.

EROSKETA OSASUNTSUAK

Ekimen horri *Erosketa Osasuntsuak* izena jarri diote eta hainbat neurketa egingo dizkiete hala nahi duten guztiei: tentsio arteriala, odol taldeak, gorputzeko masa indizea, gluzemiak eta abar neurtuko dituzte. Horrez guztiaz gain, elikadura aholkuak eta bizitza osasuntsua egiteko aholkuak emango dizkiete Hiper Eroskiko bezeroei.

INAUGURAZIOA

Arrikrutzen ekainaren 8an irekiko da koba

Bisitarientzako gidoian eta kanpoko urbanizazioan azken ukituak falta dira

M.B. > OÑATI

Arrikrutzeko kobazuloa bisitarientzat egokitzeko lanen emaitza ikusteko gero eta gutxiago falta da. Inaugurazioa ekainaren 8an izango da.

Koba barruan prestatu den kilometro erdiko ibilbidea amaituta dago, baita bisitan zehar ikusi eta entzungo diren argi eta soinu efektuetarako azpiegiturak ere. Patxi Zubizarreta idazleak eginiko informazioen gaineko gidoia ere bukatuta dago. Horren osagarriekin ari dira momentu honetan lanean.

Kanpoko urbanizazioan ere beharrean daude. Kobazuloaren ahoan dagoen plazatxoa urbanizatu eta berdegunea egokitu, harrera etxearen inguruan azken ukituak eman eta oinezkoen bidea txukuntzea baino ez da falta.

OSASUNA > HEZUR-MUIN MAILEGUAK BULTZATZEA DA ITURRIGORRI ELKARTEAREN HELBURUA

Iturrigorri elkartea Legebiltzarrean izan da

Hezur-muin maileguak bultzatzeko ez-legezko proposamena prestatzen dihardu Legebiltzarrak

Iturrigorri elkartekoek mundu mailako hainbat datu eta euren eskaerak aurkeztu zituzten

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Hezur-muin maileguak bultzatzeko Arrasaten sortu zuten Iturrigorri elkarteko kideek Legebiltzarreko Osasun Batzordeari aurkezpena egin zioten astelehenean. Jon Goikoetxea Iturrigorriko kideak adierazi digunez, hezur-muin maileguen eta transplanteen gainean dauden mundu mailako hainbat datu azaldu eta elkartearen asmoen berri eman zieten; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan maileguak gehitzea, beste herrialde batzuen mailara iristeko.

ORDUBETEKO AGERRALDIA

Australia, Ameriketako Estatu Batuak, Alemania eta Espainiako datu ofizialak eman zituzten eta argi laga zuten EAEn eta Espainian hezur-muin emaileen kopurua oso txikia dela gainerako herrialdeekin alderatuta. Hogei minutuko agerraldia egin zuten; ondoren, beste berrogei bat minutu eman zituzten legebiltzarkideen galderei erantzuten. Iturrigorriko kideek azaldu zutenez, eta guri ere horrelaxe berba egin digu Goikoetxeak, herrialde batzuek inbertsio handiak egiten dituzte eta baliabide ugari jartzen dituzte hezur-muin maileguak bultzatzeko.

Ondoren, Joseba Arantzabal Osakidetzako transplanteen koordinatzailearen txanda izan zen. Iturrigorriko kideak haserre azaldu ziren Arantzabalek emandako datuekin: "Kontraesan ugari egin zituen eta gainera, ez genuen erantzuteko aukerarik ere izan. Ez dakigu nondik atera zituen emandako datuak".

EZ-LEGEZKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarra ez-legezko proposamena onartzekoa da datozen hilabeteetan. Proposamen horren helburua izango da hezur-muin maileguak bultzatzea. Kontu horrek aurrera egingo ez balu, Iturrigorri elkartekoen asmoa da sinadurak batzea. Honakoa eskatzen dute Iturrigorrikoek: "Osakidetzak bere lana egin dezala eskatzen dugu eta hezur-muin frogak edozein ospitaletan egiteko aukera egotea".

HURBILTASUN GENETIKOA

Hezur-muin maileguak mundu osorako egiten dira; hau da, Alemaniako pertsona batek mailegatutako hezur-muina euskaldun bati transplantatzea posible da. Dena dela, hurbiltasun genetikoak badu bere garrantzia; esate baterako, ia ezinezkoa da asiar baten hezur-muina bateragarria izatea europar batendako. Horregatik, oso garrantzitsua da hemen bertan ere emaile gehiago lortzea. Espainiako Estatuan, 1.800 biztanletik emaile bat egiten da urtean. Alemanian, esaterako, 1.200etik bat.

ELKARRETARATZEAK Argazkian, Bergaran egin zen kontzentrazioa. M.B

POLITIKA > EZKER ABERTZALEAREN ILEGALIZAZIOA

Ezker abertzalea kalera atera zen eguaztenean

Ezker abertzaleak kontzentrazioak egin zituen hainbat lekutan legez kanporatzea salatzeko

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Prozesuaren eta hauteskunde demokratikoen alde lelopean LABek eta ezker abertzaleak elkarretaratzeak egin zituzten Euskal Herriko hainbat tokitan.

Ezker abertzaleak PSOE eta EAJren jarrera salatu zuen, alderdia legez kanpo uztean, Anaitasunan aurkeztutako proposamenari "ezetz" esaten diotelako.

LAB-EN IRITZIA

LAB sindikatuak ere bat egin zuen kontzentrazio horiekin.

Rafa Diezek Donostiako kontzentrazioan adierazi zuenez, "Sinn Fein legez kanpo egon balitz asteartekoa ez zen inoiz gertatuko."

Ezker abertzaleak zein LABek argi dute Ipar Irlandako eredua kontuan hartu behar dela aurrera egiteko orduan.

"Gomendatzen dizut..."

Truka ezazu bidaiatzeko informazio praktikoa!

Sariak:
1. Kategoria: 12-17 urte: i-poda edo argazki kamera.
2. Kategoria: 18-34 urte: i-poda edo gustuko oporralditxoa.

Idatzi zure gomendioa www.aizue.com blogean edo ekarri Gazte Informazio Bulegora.

Epea: Irailaren 30

Argazkia:
Gari Kortazar - Thorsmork-eko parke naturala (Islandia)

gazte informazioa

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

BERGARAKO UDALA

PROTESTALDIAK Aretxabaletan Durana kalean egin zuten AHTren aurkako elkarretaratzea, martitzenean. GOIENKARIA

AHT > TRENAREN KONTRAKO MOBILIZAZIOAK

AHTren aurka agertu dira hainbat gazte

Martitzenean, Debagoieneko hainbat gaztek AHTren aurkako kontzentrazioak egin zituzten Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Arrasaten

AMAIA ZALDUA > DEBAGOIENA

Martitzenean elkarretaratzeak egin zituzten gureko lau herritan hainbat gaztek *PNV, PSOE, PP... gure herriak, bizimodua, mendiak... txikitzen jarraituko duzue?* lelopean. Debagoieneko gazte horien esanetan, "AHTk kalte larriak eragingo dizkio Ama Lurrari eta ez ditu egungo arazoak konponduko".

ERANTZULEAK

Gazte talde horrek dio PSOE, PNV, UPN eta UMP "eredu neoliberalaren paradigma inposatzen ari direla herritarrei". Horrekin batera gehitu dute, AHTren atzean interes ekonomiko eta politikoak daudela eta "Euskal Herrian eredu ekonomiko, politiko, sozial eta kultural jakinaren ezarpena indartzeko tresna" dela.

GAZTEEN ERANTZUNA

AHTren kontra borrokatzeko erabakia aspaldi hartu zutela adierazi dute gazteek, eta argi dute "AHT gelditu arte" ez dutela amore emango.

AHTren proiektuarekiko euren desadostasuna azaltzeaz gain, udaletxeetako ordezkariei hiru eskaera egiten dizkiete: AHT berehala gelditzeko exijitzen dute; AHTren nahiz haren ondorioen gaineko "informazio objektibo eta egiazkoa" zabaltzea eskatzen dute eta azkenik, "Euskal Herriarentzat nahi dugun garraio, lurralde antolaketa eta herri ereduaren inguruko eztabaida sozial sakonari bide ematea".

Hauteskundeen harira, gazteek galdetzen diete hurrengo legealdian izango diren ordezkari politikoei zer egiteko prest izango diren AHT gelditzeko. Herriaren nahiz gazteen hitza entzuteko ere eskatzen diete.

HAUTESKUNDEAK > EB-ARALAR-EN AURKEZPENA

Gipuzkoa ezkerrekoagoa nahi dute EBk eta Aralarrek

A.I. > ARRASATE

Ezker Batua-Aralar koalizioaren Deba-Urola eskualdeko Batzar Nagusietarako programaren berri eman zuten eguaztenean Rebeka Uberak eta Ander Rodriguezek, Arrasaten.

Gipuzkoa ezkerrerantz jiratu nahi dutela adierazi zuten, bakegintza eta normalizazio politikoa ahaztu gabe. Azpimarratu zuten, gainera, gizarteko proiektuen gainean herritarrek eskubidea izan behar dutela erabakitzeko. Bestalde, Batzar Nagusietako alor guztien gaineko lan ildoak azaldu zituzten: politika fiskala, errepide, ingurumena, etxebizitza eta abarren gainean jardun zuten.

AURKEZPENA Ander Rodriguez eta Rebeka Ubera, aurkezpenean. JON BEREZIBAR

MIREN ARREGI

Instalazio berriak San Juan de Diosen

Arrasateko Gesalibar auzoan dagoen San Juan de Dios psikiatrikoan instalazio berriak inauguratu zituzten atzo. Bi eraikin birmoldatu dituzte: San Benito Menni, iraupen luzeko 60 gaixoendako eta, Sagrado Corazon, 112 ohe dituena. Ekitaldian izan ziren Uriarte gotzaina, Arrasateko alkate Lakuntza eta ospitaleko arduradunak.

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Gipuzkoa bizia
langilea
leiala
zintzoa
jatorra
euskalduna
berritzailea
BOZKATU EA!!
EA
eusko
alkartasuna
Iñaki Galdos
Diputatu Nagusirako hautagaia

gure artekoak

MERCEDES CLASE C > 24 urteko ibilbidea egin du Mercedes Clase C automobilak, eta ibilbide horrekin jarraitzen dute. Oraingoan, modelo berria erakutsi digu Goiko-Autoko Alberto Ferreirok.

Alberto Ferreiro > Goiko-Auto Mercedeseko salmenta arduraduna

"Teknologia berrienak serietik dakartza Clase C automobilak"

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Mercedes etxeak Clase C automobil berria merkaturatu du. 24 urteko ibilbidea egin du eta berriro datorkigu, berrituta.

Izaera, bizimodu, adin eta lanbide oso ezberdinetako jendearengana zuzendutako automobila da. Diseinuari dagokionez, hiru mutur ezberdineko modeloak eskaintzen ditu aukeran: horietako bat da kirol itxurakoa eta beste biek diseinu klasikoagoak dituzte.

"Azkeneko teknologia berrienak dakartza Clase C berriak, serietik: Bluetooth konexioa, belaunetarako *airbag*-a, bi gunetako klimatizagailua, egonkortasun kontrola eta abar luze bat", azaldu digu Ferreirok.

Ferreiro, Goiko-Leniz kontzesionarioan, Clase C automobila erakusten. A.I.

MOTOR AUKERA ZABALA

Gasolinazko zein diesel motorren aukera zabala eskaintzen du Mercedesek Clase C berriarekin, baina, 2007. urtean zehar aukera hori zabaltzen joango dira: dieselean, hiru motor ditugu aukeran eta gasolinazkoen artean, beste bost motor.

Sei zilindrotako modeloen kasuan, gainera, lau gurpiletarako trakziodun modeloak ere baditugu aukeran.

Aipatzekoa da, bestalde, aurreko belaunaldiko bere maila automobilekin alderatuta, oso gutxi garestitu dela Clase C modelo berria. Batez beste, %2 garestiagoak dira.

Clase C 180 Kompressor 156 ZP

Prezioa	32.900 euro
Luzera	4,58 metro
Zabalera	1,77 metro
Maletategia	475 litro(1)
Kontsumoa	7,8 litro /100 km(2)
Abiadura	223 km/h(3)
Otik 100era	9,6 seg.
CO2 isurketak	187 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

INGURUMENAREKIKO ERRESPETUA

Azpimarratzekoa da erakunde independente baten eskutik errekonozimendu garrantzitsua jaso duela Mercedes Clase C modeloak, garapen prozesuaren orientazio ekologikoarengatik. Ekoizpenari zein erabilerari dagokionez, ingurumenarekiko errespetuz jokatzen duela Mercedes etxeak; horixe errekonozimenduaren funtsa.

etxeko leihotik

Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Kamara objetiboaren zaintzapean

Hamar bat egun badira Oñatin *aktoreak* garela. San Migel txiki gau baten esan zidaten herriko hainbat tokitan kamarak jarri zituztela. Jai giroko komentario humoretsutzat hartu nuen. Baina ez! Ez ditut ikusi, baina sortu zidan jakinminak bultzatuta, astean, udaltzaingoa, kazetari eta hainbat herritarrekin izan naiz. 11 dira. Plaza inguruan daude. Martxan daude eta egunero hogeitalau orduko grabaketak jasotzen dituzte. Jartzeko arrazoiagatik galdetzean, egiten diren txikizioak (farolak eta kristal apurketak, pintadak...) ekiditeko omen direla esan didate. Ez nago batere ados; izan ere, *gaizkilea* banintz, lekuz aldatuko nuke.

"Aukeran, nahiago 'Gran Hermano' edo horrelakoetan parte hartu"

Ez nago apurketen alde, baina ez dut uste eraginkorra izango denik. Behin kamarak jartzeko erabakia hartuta, beste hainbat jartzeko bidea zabalduko du. Azkenean ez da *txoko intimorik* izango herrian.

Ez litzaidake horrelako herri baten bizitzea gustatuko. Aukeran, nahiago *Gran Hermano*n parte hartu. Nik erabakiko nuke joatea eta, akaso, gustuko sariarekin etxeratuko nintzateke!

> Politikariak berriz, gustura kamara aurrean. Kronometroak martxan izango dituzte aldekoak zenbat minutu betetzen dituen neurtzeko. Kazetariok ez dugu ez, lan makala guztien agertokietara heltzeko!

> 'Zu kazetari' laister GOITBn izango den saioaren izena; kazetari izateko gonbitea. Gustatzen zait. Objetiboa enfokatzean ikuspuntu anitza izatea aberatsa da. Gaur egun gainera, nork ez du kamara bat?

begi-bistan

Esferaren Aztarna (Arrasate)
2007/05/09

Argazkia: Iker Barandiaran.
Testua: Aintzane Irizar.

Kooperatibismoak herriaren alde egindakoa eskertzeko jarri dute Esferaren Aztarna eskultura, Biteri plazan. Udalaren ekimena izan da; lehiaketa deitu zuten eta Paco San Miguelek irabazi zuen.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak

Gerardo Markuleta
ITZULTZAILEA

Abdela Taia idazle marokoarraren *L'Armée du salut* eleberria gaztelera itzuli du Gerardo Markuleta oñatiarrak, Alberdania argitaletxearen eskutik. *El Ejército de Salvación* da gaztelerako izenburua. Euskarazko itzulpena Patxi Zubizarretak egin du.

Irene Abad
DISEINUGILEA

Irene Abad 26 urteko diseinugile bergararrak irabazi du Mendekoste jaietako kartel lehiaketa. 29 lan aurkeztu dituzte lehiaketa horretan eta Abaden lana aukeratu dute jaiak iragartzeko. 600 euroko saria jaso du irabazleak. Bitorianatxo pertsonaia da kartelaren protagonista.

Dorleta Urrutia
DISEINUGILEA

Bihar, zapatua, izango da Arrasate-Oñati lasterketaren 25. aldia, Laixan elkarteak antolatuta, *Berria* egunkariarekin elkarlanean. Lasterketaren kamisetaren diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu dute eta Dorleta Urrutia oñatiarrak irabazi du.

Bigarren urtez, Elkargi Elkarrekiko Garantiaren Elkarteak finantza jardunaldiak antolatu ditu Bergaran, Miguel Altuna institutuan. Astelehenean, maiatzaren 14an, Esteban Heredia Elkargiko Aholkularitza eta Finantza Zerbitzuen Saileko zuzendariak hitzaldia egingo du, 18:00etan. Familia enpresen oinordetza prozesuaz mintzatuko da Heredia.

Esteban Heredia > Elkargi

"Belaunaldi berriei lekukoa uzteko sasoian dira gaur familia enpresak"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Elkargik antolatutako finantza jardunaldien barruan, nagusiki familia enpresatan ari direnei zuzendutako hitzaldia egingo du Esteban Herediak. Berak emandako datuen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoan diren enpresen %85 familia enpresak dira. Horietako asko oinordetza prozesuan dira gaur egun. Horretaz jardungo du astelehenekohitzaldian, *Cómo implantar el protocolo familiar y planificar el proceso de sucesión* izenburupean.

Esteban Heredia Elkargiko Aholkularitza eta Finantza Zerbitzuen Saileko zuzendariak hitzaldia egingo du astelehenean Bergaran. GOIENKARIA

Familia protokoloaz asko berba egiten da gaur egun enpresa munduan. Familia enpresa ugari prozesu horretan murgiltzen hasi da, ala?

Horrela da, bai. Orain dela 40 urte inguru sortutako familia enpresa asko egoera horretan aurkitzen dira, belaunaldi berriei lekukoa uzteko sasoian, trantsizio garaian. Eta familia protokoloa deritzona hori da: armonian oinarritutako borondateen akordio bat lortzea, barne funtzionamendurako araudi bat, familia enpresaren jabetza eta gestioa definituko duena. Azken baten, oinordetza prozesua planifikatzen du eta halako egoeran diren edo epe laburrean izango diren familia enpresei jarraitu beharreko urratsak azalduko ditugu asteleheneko hitzaldian. Familia enpresen jarraipena eta garapena ziurtatzeko ezinbestekoa da oinordetza prozesua ondo planifikatzea.

Zeintzuk dira familia protokoloaren osagarri nagusiak?

Enpresaren lorpenak eta baloreak (familiarrak zein korporatiboak) jasotzeaz gain, enpresaren gobernu organoak erregulatzen ditu, kontseilua balego haren osaketa, kapitalaren kontrola, informazioaren eskubidea, enpresa barruko antolaketa, familiarren jardunerako irizpideak, onuren banaketa, familiaren ordainketarako irizpideak, banaketa eskubideak... Badira beste aspektu oso delikatu batzuk ere, sortzaileen ezkontza erregimenak edo oinorde kontuak. Bigarren belaunaldiarenganako trantsiziorako tresna oso garrantzitsua da protokoloa. Jose Bonet enpresa gizonaren hitzekin akordatzen naiz askotan: "Konponezinak familia enpresen galera ekar dezake", esaten zuen hark.

Familia enpresen garrantzia sekulakoa izan da gure eskualdean zein Gipuzkoa osoan.

Ez hemen bakarrik. Enpresa erroldaren arabera, Euskal Autonomi Erkidegoko enpresen %85 familia enpresak dira, 40.000 enpresa inguru denera.Enpresaren kontrola familia baten esku dagoen kasuetan, familia enpresaz ari gara. Jabetzaren eta, kasu askotan, gestioaren kontrola izaten dute. Dimentsio txikiko enpresak direla uste dute askok baina ez du zertan izan beharrik. Lehen esandako moduan, familia enpresen garrantzia agerikoa da: Espainian bi milioitik gora enpresa dira; enpleguen %75 eta esportazioen %60 suposatzen dute.

Datu horiek oso antzekoak dira Euskal Autonomi Erkidegoan. Britainia Handian %75 familia enpresak dira eta Amerikako Estatu Batuetan kopuru hori %95 da.

Familia enpresen zein portzentajek lortzen du bigarren edo hirugarren belaunaldietarako trantsizioa?

FAMILIA PROTOKOLOA

"Familia enpresen jarraipena eta garapena ziurtatzeko oinordetza prozesua ondo planifikatu behar da"

NAGUSITASUNA

"Enpresa erroldaren arabera, EAEko enpresen %85 familia enpresak dira"

ERRONKAK

"Bizirik irauteko ezinbestekoak dira aurreratze esfortzua eta egoera berrira egokitzen jakitea"

Enpresa bakoitzak bere problematika dauka eta zaila da horren gaineko datu fidagarriak topatzea. %70 ez dela hirugarren belaunaldira iristen entzun izan da, baina gauza bat argi dago: alderdi tekniko eta akademiko batetik ikusita, bigarren belaunaldia askoz hobeto gertatuta dagoela (beste gauza bat litzateke aurretikoek izan duten enpresa izpiritua eta izaera ekintzailea) eta oinordetza prozesuaren gainean gero eta kontzientziatze handiagoa dagoela. Honekin lotuta, oinordetza programa jarri zuen abian joan den urtean SPRI erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa txiki eta ertainei prozesu horretan behar duten laguntza eskaintzeko. Elkargitik ere gure zerbitzu propioa eskaintzen dugu eta esan dezakegu familia enpresen ezaugarriak eta etorkizunerako erronkak gertutik ezagutzen ditugula.

Zeintzuk lirateke erronka horiek?

Familia enpresen berezko erronkak direnak baino, orokorrean enpresa guztienak direnak aipatuko nituzke. Gaur egun bizi dugun merkatu global honetan guztia ikaragarrizko abiaduran aldatzen ari da eta bizirik irauteko ezinbestekoak dira aurreratze esfortzua eta egoera berri horretara egokitzen jakitea. Enpresek egoera horri aurre egiten jakin behar dute, berriztapena, malgutasuna, aurreratzea, formazioa eta, zergatik ez, gestioaren berrikuntza aplikatuz. Familia enpresek badituzte elementu bereizgarri batzuk: jabeen inplikazioa gestioan, etengabeko inbertsioa eta akziodun mugatua adibidez. Era berean, merkatuko problematikari belaunaldien erreleboaren arazoa gehitzen diote. Geroago eta abiadura handiagoz erabakiak hartzea eskatzen duen errealitate baten aurrean, esfortzu handiagoa eskatzen zaie familia enpresei. Zorionez, desazelerazio txiki bat eman bada ere, egoera ekonomikoa nahiko ona da.

zabalik

Joxemari Muxika

EAEko 4. hiriburua

Debagoienera etortzen diren politikariek honakoa bota ohi dute: Debagoiena EAEko laugarren hiriburua dela. Jende eta prentsa aurrean hitz egiten dutenean Debagoienerako beste gauza askorik ez eta esaldi borobil horrekin kontsolatuko gaituztela pentsatzen dutela ematen du. Izan ere, ba al dute politikari horiek *Debagoiena Hiriburua* osatzen joateko nolabaiteko planik?

Biztanlez hiriburu bat izateko maila eman dezake ozta-ozta bada ere, baditu 64.000 biztanle, eta gauza batzuk garatzen dituen Mankomunitate bat ere badago osatuta. Baina oraindik gauza gutxi egiten dira elkarrekin batera. Bederatzi udalerri eta beste horrenbeste aginte esparru ditu eta bakoitzak bere erabakiak hartzeko ahalmena gordetzen du. Egia da, badirela auzo garrantzitsuak dituzten hiriak eta gainera beraien artean nahiko aparte, baina hiri guztiek dute bihotz bezala jokatzen duen gune bat eta honen inguruan biltzen da hiria, batik bat hau hiriburua denean.

"Politikariek badute 'Debagoiena Hiria' osatzen joateko planik?"

"Debagoienak ez dauka erreferentzia nabarmen gisa jokatzen duen gunerik"

Debagoienak ez dauka erreferentzia nabarmen bezala jokatzen duen gunerik ezta herririk ere. Erreferente diren herriak bai baditu, gainera, Euskal Herri guztian ezagunak direnak. Adibidez, gutxienez honakoek ezaugarri erreferentea dute: Oñati, Bergara edo Arrasate. Baina Debagoienerako bihotz izaera edukitzeko gaitasunik ba al dute? Edo *Degaboiena Hiriburua* osatzen joateko, ba al dago udalerrien artean osagarritasuna lantzeko jarduera espezializazio bokaziorik? Jendearentzat barne joan-etorrietarako mugikortasun sistema atsegina ere eska daiteke, baina nolakoa da gurea?

Hiriburu ofizialetan ematen diren zerbitzuak ekartzea ere ez legoke gaizki, bestela, zeren hiriburu izango da Debagoiena?

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

HAUTESKUNDE-MAHAIRA EZ AZALTZEAREN ONDORIOAK

Honezkero zozketa eginda dago eta baita hauteskunde-mahaiak eratuta ere. Hori horrela, irakurle batek zera galdetu digu aste honetan: zer gerta dakioke hauteskunde egunean mahaian egotea egokitu eta agertzen ez den herritarrari?

Hauteskunde-mahaietako kideek hainbat betebehar eta eskubide dituzte. Mahai bakoitzean hiru kide daude: mahaiburua eta bi mahaikide. Horietako bakoitzak bi ordezko ditu eta ordezkoek ere hauteslekura agertu beharra dute, baina, titularrak etorriz gero, alde egin dezakete.

Kargu horiek nahitaezkoak dira eta, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 143. artikuluaren arabera, hauteskunde-mahaietako kide izendatutako herritarrak hauteskundeen egunean euren eginbeharra betetzera ez agertzea hauteskunde delitua da.

Hain zuzen, bere eginkizunak betetzera agertzen ez den mahaiburu, mahaikide edo ordezkoari 14 eta 30 egun bitarteko askatasun gabetzea ezarri ahal zaio – etxe barruko arrestatzea–.

Horrez gain, bi eta hamar hilabete bitarteko isuna ere ezarri ahal zaio. Isun hori, eguneko, 2 eta 400 euro bitartekoa izan daitekeela zehazten du Kode Penalak.

Esandako neurriak ezartzerako orduan, kontuan hartuko dituzte hauteskunde-mahaian agertu ez izanaren arrazoia eta ahalmen ekonomikoa.

Galdera egiteko:
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Bestalde, hauteskunde-mahaietan aritzeagatik, kideek honako eskubideak dituzte. Batetik, 53,34ko dieta; bestetik, inoren konturako langileek eta funtzionarioek, ordaindutako baimena bozketaren egunerako, laneguna bada, eta hauteskunde-egunaren ondoko lanegunean, lanaldia bost orduz murriztea. Azkenik, Gizarte Segurantzako Sistemaren babesa ere izango du, hauteskundeetan parte hartzeagatik etor litezkeen gertakizun eta egoeretarako.

BASERRI INGURUNEAN SORTUTAKO PLASTIKOA

Bergarako baserritar batek galdetu du noiz den baserri inguruneean sortutako plastikoa batzeko eguna.

Maiatzaren 22an pasatuko da zerbitzu hori gureko herrietatik. Beti bezala, gomendatu dute erabilitako plastikoa ohiko lekuetan lagatzea eta arratsaldez ateratzea. Bilketa lekuren bat aldatu nahi izanez gero deitu landa garapen Elkartera: 943 76 25 47 zenbakira.

marrazkiz

Unai Busturia

blog

Demokraziaren ilusioa

Asel Luzarraga
www.goiena.net/blogak/asel

Gero eta zalantza handiagoak ditut hainbeste goratzen den sistema politiko honetaz. Maiz goraipatzen dugu demokraziak aukeratzeko ematen digun aukera, beste herrialde batzuetan holako pribilegiorik ez dutela adierazi, eta bozkaren garrantzia azpimarratu. Baina susmoa dut bozkak eman behar ligukeen ilusioa ez ote den ilusiozko demokrazia bat baino. Zergatik begitantzen zait gure mendebalde honetan hauteskundeak gorroto diogunaren aurkako bozketa bihurtzen direla, sinisten dugunaren aldeko hautua baino askoz gehiago? Boto erabilgarria deritzote politikari trebeek. Hortxe dugu Frantzian gertatu berri dena, Sarkozyren garaipena eta guzti. Zenbatek, hautagai baten edo bestearen alde boto eman barik, eman dute gorrotatuenaren aurka? Horrela, normala da oldoztea egungo sistema demokratikoek ez digutela ilusio handirik pizten.

Koko-erregaia

Pello Zabala
www.berria.info/blogak/pellozabala

Koko-erregaia lortu omen dute Solomon irletan. Mostra xume bat besterik ez da. Mundu bat dabil negozioa prestatzen. Stern jaunaren txostenak ipurdia airoso altxarazi die besaulkian itsatsita zeukaten askotxori. Hau da martxa hartu duena jakintsuen eta inbentoreen sailak, bioerregai berrien peskiza zorabiotsu estu urduri presakako itolarrikoan...

plazara

Emakumeen kontrako biolentzia ez da arazo indibidual bat, eskubide kolektibo baten urraketa baizik. Halaxe dio Maite Barreñak. Herritarrok inplikatu egin behar dugula dio, erasoa sufritzen dutenen ondoan elkartasuna adieraziz eta erasotzailearen jarrera salatuz. Horren guztiaren aurrean guztiok zeregina dugula nabarmentzen du eta gonbitea ere luzatzen du: "Apunta zaitez!"

Maite Barreña *

Ni, eta zu, eta zu, eta zu,... eta zu?

Pertsonak komunitatean bizi bagara ere bizitza komunitarioaren hainbat balore desagertzen ari dira gaur egun.

Atarte berean bizi bagara ere, apenas ezagutzen dugu elkar eta sarri elkarrengandik iheska ibiltzen gara.

Ni umea nintzela eskailerako ateak zabalik egoten ziren. Bizilagunen arteko harremanak estuak ziren eta egunerokotasunean elkarren arteko laguntza ohikoa zen.

Aipatutako harremanak aldatzen joan dira, besteak beste, herrien hazkundeak, emakumeen merkatu laboralerako inkorporazioak, familia eredu ezberdinen sorrerak, denbora eta espazio publikoaren erabileraren aldaketak, berebiziko garrantzia izan dute.

Eraldaketa guztiekin gertatzen den modura, *herritartasuna*ren aldaketarekin hainbat onura lortu baldin badira ere, badira galdu diren balore garrantzitsuak, hauetako bat nire ustez, herritarron arteko elkartasuna da.

Eta honek, ba al du emakumeok sufritzen dugun biolentziaren kontrako borrokarekin zerikusirik? Ikaragarri nire iritziz.

Anitzak dira emakumeok sufritzen ditugun biolentzia erak: horietako batzuk espazio publikoan ematen dira, beste batzuk, aldiz, espazio pribatuan; erasotzaileak ezagunak dira kasu batzuetan eta beste batzuetan, ezezagunak; erasoak fisikoak zein psikologikoak izan daitezke eta egunez zein gauez gerta daitezke... hau da, erasoak mota askotarikoak dira eta egoera anitzetan suertatu ahal dira.



MIKEL ARROIABE

Badago beste biolentzia mota bat, gutxitan aipatzen dena baina emakumeon eguneroko bizitzetan izugarrizko eragina duena: beldurra, gerta dakigukeen erasoari diogun beldurra, hain justu ere. *Beldur prebentibo* honek emakumeon egunerokotasuna guztiz baldintzatzea dakar.

Egoera hori izanik, zorionez badago emakumeen eskubideen bermean neurriak hartzeko aukera zabala. Ugariak dira botere publikoetatik hartzen diren eta oraindi ere hartu daitezkeen neurriak (beti ere, borondate politikoa baldin badago).

"Bada beste biolentzia mota bat gutxitan aipatu arren eguneroko bizitzan izugarrizko eragina duena: gerta dakigun erasoari diogun beldurra"

"Emakumeen kontrako biolentzia eskubide kolektibo baten urraketa da"

Asko eragin daiteke hezkuntzatik zein iritzi publikotik; egoera ezberdinei erantzuteko, errekurtso sozialak ere behar beharrezkoak dira. Baina, ezinbestekoa dena emakumeok sufritzen dugun biolentziari aurre egiterakoan da: *herritarron elkartasuna eta konpromezua*.

Emakumeon kontrako biolentzia ez da arazo indibidual bat, eskubide kolektibo baten urraketa baizik. Eskubideen defentsan denok gara beharrezkoak: emakumezkoak zein gizonezkoak, gazteak nahiz zaharrak, erasotuak eta gainontzeko guztiak.

Herritarrok inplikatu egin behar dugu, erasoa sufritu dutenen ondoan elkartasuna adieraziz eta erasotzailearen jarrera salatuz. Emakumeon eskubideak defenditu behar ditugu, gauez bakarrik ibiltzeko beldurrak baztertzeko, mendian bakarrik ibiltzeko eskubidea bermatzeko, autostop patxadaz egiteko, parrandan lasai eta aske ibiltzeko, bakarrik bidaiatzeko..., eta beste hainbat gauzatarako.

Horren guztiaren aurrean, *zuk ere baduzu zereginik. Apunta zaitez!*

*Maite Barreña, Arrasateko Udaleko Berdintasun teknikaria

zer deritzozu?

www.goiena.net

Saihestu daitezke lan istripuak? Nola?

BAI	%100
EZ	%0

> EBITATU DAITEZKE
Neurri handi batean ebitatu daitezkeela uste dut. Horretarako, baina, heziketa eta prebentzio neurriak hartu behar direla uste dut. Eta gaur egun hori ez da batere zaintzen.
Miren

> BAI
Bai, baina horretarako patronalak eta erakundeek bestelako jarrera bat erakutsi beharko dute. Diruari hainbeste begiratu barik lan istripuk prebenitzeko neurri gehiago hartu beharko lituzkete, bai lantegi eta makineria egokiarekin zein langileak trebatuz.
Aitor

> LANGILEEN ARDURA
Ados nago zurekin, aitor. Hala eta guztiz ere, langileen ardura ere aipatuko nuke nik. Iruditzen zait batzuetan arinkeriaz jokatzen dugula lanean: eskura izanda ere, ez ditugu segurtasun neurriak betetzen.
Ainara

DATORREN ASTEKOA: Zilegi deritzozu Jon Agirreren egoerari?

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Oraintxe indarrak metatuko ditugu, metatuko ditugunez, koanto! Eguzkiarenekin aspaldi abiatu zirenak, haize-lapurren ekarria sortu zuten gero, gure mendi-kaxkoetatik itsasoraino eraman dutena jada. Uraren potentzia ere entseatu dute olatu tematien joan-etorriak profitatuz. Baina, azken aldiotan zer ez da probetxugarri, itsasoko hainbat hazkuntza itsas-haztegi azkengabe zabaletan ekoizten abiatu direnean? Biomasa nahi biogas izen generikoaren zakuan, begira zenbat landare probatu dituzten dagoeneko: boniatoa, patata, batata, azukre kanabera, garia, garagarra, artoa, basartoa, mandioka, eguzkilora, soja, arroza, orburua... eta abar luzetxo bat. Baina ez da hortan gelditzen kontua. Landare sorta batekin ere jardunak dira: garo eta ihi mota batzuekin, frantses patatarekin, indipikondoekin, eta batez ere gardulatzarekin (kontuak atera dituzte, gardulatz soro batek, hektarea bakoitzeko, gari eta artoek baino askoz biomasa tona gehiago ematen dituela: barre algararik egin behar du baserritar zaharrak soroetan gardulatzak ekoizten ikustean...). Baina, bada, artean ere, dezente gehiago: zuhaitz baso, txaradi eta hainbat landaredi ere probatuak dituzte: eukaliptoa zuhaitzetan egokiena omen, makalak, zurzuriak eta lertxunak ere estimazioa izango ei dute, sahats eta zume nahiz zumitzek ere bai, akazia ere estimatua... horixe behar dugu orain, pinuak eta beste, erregai garbi ei direnetarako erabiliak izatea! Zenbatean salgai?

Koko-erregaitik abiatuta, hara zenbateko zerrenda osatu diguten... kk zaharra! zioenak ba ote zekien horrenbeste iñaurkinekin, azkenean, *bioerregai garbia* dioten garestiago hori aterako zigutela?

koplak

Manex Agirre

Urduritasuna

Badakizue Kurtzeta puntan
miradorea tarteko,
nola dagoen bidekurtze bat
Oleta aldera joateko?

Hantxe topatu nituen, orain
direla bi aste edo
lau patrol berde, eta barruan
hamazazpi majadero.

Sei metraileta, zortzi pistola
(ta ez dut jarraitu nahi gehitzen)
jo, zer nahi duzue esatea
nerbioso jarri nintzen.

Primera sartu nuen (krik,
krak, krok) ikusi eta segidan
ta justu kontrolaren parean
kalatu egin zitzaidan.

Denbora apur bat pasatu zen
Arrankatu bitartean...
Tu eres tonto o que? Venga, venga!
Entzun nuen bat-batean.

*Tonto*arena gustatu ez arren
Ni sentitu nintzen bapo
Beraiek ere nerbioso xamar
Ipini nituelako.

Egongo gara!

Mikel Martin
Oñati

Hau idazten nagoela oraindik ez dakit zer gertatu den EAE-ANV alderdiarekin. Beraz, ez dakit nire herrian ANV aurkeztu daitekeen edo ez hauteskundeetara. Espainiako Estatuak, edozein modutan ere, erabaki du gure herrian ezker abertzalea ezin dela aurkeztu. Gobernuak eta Auzitegi Gorenak hala erabaki dute. Zer eta, aurreko Udal hauteskundeetan, orain dela lau urte, 1.500 bototik gora atera zituen zerrendaren balizko boto emaileak aukera barik utzi ditu. Zeren izenean eta demokraziaren izenean. A ze demokrazia hau herritarron eskubideak modu horretan ukatzen dituenak. Zelan sinistuko dugu Estatu Espainolaren demokrazian?

Kontuak kontu, aurkezten utzi edo ez, Oñatin eta Euskal Herriko herri guztietan presente egongo da ezker abertzalea bai orain eta baita hurrengo urteetan ere, eta hauteskunde hauetan ere bere ahotsa entzunaraziko duela ziur nago. Bizi garen gizartearen errealitate bat delako, errealitatea lege partzial, injustu eta demokraziaren aurkakoek ezin dezaketelako aldatu. Nik argi daukat: nire aukera, ezker abertzalea!, udaletxeetan aulkia izan edo ez izan.

Ondo egindako lanagatik

Mikel Errasti > Aretxabaleta

Norbera ez den edonork, zerbait gaizki egiten duenean, erraza da kexatzea eta askotan beharrezkoa ere izan daiteke. Baina, besteak gauzak ondo egindakoan, askotan ez da ondo egindakoaren onarpenik adierazten.

Seguru Arrasateko ospitalean ere maiz gertatuko den zerbait dela hau.

Orain dela denbora gutxi, ospitalean egon beharra izan nuen ebakuntza txiki bat egiteko. Egin, irten eta alde, beste historiarik gabe. Hala ere, lerro hauen bitartez, nire esker ona adierazi nahi diet nire osasuna eta erosotasunaren alde, lanean fin ibilitako pertsona guztiei.

Ezkorra

Andoni Arantzabal
Bergara

Reala berriro ere. Ezkorra naiz. Oso ezkorra. Bigarren mailan ikusten dut taldea. Okerrena da eduki gaituztela hor, itxaropenaz, azkenera arte, jakin arren ia ezinezkoa izango zela. Eta eduki gaituzte engainaturik: "ezin dugu hutsik egin, joan behar gara dena ematera". Eta, gero, bat eta hutsekoarekin etxera , irabazteko ezer egin barik, partiduaren bila joateko ezer egin barik, atzealdean itxaroten egonda (Getaferen aurka bezala).

Realeko zuzendaritza taldekoek egin dituzte gauzak txarto hasieratik: esperientziarik ez daukan jokalari handi izandako bat, Bakero, ipini zuten kirol zuzendari; gero, utzi zioten kirol zuzendari eta entrenatzaile izaten; haren ardurapean egin zituzten fitxaketa eskasak udan, ez dakit zenbat milioi gastatuz, teorian fitxaketak egiteko dirurik ez zutela esan arren; hura bota zuten eta ekarri zuten beste entrenatzaile bat, Lotina, amarrategi bat, aurrera begira baino, beti zuloa gordetzen ahalegintzen den horietakoa: berdinketaren bila ateratzen den horietakoa eta gero, suerte apur bat edukiz gero, golen bat egiten bada, primeran! (Betisen aurka bezala). Eta horrela gaude: domekan hil ala biziko partidua dute. Irabazten ze badute, akabo. Eta, hala ere, gutxienez lau partidu irabazi behar dituzte bostetik. Ezinezkoa. Ba, horixe, datorren urtean bigarren mailan.

Maiatzak 1

Jose Ramon Kortabarria
LABeko kidea
Bergara

Mundu mailan langileen eguna eta, noski, gure herrian ere bai. Batzuendako jai eguna soilik eta beste batzuendako aldarrikapen eguna. Egia esan, gaur egun ere jarraitu beharra daukagu aldarrikatzen eta salatzen langileon egoera ugari.

LABek orain dela urte bi erabaki zuen egun honetan egin beharrekoak hiriburuetatik herrietara eta eskualdetara ekartzea, langileon inplikazioa handitu nahian. Aldaketa horrek sindikatuan parte hartzen dugunondako ardura handiagoa ekartzen du. Aurten erabaki horrek zailtasun handiagoa zuen, kontutan izanda 4 eguneko zubia zegoela eta herritar asko kanpora joaten dela. Zailtasunak zailtasun, manifestazio bat, ekitaldi bat eta bazkari bat antolatu genuen Arrasaten. Aste horretan GOIENKARIA hartu dudanean eta begira hasi naizenean ez dut ezer ikusi Arrasateko Maiatzaren 1eko egunari buruz.

Ni ez naiz kazetaria eta ez naiz inor zuen lana nola egin behar duzuen esateko, baina nahi nuke galdera batzuen erantzuna jakitea, ez dudalako normala ikusten aipamen txiki bat ere ez egitea.

Maiatzak 1 langile bezala jai zenuten? Beste ospakizun garrantzitsuren bat zegoen gure bailaran?

Ez zaizue garrantzitsua pentsatu gure manifestazio, ekitaldi eta bazkaria? Zuen erantzunek gure eta nire zalantzak argituko dituztelakoan beste bat arte.

ERANTZUNA

Maiatzaren 1ean LAB sindikatuak antolatutako ekitaldiaren gainean, Jose Luis Kortabarriak idatzitako gutunaren harira, zera adierazi nahi du GOIENKARIAk:

1. Aurretik iragarri genuen GOIENKARIAn, Maiatzaren 1era begira, sindikatuek zer egiteko asmoa zuten, bai egubakoitzeko eta baita astelehenako edizoan ere.

2. Maiatzaren 1ean eta bezperan, apirilaren 31n, jai izan genuen; hau da, ez zen Goienako langilerik ibili lanean egun horietan. Hortaz, ezin izan genuen ekitaldi horren berririk jaso.

3. Maiatzaren 4ko GOIENKARIA izan zen ohikoa baino laburragoa, hau da, orri gutxiagokoa, bi egun gutxiago izan zuelako lan taldeak GOIENKARIA egiteko. Ondorioz, espazio gutxiago zegoen asteko albisteen berri emateko.

4. Maiatzaren 4ko GOIENKARIAn gai batzuk aukeratu ziren eta beste batzuk kanpoan geratu ziren, betiko moduan. LABek antolatutako ekitaldia kanpoan geratu zen. GOIENKARIAko erredakzioak egoki zuen beste gai interesgarriago batzuk aukeratzea, kontuan izanda, gainera, Maiatzaren 1ean kazetaririk ez zela lanean ibili.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

HAUTESKUNDEAK GOITBn

➢ Saio bereziak, herriz herri, Udal hauteskundeetara alkate izateko aurkezten direnekin.
➢ Eta batzar nagusietarako hautagaiekin.

- Maiatzak 11, egubakoitza: Leintz Gatzaga.
- Maiatzak 14, astelehena: Elgeta.
- Maiatzak 15, martitzena: Aramaio.
- Maiatzak 16, eguaztena: Mahai-inguru berezia, Batzar Nagusien gainekoa.
- Maiatzak 17, eguena: Antzuola.
- Maiatzak 18, egubakoitza: Eskoriatza.
- Maiatzak 21, astelehena: Aretxabaleta.
- Maiatzak 22, martitzena: Batzar Nagusiak (Gipuzkoa).
- Maiatzak 23, eguaztena: Oñati.
- Maiatzak 24, eguena: Bergara.
- Maiatzak 25, egubakoitza: Arrasate

Saio guztiak: 21:45etatik 22:45etara.

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

'Musika nonahi entzun dadila".

Arkaitz, Hernani.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxa**n ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxa**ren Gizarte-Ekintza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza

76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan

- Osasuna
- Gizarte-Laguntza
- Elkartasuna
- Hezkuntza
- Ikerkuntza eta Enplegua
- **Kultura** 5 milioi, kultura jende guztiarengana hurbiltzeko
- Aisialdia
- Ingurumena

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

HELDU DA UDABERRIA

LIE lurrindegia
ARETXABALETA
Mitarte 18 • 943 79 38 59
Francesco Biasia poltsa

KILIMA ume eta haurdunentzako arropak
ARETXABALETA
Ilargi plaza 6 • 943 53 34 96
Mama Licious jantziak

XARMANTA opariak
ESKORIATZA
Gaztainadui 21 • 943 71 53 87
Ory bainu-jantziak

MAINEKO. Ume eta gazteentzako arropak
ARRASATE
Iturriotz 24 • 943 79 27 66
DDP Junior *jantziak*

JOLAS opariak
BERGARA
Barrenkale 27 • 943 76 46 48
***Uno de 50* lepokoak**

ZABALA optika
BERGARA
Barrenkale 25 • 943 76 16 97
***Polaroid* betaurreko polarizatuak**

KZK kirolak
BERGARA
Barrenkale 35 • 943 76 53 68
Bainu jantziak, kirol arropa eta John Smith



Herriak

Arrasate > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
Antzuola > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39

> ARRASATE
Txatxilipurdiren udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute **> 20**

> BERGARA
Elkartasun jaia egingo du Mariaren Lagundiak hilaren 17an **> 25**

> ESKORIATZA
Zapatuan Aitzorrotz kultura elkartearen eguna ospatuko dute **> 34**

> ELGETA
Elgetako Udalari 4,71ko nota jarri dio Kontseiluak **> 37**

ARETXABALETA > EUSKARAREN ASTEA 07

Maiatzeko hirugarren astea euskararen aldekoa da Aretxabaletan

SEI EGUN
Maiatzaren 14an hasi eta maiatzaren 19ra arte egunero egingo dute ekitaldiren bat

EUSKARAREN EGUNA
Dena den, egun handiena izango da maiatzaren 19a: Euskararen Eguna

UBANE MADERA > ARETXABALETA

Sei egunez, Aretxabaletan euskararen erabilera modu berezian aldarrikatuko dute. *Eitteko prest!* leloa oinarri hartuta, hirugarren urtez Euskararen Astea ospatuko dute Kurtzebarriren magaleko udalerri hartan.

Maiatzaren 14tik 19ra arteko egitaraua prestatu du Loramendi Euskara Elkarteak, antolatzaileak. Egun handia, baina, 19a izango da: Euskararen Eguna. Hain zuzen, Euskararen Eguna lehenagotik ospatzen dute aretxabaletarrek, maiatzeko hirugarren zapatuan. Denborarekin, egun horretako ospakizunak aste osora luzatu dituzte; eta hortik etorri da gaur egungo Euskararen Astea.

JAXINTOREN BISITA

Euskararen Astean euskal kulturarekin lotura duten hainbat ekimen egingo dituzte. Batzuk nabarmentzearren, Julio Ibarrak eta Iñaki Eizmendik hitzaldia egingo dute: *Yo no sé euskera, cómo le puedo ayudar a mi hij@?*. Musika kontzertuak izango dira: Neallta Fola (Aretxabaleta) eta Mahaster River (Bergara) taldeekin. Eta zapatuan, Euskararen Egunean, mendi bueltarekin hasi, gazta eta sagardo dastatzearekin segi eta, besteak beste, bazkari herrikoiarekin borobilduko dute goiza. Arratsalderako, berriz, dute aurreikusita umeendako boloa (gozoki jaurtiketa) Udaletxe Zaharreko balkoitik, eta Larrain dantza, Durana kaleko erakundeen materiala eta dantza jantziena, aste osoan egongo den bera.

JAI GIROA Elkarteen laguntzarekin, jai giroan aldarrikatuko dute euskararen erabilera; argazkian, trikitilariak, iaz. GOIENKARIA

an. "Iaz egin genuen Larrain dantza eta arrakasta handia izan zuela-eta erabaki dugu errepikatzea", diote antolatzaileek.

Kontatu dute, baita ere, boloa egingo duela Jaxintok, ludotekako erle-maskotak, eta gozokiak bota ostean, umeei zuzendutako mezua irakurriko duela, jakina, euskararen aldekoa.

LAU ERAKUSKETA

Nabarmentzekoa da, baita ere, aste osoan, dantzarien jantzien erakusketa egingo duela Loramendi dantza taldeak. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako jantziak ipiniko dituzte ikusgai, herrialde bakoitzeko, bikote baten jantziak, hain justu.

Eta maiatzaren 19an, berriz, lau erakusketa egingo dituzte Udaletxe Zaharraren atarian: Okila taldekoek tailan egindakoak; bainikaz egindako lanena, Tril Emakume Taldearen eskutik; Hiruatx eta Iesbaa gobernuz

BAZKARIRAKO TXARTELAK, AURREZ

Bestalde, azpimarragarria da maiatzaren 19ko mendi buelta berezia izango dela. Batetik, osteratxo erraza antolatu dutelako, "familian egiteko modukoa": Udaletxe Zaharretik abiatu, bidegorritik Urkulura igo, handik Arientzara eta Boliñara joan eta buelta. Kalkulatzen dute gazta dastatzerako bueltan izango direla (12:30-13:00). Eta bestetik, "mendi ibilaldi hori euskararekin uztartzeko", Urkulun eta Mitarte Garain kontrol puntuak ipiniko dituztelako, eta "halakoetan, euskararekin lotutako frogak gainditu beharko dituzte partehartzaileek", argitu dute.

Horrez gain, antolatzaileek abisatu gura dute bazkari herrikoirako txartelak aurrez erosi behar direla. 12 eurotan daude salgai, Loramendi, Urbaltz eta Orlyn. Bazkaltzen, txotx! egin ahal izango da, Petritegiko sagardoarekin eta Portaloia elkarte arrasatearrak gidatuta, kantu herrikoiak kantatuko dituzte.

Eta antolatzaileek eskaera bat ere helarazi gura dute: "Eskatu gura dugu, gaueko parrandan ez ezik, egunean zeharreko ekintzetan ere parte har dezan jendeak".

ELKARLANAREN EMAITZA

Euskararen Astea Loramendi EEk antolatzen du, "baina elkarteekin egindako elkarlanaren emaitza da. Igarri dugu, gainera, urtetik urtera gero eta gehiago bustitzen direla Loramendirekin; adibidez, urteko dantza ikastaroak Loramendi dantza taldearekin batera antolatzen ditugu; Euskararen Eguneko mendi ibilaldia Murrukixo elkarteak antolatu du; txalapartariek laguntzen dute, menua gastronomi elkarteek egiten dute, e.a."

EUSKARAREN EGOERA HERRIAN

Euskararen kale erabilerari eutsi egin zaio urteotan

Aretxabaletan euskararen kale erabilera da %43,2. 15 urteotan 0,4 puntu jaitsi da. Dena den, espero zitekeen erabilera (%33,9) kale neurketak jasotakoa baino baxuagoa da. Gehien erabiltzen dutenak umeak eta gazteak dira (%58,2); eta gutxien darabiltenak helduak eta adinekoak (%36,4).

Egitaraua, eguna-ordua

14, astelehena
17:30 Euskara elkarteak kudeatzen duen ludotekako umeen antzerki emanaldia, Kurtzebarri eskolako aretoan.

15, martitzena
19:00 Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendiren hitzaldia: *Yo no sé euskera, cómo le puedo ayudar a mi hij@?*. Udaletxe Zaharrean.

16, eguaztena
18:00 Loramendi dantza taldearen saioa, herriko plazan.

17, eguena
21:00 Neallta Fola taldearen kontzertua, Urbaltzen.

18, egubakoitza
22:30 Mahaster River taldearen kontzertua, Ezkutun.

19, zapatua
10:00 Mendi ibilaldia, Murrukixorekin.
11:00 Leziarra musika eskolako trikitilariekin kalejira.
12:00 Umeendako tailerrak, Mitarte kalean.
13:00 Inguruko baserrietako gazte eta sagardo dastaketa, Muru-alde elkartearen aurrean.
12:45 Txalaparta saioa, Mitarten
13:00 Bertsoak: Imanol Lazkano eta Iker Zubeldia, Leintz bertso eskolakoek lagunduta.
14:30: Baba jana
17:00etatik aurrera Bilboko gaitariekin animazioa
18:00 Boloa, Udaletxe Zaharrean
19:00 Larrain dantza, Duranan
20:00 Turru-Tarra fanfarrea

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 12	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 13	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Astelehena, 14	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Martitzena, 15	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Eguaztena, 16	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguena, 17	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Egubakoitza, 18	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26

BERGARA

Zapatua, 12	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 13	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehena, 14	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 15	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 16	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 17	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 18	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74

OÑATI

Zapatua, 12	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 13	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 14	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 15	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 16	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 17	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 18	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58

ARETXABALETA

Zapatua, 12	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Domeka, 13	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Astelehena, 14	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 15	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 16	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 17	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 18	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....943 46 11 11
DYA (Antzuola).....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....943 76 55 76
Suhiltzaileak.....943 78 28 00
Ertzaintza.....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala.....943 03 53 00
- Antzuola.....943 76 62 23
- Aramaio.....945 44 53 40
- Aretxabaleta.....943 71 19 59
- Bergara.....943 03 54 00
- Elgeta.....943 03 54 00
- Eskoriatza.....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola.....943 76 62 46
- Arrasate.....943 79 14 39
- Aretxabaleta.....943 71 18 63
- Bergara.....943 77 91 06
- Eskoriatza.....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate.....943 79 12 22
- Aramaio.....945 44 50 33
- Aretxabaleta.....943 77 12 64
- Bergara.....943 79 12 22
- Eskoriatza.....943 71 40 59
- Oñati.....943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate.....943 77 11 43
- Bergara.....943 76 44 42
- Oñati.....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio.....945 44 53 35
- Arrasate.....943 77 16 77
- Aretxabaleta.....943 71 26 28
- Bergara.....943 76 56 41
- Elgeta.....943 76 82 84
- Eskoriatza.....943 71 53 28
- Oñati.....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola.....943 76 60 65
- Aramaio.....945 44 53 74
- Arrasate.....943 77 01 05
- Aretxabaleta.....943 71 10 27
- Bergara.....943 77 91 58
- Eskoriatza.....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola.....943 76 62 46
- Aramaio.....945 44 50 16
- Arrasate.....943 79 09 00
- Aretxabaleta.....943 71 18 62
- Bergara.....943 77 91 00
- Elgeta.....943 76 80 22
- Eskoriatza.....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga.....943 71 47 46
- Oñati.....943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	**Aramaio**	**Arrasate**
	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN

Zapatua, 12
Egubakoitzeko eguraldi antzerakoa izango dugu zapatuan. Zerua erdi estalita izango den arren, orokorrean eguraldi polita izango dugu.

Domeka, 13
Goiz partean, hego haizearen eraginez, tenperaturak epel samarrak izango dira. Hori bai, iluntzean ekaitz arriskua ere izango da.

EUSKAL HERRIAN

Orokorrean, eguraldi polita izango dugu asteburu osoan, zeruak garbi-garbi egongo ez diren arren. Zapatuan ez da okertzeko joerarik ikusten. Okertzekotan, domeka iluntzean okertuko du, ekaitz arrisku dezentekoa izango dugu-eta. Tenperaturak sasoikoak izango dira.



TENPERATURAK

MINIMOA Eguaztena, 2	**5 ºC**
MAXIMOA Martitzena, 8	**24 ºC**
ASTEKO EURIA (l/m²)	**17,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	20 ºC	5 ºC	- l/m²
Eguena, 3	16 ºC	7 ºC	9,7 l/m²
Egubakoitza, 4	16 ºC	10 ºC	0,2 l/m²
Zapatua, 5	14 ºC	11 ºC	7,8 l/m²
Domeka, 6	19 ºC	10 ºC	- l/m²
Astelehena, 7	17 ºC	7 ºC	- l/m²
Martitzena, 8	24 ºC	10 ºC	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA MAIATZEAN

Ilbehera	Ilberri	Ilgora	Ilbete
10	16	23	2

oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA

> Hiltegia bizirik taldeak batzarra deitu du

Astelehenean egingo dute batzarra, Eskoriatzako Ibarraundi museoan, 21:00etan. Urte eta erdi pasatu da azkeneko batzar irekia egin zutenetik. Hori horrela, ordutik honako ibilbidearen errepasoa egingo dute. Baita gaur egungo egoeraren gainean berba egin ere. Interesa duten guztiak joan daitezke.

BERGARA

> Posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri du EAJ-k

Batzokian jarri dute bulegoa. Gogoratu maiatzaren 17a dela posta bidez bozkatzeko azken eguna. Informazio gehiago 943 76 47 00 zenbakian.

ARETXABALETA

> Oporrak brigadistalanak eginda pasatzeko argibideak

Askapena taldeko kideek azalduko dute munduko hainbat herritara brigadista moduan joanda oporrak zela pasatu beste era batera. Loramendi EEk gonbidatuta etorriko dira, maiatzaren 10ean, 19:00etan, udaletxe zaharrera.

BERGARA

> 1965ean jaiotakoen kinto afaria

Maiatzaren 19an izango da, 22:00etan, Txarrantxa jatetxean. Aurretik Pol-Polen batuko dira, 19:00etan. Izenematea Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan. Argibideak: 629 56 29 25 (Karlos) edo *ketxaniz@eskalnet.net*.

DEBAGOIENA

> Degabelek ohiko batzarra deitu du

Debagoieneko abeltzainen elkarteak Arrasaten egingo du aurten urteko batzarra, hilaren 13an. Lehen deialdia 11:30ean da; bigarrena, 12:00etan.

BERGARA

> Xamatz dantza taldean ibilitakoen bazkaria

Ekainaren 9an egingo dute, 14:30ean, Agorrosinen. Aurretik 12:00etan elkartuko dira, Ariznoa tabernan. Izena emateko sartu 5 euro Euskadiko Kutxan.

ARETXABALETA

> Udalekuetan begirale jarduteko izenematea

Maiatzaren 2tik 17ra arte egongo da zabalik izenematea. Horretarako, bidali curriculumak *kultura@aretxabaleta.net* helbidera edo kultura etxera (Iralabarri plaza 13).

ELGETA

> Zabalik dago ibilgailuen zerga ordaintzeko epea

Ekainaren 10era arte dago zabalik ibilgailuen zerga ordaintzeko epea. Udalak eman du jakitera helbideratutako ordainagiriak maiatzaren 8an zordunduko direla baimendutako kontuetan. Helbideratuta ez daudenak posta arruntaz bidaliko dira zergadunen helbide fiskalera.

ARETXABALETA

> Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri du EAJk

Posta bidez bozkatzeko orduan zalantzaren bat izan edo laguntza behar dutenendako zerbitzua jarri du EAJk batzokian. Interesa duten guztiak astelehen eta eguaztenetan 18:00etatik 19:30era hurrera daitezke.

BERGARA

> Ezker abertzaleak bulegoa jarri du posta bidez bozkatzeko

Posta bidez bozkatu nahi duten guztiendako jarri dute bulegoa. Artatse elkartean dago, 11:00-14:00 eta 18:00-20:00 –zapatuetan goizez bakarrik–. Maiatzaren 17a da posta bidez bozkatzeko azken eguna.

OÑATI

> UEUra joateko beka eska daiteke Udalean

Baldintzak dira Oñatin erroldatua egotea eta ikasle edo langabea izatea. Ikasleen kasuan, unibertsitateko matrikularen bidez egiaztatu beharko dute baldintza hori, eta langabeen kasuan, langabe txartelarekin. Horrekin batera, ikastaroaren matrikula egina behar du eskatzaileak eta egiaztagiria erantsi behar dio Udalean egiten duen eskariari.

BERGARA

> Euskal Argazkilaritza Federazioak kongresua egingo du bihar, Pol-Pol aretoan

Kongresua 09:30ean hasiko da, Pol-Pol Mendizale taldearen egoitzan. Batzarraren ostean, bazkaria ere egingo dute Pertxa jatetxean eta han, Argizaiola 2007 sariak banatuko dituzte. Horrekin batera Argazkilaritzako Espainiako Konfederazioko tituluak ere banatuko dituzte.

BERGARA

> Irteera Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeekin

Lizarraga-Trinidad-Argiñano ibilaldia egingo dute hilaren 20an. Egun osoko irteera izango da eta 08:00etan abiatuko dira Fraiskozuritik. Txartelak Pol-Pol tabernako barran eskura daitezke.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Antzuolako alardea aldatu beharko litzatekeela uste al duzu?

Mirari Beitia
Langilea
Antzuola

Alardea gogoratzea ez dut ondo ikusten. Gerra bat izan zen, hildakoak izan ziren eta batzuk garaipena eskuratu zuten. Hilketak ospatzea ez zait ondo iruditzen eta, hortaz, desagertu beharko litzateke.

Kaxiano Zabalo
Erretiratua
Antzuola

Zerbait aldatu beharko litzatekeela uste dut. Etorkin asko etorri da azkenaldian eta horren harira zertxobait aldatu beharko litzateke. Etorkinen aldera egin beharko genuke alardean.

Josu Errasti
Langilea
Antzuola

Bai, aldatu beharra dago. Gaur egungo egoerara egokitu beharko litzateke alardea, eduki aldetik. Ekimena egun batean edo bestean izatea berdin zait. Horrek ez dit larregi axola.

Jone Gorrotxategi
Langilea
Antzuola

Berdin zait. Hemengo historia izango da, baina ez nau sekula arduratu. Ez naiz sartuko ondo edo txarto dagoen esaten. Errespetatzen dut. Desagertzea, hala ere, ez dut ondo ikusten.

Amaia Cabrera
Ikaslea
Antzuola

Urte batean irtenda nago, danborra jotzen. Jende gehiagok parte hartzen badu, aldatzea ondo ikusten dut. Bestela, ez nuke aldatuko. Azken finean, herriko ekimen garrantzitsuenetarikoa da.

txaloak eta txistuak

O.E.

Olakuako lur-jauzia hasi dira konpontzen

Oñatiko Olakua auzoan lur-jauzi batek eragin zituen kalteak konpontzen hasi dira. Herritarrak kexu ziren, asteak eman dituztelako zonaldea konpondu barik. Egoerari irtenbidea ematea eskatzen zuten herritarrek. Bada, orain, lanean hasi dira makinak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

2.005

Debagoienean, guztira 2.005 etorkin daude erroldatuta. Ibarreko biztanleria osoaren %3,25a dira. Etorkin gehien dituen herria Bergara da (727). Gutxien dituena, berriz, Leintz Gatzaga (7). Mankomunitateak eman ditu datuok.

usteak uste

Oihana Elortza

Etorri dela hauteskunde kanpaina

Hauteskundeen gaineko programak grabatzen ibili gara hainbat kazetari azken bi asteotan. Bergarako alkategaien iritziak jasotzea tokatu zait niri eta etxeko lanak eginda ekarri dituzte. Lankideek esan didate beste herrietan ere horrela gertatu dela: hitzordura puntual etorri direla hautagaiak, gehienak ondo ikasita minutu eta erdian esateko gai konkretu batzuei buruz duten iritzia.

Orain kanpaina hasi da. Duela gutxi lagun batek esan zigun biri: "zuek, honez gero erabakita izango duzue botoa, ezta? alderdi guztiei jarraipena egin ostean...". "Ez pentsa", erantzun zion beste lagunak, "ikusiko dugu kanpainan boligrafoak, loreak, pizgailuak edo zer oparitzen duten". Hirurok egin genuen barre eta irudi hori etorriko zait kanpainan norbait zerbait oparitzen ikusten badut. Alderdi askok dirutza gastatzen dute horretan eta hautesle asko propagandako goxokien zain egoten dira. Pentsatu gura dut oparien truke botoa emango duten herritar gutxi egongo direla. Kanpainarekin batera emango dituzte telebistan guk grabatutakoak. Aurretik eta ostean guztiok hartutako lanak ikusiko dira.

5 galdera...

Angela Garcia

Angela Estetikako arduraduna
Arrasate

1. Uda gertu dago eta jende askok kilo batzuk galdu gura ditu. Zein da argaltzeko modurik onena?

Dietetista bat dugu gurekin lan egiten, pertsonaren araberako dieta prestatzen duena. Programa informatiko bat du horretarako, gorputz osoaren egoera aztertzen duena. Aste batean dieta pertsonalizatua izango du bezeroak. Hortik hasten gara lanean. Horretaz gain, emaitza oso onak ematen dituzten aparatuak ditugu.

2. Elikadura zaintzeaz gain, bestelakorik egin beharra dago?

Bai. Tratamendu eta dietaz gain, ariketa fisikoa egiteak ere laguntzen du. Bestalde, ez dut uste ezer kendu behar denik. Gauza asko kentzen badira antsietatea sor daiteke. Horregatik, bere neurrian, denetarik hartzea ona da.

3. Ona al da pisua azkarregi galtzea?. Zenbat kilo galdu behar dira astero?

Ez da ona. Poliki joan beharra dago. Pisua oso bizkor jaistean, oso azkar errekuperatzen da. Bizkor jaisten denean, ez da koipea kentzen. Galtzen dena ura da. Gure dietistak jarraipen bat egiten du, dieta nola egin eta pertsona horrek zenbat kilo galdu behar dituen zehazteko. Azken finean, jaten erakusten diogu jendeari.

4. Zenbat balio dezake zuenean tratamendu batek?

Lehen bi sesioak ordubetekoak dira eta 25 euro balio du bakoitzak. Hortik aurrerakoak 15 eurokoak dira. Tratamendu korporalek prezio ezberdinak dituzte. Merkeena 60 eurokoa da eta garestiena, berriz, 800 eurokoa. 20 sesio ditu azken horrek. Ahalegintzen gara bakoitzari dagokion tratamendua zehazten.

5. Igarri duzue bainu jantzia ipintzeko astirako gutxi falta dela?

Bai, otsailetik. Orain lanez gainezka gabiltza, aparatu guztiak hartuta ditugu. Baina, azkenaldian, urte osoan barrena zaintzeko ohitura handitzen ari dela ikusi dugu.

TALDEA Kulturaten aureztu zituzten aralarkideek euren asmoak. U.M.

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

Herritarren partehartzea landu gura du Aralarrek

Hirigintza arloan, udal jarduna legealdi hasieran zehaztu behar dela uste dute

IZENA ABIZENA > HERRIA

Lau urteotan egindako lana eta datozen lau urteotan egin gura dutena azaldu du Aralarrek.

Egindakoaren gainean Hirigintzan izandako hutsuneak kritikatu zituen Joxe Etxeberria zerrendaburuak. Nabarmendu zuen legealdian izan diren arazoak gertatu direla informazio ezak eraginda eta hori etorkizunera begira landu beharreko arloa dela gaineratu zuen.

Edozelan ere, legealdian gauza guztiak txarrak ez dira izan Aralarren ustez. Horrela, alderdi horrek egindako lanen artean nabarmendu zituzten Emakume Plana, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta ahalegindu direla egindakoak egiten ahalik eta herritarren partehartze handienarekin. Halaber, lau urteotara begira partehartzea lantzen segitzeko asmoa duela esan zuen. Horren harira, Etorkizuneko Foroaren garrantziaazpimarratu zuen.

Eta bestelakoen artean, hirigintzan, oro har, Udalaren eginbeharra legealdiaren hasieran finkatu behar dela uste du Aralarrek. Kontu praktikoei dagokienez, Egitamu Orokorrean aldaketak egitea proposatu ditu.

Hautagaiei dagokienez, alderdikideekin batera, independenteak sartu dituzte zerrendan, "ahalegindu gara orotariko jendea sartzen", dio Etxeberriak.

> PERTSONA NAGUSIAK

Biarritz bisitatzeko txangoa antolatu du Abaroa elkarteak datorren maiatzaren 29rako

Abaroa elkartetik Iparraldera joateko txangoa antolatu dute. Hain justu ere, Biarritz eta hango Casinoa bisitatzera joango dira maiatzaren 29an. Hori goizez egingo dute. Gero, Oiartzungo Aduriz sagardotegian bazladu egingo dute eta buletan, arratsaldeam Donostian ere gelditzeko asmoa dute

Izena emateko egun bakarra ipini dute: maiatzaren 22an, 10:30ean. Autobuserako txartelak, berriz, maiatzaren 28an banatuko dituzte. Guztira, bi autobus ipiniko dituzte Abaroakoek. Hori horrela, lekuren bat sobratzen bada, herriko gainerako erretiratu elkarteetako kideek aprobetxa ditzakete.

HEZKUNTZA > ESKOLA PUBLIKOA

Udal laguntza eskatu dute herri eskolako gabeziei aurre egiteko

Udalak erantzun du haurreskola egokituko dutela; gainerakorako, baina, Jaurlaritzarekin egon beharko dutela gaineratu du

UBANE MADERA > ARRASATE

Hiru idatzi aurkeztu dizkiote Udalari Arrasate Herri Eskolaren egoera dela-eta. Bedoñabe Haurreskolak eta herri eskolak (tartean guraso elkarteak) aurkeztu dituzte, eskolak dituen gabezien aurrean, konponbideak eskatzen.

Bedoñabe Haurreskolari dagokionez, honako gabeziak dituela jakinarazi diote Udalari: ez dute jangelarik, ume kotxeak lagatzeko ez dute lekurik, eta bestelakoen artean, gelak eta sukaldea oso txikiak dira.

Oro har, Bedoñaben espazio falta dagoela jakinarazi diote Udalari eta "ikasturte honetan 13 haur gelditu direla kanpoan plazarik gabe". Hori horrela, besteak beste, proposatu dute irtenbide moduan Musakolan (San Antolinen) haurreskola berri bat egitea.

Arrasate Herri Eskolari dagokionez, honako gabeziak salatu dituzte, epe motzera begira konpondu beharrekoak: Bedoñaben, besteak beste, igogailua ipintzea eta Erguinen pasilloetako eta patioko komunak egokitzea.

Epe luzera begira, berriz, Musakolan leihoak eta ateak aldatu eta komun berria egin behar direla diote eta besteak beste, Erguinen jangela handitu egin behar dela.

KORPORAZIO BERRIAK EGIN BEHAR

Udalak erantzun du, batetik, dagoeneko eman dituela urratsak Bedoñaben zenbait egokitzapen lan egiteko. Eskolaren instalazioak handitzeko eskaeraren aurrean, berriz, hori "Haurreskolak Partzuergoa eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin" aztertu beharko duela esan du. Eta zera gaineratu du: Udala ezin dela konprometitu Bedoñabe eraikina handitzen", besteak beste, hori egiteko, Jaurlaritzaren oniritzia behar duelako. Eta Udalak dio, baita ere, hori ekainean eratuko den korporazio berriak aztertu beharko duela.

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

EB-Zutik koalizioaren salaketak gezurtatu egin ditu EAJk

Udalak egindako kudeaketa zalantzan jarri dutenei "faltsukeriaz" jokatzea leporatu die Arrasateko Uri Buru Batzarrak

BATZARRA Argazkian, Uri Buru Batzarreko kideak, prentsaurrekoan. A. BARRUSO

U.M. > ARRASATE

Arrasateko Uri Buru Batzarrak gezurtatu egin zituen EB-Zutik koalizioak etxez etxe banatutako diptikoan EAJren udal jardunaren kontra egindako salaketak.

Isidor Solupe buruak adierazi zuen etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, Udalak irtenbide "errelak eta arrazoizkoak" eskaini dituela, ganbara eta erakundeekin elkarlanean. Adibide moduan gogorarazi zuen Zerrajeran 200 etxebizitza eraikitzeko hitzarmena egin zuela Jaurlaritzarekin. Halaber, gogorarazi zuen zortzi urteren ondoren, beste 108 gauzatzeko dituela Jaurlaritzak. Gogora ekarri zituen, baita ere, La Caixari esleitutako 148 etxebizitzak eta esleitzeko dauden beste 216ak. Amaitzeko, EAJko Uri Buru Batzarreko buruak mahai gainean ipini zituen Gelma eta Azeriko (Polmetasa) proiektuak. Esan zuen haiek gainditu egiten dituztela legeak finkatutako etxebizitza sozial kopurua.

Bestalde, eguaztenean bertan erantzun zion EAJri EB-Zutik koalizioak. Esan zuen "EAJk ez duela zuzentzeko asmorik".

GOIENA
aseguru
artekaritza

ZUREKIN. ZURETZAT

Zigarrolako jaietan ondo pasau!

ARRASATE: Antso Abarka 6 Tel.: 943 79 59 81 Faxa: 943 79 39 18 • BERGARA: Zurradero 2 Tel.: 943 76 97 65 Faxa: 943 76 40 37
e-posta. goiena@goienaaseguruak.com • www.goienaaseguruak.com

AZPIEGITURAK > MOJATEGIKO INSTALAZIOAK

Orotariko kirolak egiteko instalazioak eraiki dituzte Mojategin

Oraingo astean politikariak eta obretako arduradunak izan dira obrak ikusten; ekainean bukatuko dituzte, aurreikuspenak betez gero

GOIENKARIA > ARRASATE

Mojategin eraikitzen dabiltzan punta-puntako kirolgunea bisitatzen izan ziren herenegun, eguaztena, zenbait udal ordezkari eta obretako arduradun. Jakinarazi zuten, aurreikuspenak betez gero, ekainaren amaierarako bukatuko dituztela Arrasateko kirol instalazio berriak. Hori horrela, udatik aurrera orotariko kirolak praktikatu ahal izango dira han.

FUTBOL ETA ERRUGBI ZELAIAK

Izan ere, kiroldegiko oraingo eraikina bere horretan utzi duten arren, gainerako guztia berria egin dute, oro har, hiru gunetan banatuta.

Lehenengo gunean egokitu dute skate egiteko edo patinetean ibiltzeko espazioa, Gipuzkoan egin den osatuenetako bat. Haren ondoan, patinetan ibiltzeko beste gune lau bat egokitu dute, eta inguruan, auto telegidatuekin ibiltzeko espazioa. Hasierako gune horren ondoan, berriz, tenisean eta paddlean ibiltzeko estalitako kantxak eraiki dituzte, bina pista kirol bakoitzeko.

Beste gune batean, errugbian jolasteko zelaia eraiki dute. Hura inguratzen atletismo pista ipini dute, korrikalarien abiadura elektronikoki neurtuko duen dorre batekin.

Bukatzeko, errugbi zelaiaren ondoan, futbol zelaia egokitu dute. Gainera, bi zelaiotako eta atletismoko pistetako kirolen ikusleendako harmaila koloretsuak eraiki dituzte.

PISTA Atletismoko pistak errugbi zelaia inguratzen du. X.U.

FUTBOL ZELAIA Harmaila koloretsuetatik ikus daiteke Mojategiko futbol zelai berria. XABIER URTZELAI

TENIS Paddle eta tenis pista bina eraiki dituzte, lehenengo gunetik gertu. X.U.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KONTRATAK
IRVROK S. L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

AISIALDIA > TXATXILIPURDIREN UDALEKUAK

Txatxilipurdiren udalekuetarako izenematea zabalik dago

Uztailaren 2tik 20ra bitartean 2 eta 10 urte bitarteko umeendako udalekuak egingo dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Dagoeneko zabalik dago Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuetarako izenematea. Interesatuek Txatxilipurdi elkarteak Pablo Urangan duen bulegora jo edo 943 79 54 46 telefonora deitu beharko dute. Horretarako azkeneko eguna maiatzaren 21a izango da. Udaleku horiek 2 eta 10 urte bitartekoei zuzenduta egongo dira, eta uztailaren 2tik 20ra bitartean egingo dituzte Arrasaten bertan.

250 BAT UMEREN BUELTAN

Txatxilipurdiko arduradunek jakinarazi digutenez, azken sasoian 250 bat ume ibili dira urtero. Aisialdiko elkartekoek aurten ere antzeko kopuruekin lan egingo dutela uste dute.

Udalekuetako ekintza gehienak herrian bertan egingo dituzten arren, irteerak ere izango dira: hain zuzen ere, La Lezera joko dute, natura parkean ibiltzeko; Getariako hondartzara eta Arrasateko igerilekuetara ere joango dira; eta Berrizko aterpetxean ere egonaldia egingo dute.

Horiez gain, azkeneko egunean festa erraldoia egingo dute goiz partean; eta San Fermin egunean entzierroa egingo dute, urteroko ohiturari jarraituta.

GAZTEENDAKO ESKAINTZA

Bestalde, Txatxilipurdik jakinarazi digu 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako udaleku itxien eskaintza ere badutela. Horiek ere uztailean egingo dituzte.

9 eta 12 urte bitartekoek Etxarri Aranatzen egonaldia egingo dute; 12 eta 14 urte bitartekoak, berriz, Oriora joango dira; eta nagusienek bi aukera izango dituzte: Saturrarango kanpinera joatea; edo Bilboko Kukutza gaztetxea ezagutzea.

OSO ARRAKASTATSUA Urtero ume askok esku hartzen du Txatxilipurdik antolatzen dituen udalekuetan. GOIENKARIA

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

BURUHANDIAK Gaur, egubakoitza buruhaundiak Musakolan. GOIENKARIA

JAIAK > MUSAKOLAKO JAIAK

Egubakoitzean hasiko dituzte San Isidro jaiak

Erretiratuak jai giroan dabiltzan arren, gaur, egubakoitza, hasiko da egitarau nagusia

I.B.> ARRASATE

Musakolako biztanleak oso harro daude Mojategiko kirolgunea jarri dutelako. Hori horrela, jaien gaineko egitarauaren azalean Mojategiren argazkia jarri dute.

Martitzenetik eguenera bitartean erretiratuek mahai jokoen txapelketak egin dituzte. Gaur, egubakoitza, berriz, umeen danborrada, umeendako tailerrak, buruhandiak, dantzaldia eta erretiratuen afaria egingo dituzte. Horrez gain, sagardo-txosna jarriko du Ointxe saskibaloi taldeak.

Zapatuan eta domekan, berriz, puzgarriak, euskal dantzak, sagardotegi gunea, rock kontzertuak, gimnasia erritmikoko erakustaldia, Aukeako sarien banaketa eta beste izango dituzte.

LEHIAKETA > SAN JUANETAKO IRUDIA

San Juanetako irudia aukeratzeko lehiaketa

Maiatzaren 25a izango da lanak aurkezteko azkeneko eguna

I.B.> ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak San Juan jaietarako irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du.

Lehiaketan edozeinek esku hartu ahal izango du, baina egileek kontuan hartu beharko dute aukeratutako irudia jaietako egitarauaren azalean erabiliko dutela. Hala, 28 x 21 zentimetroko neurria izango du erabiliko duten irudiak. Bestalde, teknika librea izango da; eta halabeharrez honako testua izan beharko du: *2007 San Juan Jaiak Arrasate*.

MAIATZAREN 25A AURRETIK

Irabazleak 750 euroko saria jasoko du (kopuru horri PFEZen atxikipena ezarriko zaio); eta Udalak egokia baderitzo, aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo du.

Lanak maiatzaren 25a aurretik aurkeztu beharko dira Biztanleen Arreta Zerbitzuan.

JAIAK San Juanetako egitaraua gertatzen hasi da Udala. GOIENKARIA

ZIGARROLAKO JAIAK 2007

ARRASATE

Maiatzak 11

11:30 HAUR DANBORRADA
17:00 TXOKOLATEA eta TAILERRAK auzoko haurrentzat Gazte Txokoan.
18:00 PINTXO DASTATZEA auzoko herri eskolan.
19:00 ETXAFUEGOAK, BOLOA eta BURUHANDIAK jaiei hasiera emateko.
19:30 ERRETIRATUENDAKO AFARI-JAIA Al-Andalus kultura elkartean.
22:00 San Antolin plazan KAIXO taldearekin DANTZALDIA.

Arratsaldetik gauera, San Isidro plazan, SAGARDO TXOSNA

Maiatzak 12

10:00 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK.
11:00 Haurrentzako PUZGARRIAK eta KART autoak auzoko herri eskolan.
11:00 PATATA TORTILLA LEHIAKETA herri eskolan.
11:30 KALEJIRA eta txikiteoa LAGUNAK fanfarrearekin.
JAIEN HASIERA, txotx ofizialarekin, sagardo gunean.
14:00 GAZTEENDAKO BAZKARIA.
16:30–18:00 PUZGARRIAK ETA KART autoak herri eskolan.
18:00 PAILAZOAK herri eskolaren inguruan.
18:00 EUSKAL DANTZAK eta KALEJIRA trikitixa eskolako partaideekin.
18:30 Arrasateko eta Barañaingo musika eskoletako txikien KONTZERTUA.
19:30 BURUHANDIAK.
22:00 San Antolin plazan KAIXO taldearekin DANTZALDIA.

Maiatzak 13

10:00 ETXAFUEGOAK eta BURUHANDIAK.
11:30 MOTOZERRAZ EGINDAKO IRUDIEN ERAKUSKETA herri eskolan.
11.30 Umeentzako ASTO JAIA herri eskolaren inguruan.
12:00 Musakolako kiroldegian DRAGOI GIMNASIA ERRITMIKOA taldearen ERAKUSTALDIA.
12:00 KALEJIRA eta txikiteoa LAGUNAK fanfarrearekin.
13:00 AUKEA 2006 SARI BANAKETA.
13:00 DANTZA SUELTO SAIOA sagardotegi gunean.
17:00-19:00 UMEENTZAKO JAIA Gorritiren animaliekin herri eskolan.
18:00-20:00 KALEJIRA LAGUNAK fanfarrearekin.
19:00 BURUHANDIAK.
21:00 ETXAFUEGO jaurtiketa eta jaien amaiera.

Maiatzak 15 SAN ISIDRO EGUNA

11:00 MEZA nagusia San Isidro elizan. Ondoren, auzoko baserritarrek bazkaria izango dute.

Gaindegi jatetxea • Musakola elektrizitatea • Tourline Express mensajeria • Musakola estankoa
Ziorla taberna • Berogi okindegia • Azpilikueta haratega • La Estrella taberna • Txinato taberna • Iosu taberna
Jey Juliwer taberna • Basilio taberna • Beberly taberna • Meneta taberna • Goi Solutions
Abian fisioterapia zentroa • Arrasate elektrizitatea • AGR Erreformak SL • Argi-Plastik SL • Bereya elektrizitatea
Hiper Eroski kafetegia • Virginia ile apaindegia • Imanol iturgintza • Iluna taberna

ONDO PASATU JAIETAN!

> SARI BANAKETAK

Domeka eguerdian banatuko dituzte, Aukea Sariak

AUKEAk dagoeneko erabaki du zeintzuk diren aurtengo saridubak. Josu Juan Llodiorendako eta Iban Silbarrendako izango da kirolari onenaren saria, iaz Gasherbrum II mendira egindako espedizioagatik. Talde onenaren saria, berriz, Arrasate Eskubaloi Taldeak hartuko du, klubeko hainbat taldek lortutako emaitza onengatik.

Eta, Juanito Arriaranendako izango da aipamen berezia, horrenbeste urtetan entrenatzaile moduan egindako lanagatik.

> ATLETISMOA

Urrezko lau domina ekarri dituzte Anoetatik

Arrasateko atletak Anoetan izan dira Gipuzkoako Txapelketan. Eta, egindako lorpenen artean, urrezko lau domina azpimarratuko ditugu. Maria Jose Gil azkarrena izan zen 1.500 metrotan (6:24); Lander Errastik ere urrea erdietsi zuen luzera jauzian (5,94m). Eta pertika jauzian, Lide Pagaldai eta Lore Mar izan ziren onenak.

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA

EBAra sailkatzeko aukerekin jokatuko du Mugarri Alkesak azkena

Denboraldiko azken partidua jokatuko du Mugarri Alkesak bihar; Horrekin batera, klubak hainbat ekitaldi antolatu ditu Musakolako jaietarako

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasateko talde nagusi Mugarri Alkesak azken jardunaldia jokatuko du bihar arratsaldean Bilbon, Santutxuko Ocaso Berrio Otxoa taldearen kontra (19:00). Hala, Zurututzaren mutilek azken unera arte izango dute EBAra sailkatzeko aukera, nahiz eta zail duten –Baskoniak galdu egin beharko luke azkenaurreko postuan dagoen Tabirakoren kantxan–. Helburu hori lortzen ez badute ere, arrasatearrek zapore gozoarekin esango diote agur denboraldiari, aurten ere txapelketa oso txukuna egin dute-eta.

AZKENA Santutxuko taldearen kontra jokatuko dute Ligako azken partidua. J.A

MUSAKOLAKO JAIETAN

Ointxe Saskibaloi Taldeak Zigorrolako jaiak girotzen lagunduko du asteburuan, horretarako txosna jarriko dute eta hainbat ekitaldi prestatu. Helburua datorren denboraldiari aurre egiteko dirua irabaztea da, eta bide batez, taldea herritarrengana gerturatzea. Zapatuan, txotx eginez eta pintxoak banatuz hasiko dute eguna (11:30). Trikitilariak eta dantzariak egongo dira arratsaldez, eta rock kontzertua antolatu dute gauerako: Arrasateko Five Twisters eta Portugaleteko A Morir.

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Lasagabaster-Betrayer	3-4
McAwen Dauen-Man.Pippol	9-2
Cicatrus-Billy & The Cowboys	5-2
HLB 108-Iriztu	2-9
Abokajarro-Dublin Irish Pub	2-3
Omu Dribling-Equs	4-2
AT Celaya-Iturriotz Taberna	2-1
Cipris-Saukelu Abian	3-4
Iluntz-THC	5-7

SAILKAPENA

		P	J
1.	Saukelu Abian	44	17
2.	Omu Dribling	43	17
3.	AT Celaya	41	17
4.	Betrayer	32	17
5.	Cipris	30	17
6.	Iluntz	30	17
7.	Lasagabaster	29	17
8.	Iriztu Taberna	28	17
9.	HLB 108	27	17
10.	Abokajarro	26	17
11.	McAwen Dauen	20	17
12.	Man.Pippol	20	17
13.	Iturriotz Taberna	16	17
14.	Dublin Irish Pub	15	17
15.	Cicatrus	12	17
16.	Billy & The Cowboys	11	17
17.	THC	11	17
18.	Equs	9	17

Bihar, Kopako finala jokoan

Bihar, zapatua, 18:00etan jokatuko dute Driblingek eta Iluntzek Kopako finala. Asteburuko partidu bakarra izango da. Horrekin batera, dagoeneko badakigu Ligan ze zortzi taldek egingo duten aurrera. Hala, Saukelu Abian izan da ligaxkako txapelduna.

Kanpotarrak Arrasaten

Aido Doyle > Tabernaria
Arrasaten bizi den dublindarra

"Tabernariarena da lanbiderik onena jendea ezagutzeko"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Duela urtebete iritsi zen Aido Doyle irlandarra Arrasatera. Harrez geroztik ezaguna egin da herrian. Lanbideak lagun izan du horretan. Ederra tabernan egiten du lan 35 urteko dublindar horrek.

Ibarrera iritsi aurretik, Iruñean izan zen bizitzen bost urtez. Hala ere, Debagoienera sarri etortzen zen, neskalagunak Eskoriatzan egiten duelako lan. Maritxu Kajoi egunean behin baino gehiagotan egona zen. Nafarroako hiriburuaz "nekatu" zenean, Arrasatera etorri zen. "Betidanik gustatu zaidan herria da. Hiria baino lasaiagoa da", aipatu du Doylek.

Ondo moldatzen da. Jende asko ezagutu du eta gustura dago. Ederra tabernan egiten du lan. Horren harira, tabernaria izateak ate asko zabaltzen dituela azpimarratu du. "Ez baduzu inor ezagutzen, lanbiderik onena da, asko laguntzen duelako jendea ezagutzerako orduan", dio.

"Betidanik gustatu zaidan herria da Arrasate. Lehen Iruñean bizi izan nintzen eta hura baino lasaiagoa da"


Irudian, Aido Doyle.

Arrasatetik gehien gustatzen zaiona jendea da. "Agian erantzun tontoa izan daiteke, baina hala da", aitortu du. Bizkor egin ditu lagunak. Futbito talde batean aritzen da eta Osasuna ikustera joan zen Frantziara.

ARRASATEKO JENDEA

Dublin eta Euskal Herriaren artean alde handia dagoela dio, "etxebizitzaren arazoan izan ezik". Jaioterria "estresagarri eta zorrotzagoa" dela azaldu du. Eta ez du arazorik izan bizimodu berrira ohitzeko, hala nola, afaltzeko ordua atzeratzeko. Tea botatzen du faltan. Bestalde, hemengo jaki eta ardoak hangoak baino hobeagoak direla adierazten du.

Euskararekin "poliki-poliki" doa. Hizkuntza ikastea gustatuko litzaiokeela dio, baina "zaila" dela onartu du. Liverpool futbol taldearen jarraitzaile sutsua da Doyle. Reala ere gustuko du eta ez du uste jaitsiko denik.

txutxu-mutxua

Larraitz Kortabarriak poker-txapelketa irabazi du eta 4.000 euro poltsikoratu ditu

Joan zen maiatzaren 4an poker-txapelketa jokatu zen, Gironako Peralada gazteluan. Bederatzi ordu luze iraun zuen horrek. 22:00etan hasi eta 07:00ak arte luzatu zen. Larraitz Kortabarria arrasatearrak han parte hartu zuen, eta baita irabazi egin ere. Egun batzuk pasatu dira ordutik hona baina oraindik "harrituta" jarraitzen duela azaldu du, lehena geratu izan delako. Pokerrean jolasten denbora gutxi daramala eta "probatzeagatik" joan zela Gironara gaineratu du arrasatearrak. Bikain aritu zen eta 4.000 euroko saria poltsikoratu zuen. Motorra erosteko asmoa du eta zerbait geratzen bada, uda parterako utziko du, unibertsitateko klaseak amaitu ostean, oporretan gozatzeko.

GOIENKARIA

bere ustez

Oihan Zubizarreta

Gerezi gorrien garaia

Holaxe ikusten ditut gauzak askatzen ari den bataila politikoan. Mutil koskor bat dago gerezi arbola baten gainera igota. Gereziak aukeratzen dabil, hau bai, beste hau ez, horiek bai... tripako minak egin arte ari da jan eta jan, goseti.

Laster etorriko zaio beherakoa! Gerezi batzuk usteldu-ta jaio dira, beste asko usteltzear daude eta asko ere laster ustelduko dira. Ez dira inoiz zuhaitzetik askatuko, zuhaitzaren itzalera bizi dira.

"Demokraziaren zuhaitza eraikitzeko gerezi gorriak behar dira, usteldurikoak iraganean utzita"

Mutil koskorrak ez ditu horiek hartu.

Beste gerezi batzuk, ordea, aspaldidanik daude adarretan zintzilik, gerra garaitik. Agian ez zuten zuhaitz horretan jaio nahi, ez zieten galdetu ere egin. Baina han zeuden gereziak, gorri-gorri.

Ez ziruditen zuhaitz horretakoak, ez ziren han usteltzeko jaio, inoiz lurrera jauzi egin eta kimu berriak emateko baizik. Gure herriko lurretan sustraiak bota eta gure herriari askatasunaren zuhaitza emateko jaio ziren.

Nik holaxe ikusten ditut gauzak. Demokraziaren zuhaitza eraikitzeko gerezi gorriak behar dira, usteldurikoak iraganean utzita. Gerezi gorrien garaia badator, gorri-gorriena.

Garagardo ona, giro hobea
TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

PAZKOAK 07 > 15 EGUN BARRU HASIKO DIRA JAIAK

Salgai daude koadrilen eguneko herri bazkarirako txartelak

Aurten 400 txartel atera dituzte eta Kortazar eta Pol-Pol tabernetan daude salgai 10 eurotan

148.000 euro da jaien aurrekontua eta skate festa eta seminarioko zezen-plaza dira nobedadeak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Maiatzaren 25ean hasi, 15 egun barru, eta 29an bukatuko dira heriko jaiak. Kultura Sailak prest du aurtengo Pazkoetako egitaraua. 6.000 ale banatuko dituzte etxez etxe datorren astean.

SKATE FESTA LABEGARAIETAN

Aurtengo Mendekoste jaiek 148.000 euroko aurrekontua dute eta Labegaraietan egingo duten skate festa da egitarauan agertzen den nobedadeetako bat.

Jaietako domekan egingo dute festa hori. 11:00etatik 14:00etara skate librea egingo dute eta arratsaldean, txapelketa. Eguerdiko bazkaria Giokelakoen laguntzarekin prestatutako parrillada izango da, Labegaraietan bertan. Txapelketako sari banaketaren ostean, bi musika kontzertu ere egongo dira.

Bestalde, sokamuturrari dagokionean ere nobedade bat dago: aurten ez da sokamuturrarik egongo. Errege Seminarioan zezen-plaza jarriko dute aurten eta hantxe egingo dituzten zezen ikuskizun guztiak. Zapatutik martitzena bitartean, biak barne, bigantxak egongo dira zezenplaza horretan 09:00etan. Domeka iluntzean, Bergarako errekortadoreek euren ikuskizuna eskainiko dute eta astelehen eta martitzen goizetan ere errekortadorea nola izan erakutsiko diete 16 urtetik gorakoei. Gaztetxoendako zezentxoak eta poniak ere egongo dira.

KOADRILEN EGUNA

Koadrilen eguna astelehena izango da aurten ere eta dagoeneko salgai daude herri bazkarirako txartelak. Kortazar eta Pol-Pol tabernetan daude salgai, 10 euroren truke. Bazkariak aurreko urtetan izan duen arrakasta ikusita, txartel gehiago atera dituzte: aurten 400 txartel jarri dituzte salgai, iaz baino 50 gehiago. Bazkaria herriko plazan izango da aurten ere eta hauxe da menua: pasta entsalada, oilasko errea goarnizioarekin eta hotopilezko etxeko tarta.

Aurten ere antolatu dituzte koadrilen arteko jokoak, baina bazkal ostean egingo dituzte, ez goizean, orain arte bezala. 17:00etan hasiko dira jokoak eta ondoren, Mr. eta Ms. Jator lehiaketa egingo dute plazan bertan. Sariak, Javier Gonzalez gazteak emango ditu, Bergarako Mister Bizkaia 2007k.

TXOSNAK, BIDEBERRIN ETA PLAZAN

Aurten ere txosna bat egongo da plazan eta beste bi Bideberrin. Aurten gainera, ogitartekoez gain janari gehiago ere salduko dute Bideberriko hirugarren txosna.

Izan ere txosna batzordeak ere prest du jaietako bere egitaraua. Bitorianatxoren jaitsieraren ostean kalejira egingo dute eta orduantxe zabalduko dituzte txosnak; egubakoitzerako, gainera, presoen aldeko afaria antolatu dute. Bestalde, kontzertuak ere ez dira faltako Bideberrin.

Guzti horretaz gain beste hainbat ekitaldi ere egongo dira aurtengo Pazkoetan, adibidez: motokross txapelketa, trial erakusketa, elkarteen arteko bakailao lehiaketa, erraldoien kalejira, musika bandaren kontzertua, umeendako txotxongiloak eta dantzaldiak.

BAZKARIA Aurreko urtetan bezala, herriko plazan egingo dute aurten ere koadrilen eguneko herri bazkaria. O.E.

HAUTESKUNDEAK 07

Botoa postaz emateko aukera dago

Alderdien egoitzetan egin daiteke hori hilaren 17a baino lehen

O.E. > BERGARA

Maiatzaren 27ko hauteskundeetako botoa postaz eman nahi duenak oraindik badu hori egiteko aukera. Horretarako, alderdiaren egoitzara joan behar dira maiatzaren 17a baino lehen, egun horretan amaitzen da-eta botoa postaz emateko epea.

Alderdi batzuk euren bulegoak zabalduko dituzte nahi duenak bere botoa postaz emateko. EAJk, adibidez, Batzokian jarri du horretarako bulegoa. EAk ere aukera emango du Alkartetxean 10:30etik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara, aste barruan. Ezker abertzaleak ere Artatse elkartean zabaldu du bulegoa botoa postaz eman ahal izateko, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik bulego hori.

Hurrengo eguena, hilak 17, da azken eguna botoa postaz emateko.

> ZERGAK

Kontribuzioa ordaintzeko epea zabalduko dute

2007ko kontribuzioa, ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalduko dute datorren martitzenean, hilak 15. Borondatez ordaintzeko azken eguna uztailaren 2a da; epe horretatik kanpo errekargua jarriko diote zergari. Helbideratuta ez dutenek ordainketa egiteko agiria jasoko dute etxean datozen egunetan. Edozein banketxetan edo Udalean ordaindu daiteke.

MIZPILDI OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

AURKEZPENA Lauri Askargorta Bergarako EAko alkategaia eta Iñaki Galdos EAko diputaziorako hautagaia. O.E.

HAUTESKUNDEAK 07 > EUSKO ALKARTASUNA

Herriagatik lana egiteko gogoa du Bergarako EAk

Hirigintza, kirolak eta auzoak kontuan hartuko dituztela esan du Lauri Askargorta alkategaiak

Iñaki Galdosek esan du badela garaia Debagoienak gehiago jasotzeko Gipuzkoatik

OIHANA ELORTZA > BERGARA

"Udala despolitizatzeko asmoz eta herriaren alde lana egiteko gogoarekin" aurkezten dela esan du Lauri Askargortak, EAko alkategaiak, alderdiaren aurkezpenean. Hirigintza, kirola eta auzoak ere, besteak beste, kontuan hartuko dituztela esan du prentsa aurrean. Askargortak Iñaki Galdos, EAko Diputazioko hautagaia, izan du ondoan alderdiaren asmoak aurkezteko. Galdosek esan du hiru ardatz nagusi izango dituela EAk datozen lau urteotan: "lurraldearen oreka, berrikuntza eta jasangarritasuna, ingurumenaren aldeko errespetua eta garapen ekonomikoaren aldeko apustua eginez".

DEBAGOIENA BATUTA

"Bergaran, etxebizitza tasatu gehiago egin nahi ditugu eta alokairuak erraztu, itxita dauden etxeak merkaturatuz. Aparkalekuen arazoa ere konpondu nahi dugu eta Agorrosinen aukerak nola aprobetxatu ere aztertu beharko genituzke guztion artean. Horrez gain, herriko auzoak ere kontuan hartu behar ditugu. Ez dut esperientziarik, baina bai lanerako gogoa", esan zuen Lauri Askargortak. EAko Bergarako zerrendaburuak, aipatu zuen ibarreko udalek elkarrekin egin behar dutela lana, baina bakoitzaren beharrak ahaztu gabe.

Iñaki Galdosek gogoratu du Bergara Debagoiena barruan dagoela eta ibar horrek gehiago eman diola Gipuzkoari, alderantziz baino. "Baina bada garaia Debagoienak gehiago jasotzeko Gipuzkoatik eta horretarako batu egin behar dira ibarreko herriak, hainbat gaitan elkarrekin lana egiteko, adibidez: tranbia, garraio publikoa eta erronka sozialak", esan du Iñaki Galdosek.

JAIALDIA > KONGOKO PROIEKTU BATEN ALDE

Elkartasun jaia egingo du Mariaren Lagundiak 17an

Jam aretoan izango da jaialdia eta Afrikako produktuak, kantuak eta dantzak egongo dira

O.E. > BERGARA

Mariaren Lagundia ikastolak elkartasun jaia egingo du hilaren 17an Jamen, 18:30ean. 2008an ikastetxe bat zabaldu nahi dute Kongoko Errepublika Demokratikoan, eta proiektu horretarako dirua batzea da jaialdiaren helburua: Mobokoli proiektua indartzea.

JAIALDI AFRIKARRA

Jaialdia Jam aretoan egingo dute eta Afrikako produktuen salmenta puntu bat ere egongo da. Horrez gain, "ikasleen bertsoak, kantuak, dantza afrikarrak, antzerkia eta ikastolako irakasle eta langileek egindako ikuskizun bat egongo dira", azaldu du Ana Carpinterok, FISCeko arduradunak. Elkartasun jai horrekin batera, kultur astea ere egingo dute, urte guztian zehar egin duten elkartasun ibilbideari amaiera emanez. "Munduko herrialde ezberdinak aztertu ditugu eta umeen eskubideekin bat datozen baloreak landu ditugu guztietan", dio Ana Aramendik, elkartasun proiektuen zuzendariak.

Maiatzaren 17ko jaialdiaren helburua izango da Kongoko ikastetxea egiteko dirua batzea. "Haur eta Lehen hezkuntzako 1.400 umerendako ikastetxea eraikiko dugu; lursailak erosita daude eta lehen harriak jarrita", argitu du Gotzon Iparragirrek, Mariaren Lagundiko zuzendariak. Helduen sarrerak 3 euro balioko du eta umeenak, euro bat.

JAIA Aramendi, Iparragirre eta Carpintero jaialdiaren berri ematen. O.E.

Uda osoko beltzaran-kolorea erakuts ezazu!

Bost minutuan bakarrik
Oso kolore naturala
%100 naturala (azukre-kanaberarekin egindakoa)

Estetika zentroa
Igaro

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Ion Murgizu Pinturak

Margoketa orokorrean
- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industriala

Zabalotegi 9, 2. esk • **Bergara**
Esozia 24- 2º behea • **Soraluze**
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

JAIAK > 'ERROMERIAK BERGARAN'

Erromerien txanda iritsi da Munibera

Koldo Iparragirre trikitilariaren saioa egongo da gaur Munibe plazan, 19:00etan hasita

EDU MENDIBIL > BERGARA

Erromeriak Bergaran egitarauarekin jarraituz, Koldo Iparragirre trikitilariaren saioa egongo da gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 19:00etan. Iaz bezala, herriko giroa piztea eta, aldi berean, euskal dantzekiko zaletasunari eustea da *Erromeriak Bergaran* egitarauren asmo nagusia. Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien emanaldiarekin hasi zen aurtengo ekitaldia, joan den egubakoitzean.

Antolatzaileek dei egiten diete herritarrei emanaldiotan parte hartzera.

HERRI AFARIA EGUBAKOITZEAN

Hurrengo egubakoitzean, maiatzaren 18an, Bergarako trikitilariekin kalejira izango da 18:30etik 19:30era. Jarraian erromeria izango da Munibe plazan, 20:15ak arte, eta ondoren herri afaria antolatu dute. Txartelak 8 euroren truke daude salgai Kultura Etxean eta Kortazar tabernan.

ERROMERIAK Gaur eta hurrengo egubakoitzean erromeriak izango dira Munibe plazan. GOIENKARIA

Afalostea Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilariek alaituko dute, Munibe plazan bertan.

Jardunek eta Abarka dantza taldeak antolatuta, euskal dantzen ikastaroak izan dira martxotik. Fandangoa, arin-arina eta erromerietako beste dantza batzuk ikasten 40 lagun inguru (adin tarte zabalekoak) aritu dira. Martitzenero izan dituzte eskolak, Aranzadiko gimnasioan eta antolatzaileak pozik dira jasotako erantzunarekin. Gaur eta hurrengo egubakoitzean ikasitakoa erakusteko aukera izango dute ikasleek. Munibe plazan izango dute hitzordua.

JAVIER VICENTE

Udal Banda badabil diskoa grabatzen

Udal Musika Bandak 175. urteurreneko diskoa grabatzeari ekin zion aste bukaeran. Miguel Gonzalez Bastidaren omenez, haren zazpi abesti jasoko ditu diskoak: *Campo de rosas, Mendia eta itxasoa, Lorea, El metrónomo de Maelzel, Ezpata dantza, San Martzial* eta *San Martin*. Zortzigarren abestia Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatutako *1832* pieza izango da. Diskoaren grabaketa oraingo asteburuan amaituko dute eta aurkezpena azaroaren 17an, Santa Zeziliako kontzertuan, egingo dute.

> ERAKUSKETAK

Aitor Sarasketaren margo erakusketa eta Manu Muniategiren azken lana Aroztegin

Aitor Sarasketa eibartarraren margo erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Era berean, Manu Muniategiandikoetxearen *Instrucciones para naúfragos. Soilik itxuraz* liburua jarriko dute ikusgai Barrenkaleko aretoan.

> IKASTAROA

Hankapaloekin ibiltzen ikasteko ikastaroa eta antzerki tailerra maiatzean, doan

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, maiatzean doaneko bi ikastaro izango dira: hankapaloekin ibiltzen ikasteko (zapatuetan 16:00etatik 19:00etara) eta antzerki ikastaroa (martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara). Izenematea eta argibideak Kultura Etxean, 943 77 91 60 telefono zenbakian.

> ERAKUSKETA

Elorrioko Eskulan Margo Taldearen erakusketa Errotalden ikusgai, maiatzaren 19ra are

Elorrioko Eskulan Margo Taldeak (Juanjo Altunaren ikasleek) erakusketa jarri du ikusgai Kultura Etxean, maiatzaren 19ra arte. 27 lagunek hartzen dute parte erakusketan. Aste barruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara dago zabalik.

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono, 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

XXV. ARRASATE-OÑATI lasterketa

jantzi kirola euskaraz!!!

ANTOLATZAILEAK:

Laixan berria ASTORE THE ACTION SPORTSWEAR

Maiatzak 12, larunbata, arratsaldeko 18:30ean - 11 km 700m

IZEN EMATEA, EGUNEAN BERTAN: 9 EURO

Arratsaldeko 17:00ak arte Oñatiko enparantzan eta 18:15 arte Arrasateko Garibai paseale-kuan jarriko diren mahaietan.

Laixankideek: 6 EURO (aurrez eta egunean bertan)

***OHARRA:** ezingo da telefonoz, posta arruntez edo posta elektronikoz aurrez izena eman.

Autobusak: Oñatitik Arrasatera, arratsaldeko 16:45ean (2 buelta) eta sariketaren ondoren buelta bat.

Zerbitzuak: dutxak Oñatiko kiroldegian doan eta materiala jasotzeko furgoneta egongo da lasterketaren aurretik Arrasaten.

Sari banaketa: Oñatiko plazan, iluntzeko 8etatik aurrera.

GAZTETXOENTZAT 4 LASTERKETA, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, Oñatiko plazan:

- Benjaminak (1997-1998 urteetan jaiotakoak) 550 metroko lasterketa. Arratsaldeko 17:15ean
- Alebinak (1995-1996 urtetan jaiotakoak) 1200 metroko lasterketa. Arratsaldeko 17:30ean
- Infantilak (1993-1994 urtetan jaiotakoak) 1800 metroko lasterketa. Arratsaldeko 17:45ean
- Kadeteak (1991-1992 urtetan jaiotakoak) 1800 metroko lasterketa. Arratsaldeko 18:00etan

Sariak: kopak kategoria bakoitzeko lehenengo hirurentzat eta partehartzaile guztien artean zozketak. Gaztetxoen mailan parte hartzen duten guztiek, Berriak antolatutako proben arte-an egingo den zozketan sartuko dira.

Laguntzaileak: Oñatiko Udala, Arrasateko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Atletismo Federakuntza, Aloña Mendiko Atletismo saila, Arrasateko Atletismo saila, Eroski bidaiak, ArgiSound.

ausartu hadi
Bergara aldatzen

Bozkatu aralar

Akordau elekziñuak pazkuetan diela...

Korreoz botatzeko epia hilan 17xan bukatzen da.
Zer egin bihar dan horretarako?
17xa baño lehenago karnetakin korreosera juan eta eskaeria ein.

TENIS > OROTARIKO IRITZIAK DAUDE

Labegaraietako pistan jarritako karpak erabiltzaile batzuen haserrea eragin du

Beste batzuek diote"lehen baino hobeto" dagoela, urte osoan joka daitekeelako

Kirol teknikariak hobekuntzak iragarri eta aisialdia indartu gura dela esan du

MIRIAN BITERI > BERGARA

Labegaraietako kiroldegiko tenis pistan jarri duten karpak eztabaida piztu du erabiltzaileen artean. Hiru aste pasa dira han jarri zenetik, Agorrosingo kanpoko igerilekuetan hiru urte pasatxoz egon ostean, eta denetarik entzun izan da ordutik hona.

KARPA POLEMIKOA Karpak duen altuerarekin, neurriekin, inguruko pilare eta argiarekin ez daude gustura batzuk. M.B.

ALTUERA

Erabiltzaile batzuek diote "lehen baino hobeto" dagoela, urte osoan zehar tenisean jokatzeko aukera eskaintzen duelako, baita euria egiten badu ere. Hala ere, baxuegi jarri izan dela ere esan dute.

Beste batzuek, ordea, estalkiak traba besterik ez duela egiten eta ken dezatela eskatu dute. Kexa bi aurkeztu dira Udalean. Karparen altuera eta neurriekin, pista inguruko pilare eta argiztapenarekin ez daude ados.

Kirol teknikari Unai Asurmendik onartu egin du karparen neurriek ez dutela balio txapelketak jokatzeko. 25 metro luze eta 15 zabal ditu. Baina, "nahiago izan dugu aisialdi ikuspuntua indartu, lehiaketena barik". Jarri zenetik erabiltzeko eskaerak handitu direla adierazi du.

Aurkeztutako kexak aztertuko direla esan du, baita hobekuntzak egingo direla ere. Inguruko pilareak berehala kendu eta argi gehiago jarriko dela azaldu du.

Leongo mendiak ezagutu ditu Pol Pol beteranoen taldeak

Joan zen maiatzaren 1ean, Pol Pol beteranoen taldeak Leonera egin zuen irteera. Guztira, 53 mendizale izan ziren Leongo mendiak, Somiedo eta Babia bisitatzen.

Giro "txukuna eta freskoa" izan zutela esan dute. Irudia bidali dute, Brañas de Sousan ateratakoa. Maiatzaren 20an Nafarroara joango dira, Lizarraga eta Argiñano arteko zeharkaldia egitera.

JUAN MARI SASIGAIN

> PILOTA

Gutierrezek eta Renobalesek 21-22 galdu zuten

Igor Gutierrez bergararrak ezin izan zuen Bergara Hiria txapelketaren final erdietara pasa. Olaetxea eta Bengoetxearen kontra 21-22 galdu zuen martitzenean, Renobales ondoan zuela. Datorren astean, nagusien partidua jokatuko da lehenengo. Ander Muguruza lehiatuko da, 19:30ean.

> ESKUBALOIA

Nagusiek partidu garrantzitsua dute Gazteluetaren kontra

Aste honetan bi partidu jokatuko dituzte eskubaloian. Lehena zapatu eguerdian jokatuko dute infantil mailako Bergara-Pulpoko neskek.Nagusiek igoera faseko partidua du 18:30ean, Leioako Gazteluetaren kontra. Lau partidu falta dira eta denak irabazi behar ditu igo ahal izateko.

> UDA KANPAINA

Kirol jardueretarako izena eman daiteke hilaren 21etik aurrera

Uda kanpainako kirol jardueretarako izena emateko epea maiatzaren 21ean zabalduko da eta ekainaren 3a arte luzatuko da. Ekintza ugari prestatu dira.

Zozketa bidezko sistema erabiliko da aurten. Horretarako, tramitazio guztiak Agorrosinen egin beharko dira.

> TXIRRINDULARITZA

Kostaldera abiatuko dira zikloturistak domeka honetan

Zikloturistek irteera egiten dute astebururo. Domeka honetan, ehun kilometroko ibilbidea egingo dute. 08:30ean irtengo dira Bergaratik.

Trabakuarantz abiatuko dira eta handik Markinara. Milloi, Lekeitio, Ondarru eta Debatik pasa ostean, Bergarara itzuliko dira.

BERGARAKO HERRIKOLOREAK BOZKATU
EAE ANV

PUBLIZITATE GEHIGARRIA
2007ko maiatzaren 11

■ ALBISTEAK

Erdi Aroko azokak sustraiak bota ditu kultura egitarauan

Zalantzarik gabe herriko kultura ekitaldietan finkatzea lortu du Arrasateko Erdi Aroko azokak, "sustraitzea" udal ordezkarien esanetan. Aurten laugarren aldiz antolatuko dute eta aurreko urteetan izandako bilakaera positiboarekin jarraitu gura dute antolatzaileek. Arrasatearrez gain, inguruko herrietako lagun ugari hurbiltzen da Erdi Aroko azokara. Udalaren helburua da herritar zein bisitariak azokako giroan murgiltzea eta partehartzea, eta iaz, behintzat, halaxe izan zen.

GOIENKARIA

GOIENKARIA

Sorginkeriez, mitoez eta liluratuta uzteko asmoa daukaten ikuskizunez beteko dira alde zaharreko kaleak; baita usain eta kolore bereziez ere. Usain eta koloreei dagokienez, esateko handia izango dute erdiguneko kaleetan barrena egongo diren salmenta postu eta artisauek. Ukendu naturalak, jatekoak... era guztietakoak aurkitu ahal izango ditu bisitariak azokan.

GOIENKARIA

GOIENKARIA

Umeek erabat gozatuko dute azokan. Eurendako bereziki prestatutako gunea eta ekitaldiak egongo dira asteburu guztian barrena. Txalupan ibiltzeko aukera izango dute gaztetxoenek, eta horrekin batera, animaliak ikusi eta ipuinak entzutekoa ere bai.

Erdi Aroko azoka izanik, ezin falta garai hartako musika. Garaiko jantziak soinean dituztela orduko doinuak entzungo dira aste bukaera osoan. Orkestra gizona ere izango da.

Kale antzerkia izango da azokari kolorea emango dion beste ikuskizunetako bat. *Aztarnariak eta alkimistak*, *David ankerra*, *Iratxoak*, *Alkimistak* eta *Suaren zaldunak* ikusi ahal izango dira.

NAZIOARTEKO ZAZPINAKO ERRUGBI TXAPELKETA

Ekainaren 2an, arratsaldeko 15:00etan

Ekainaren 1 eta 2an. Arratsaldeko 19:00etatik goizaldera arte. Udaletxeko enparantzan. Alemaniar edari eta errekien dastatzea

GARAGARDOAREN BEDERATZIGARREN FESTA HANDIA



■ EGITARAUA

Kale antzerki eta ikuskizunak egitarauko protagonista

Zapatua, 19

11:00-14:00 eta 17:00-21:00 Txalupa eta baserriko lanabesen ERAKUSKETA, Umeen txokoan

11:30 *Aztarnariak eta alkimistak* KALE ANTZERKIA

11:30 DOKE antzerki taldeak *Ezkontza* antzezlana egingo du egun osoan barrena herriko kaleetan

12:00 Erdi Aroko MUSIKA

12:15 MUSIKA EMANALDIA kalez kale (orkestra gizona)

12:30 KALE ANTZERKIA

12:45 IPUIN KONTAKETA, euskaraz

13:00 Erdi Aroko MUSIKA

18:00 *David Ankerra* KALE ANTZERKIA

18:15 MUSIKA EMANALDIA kalez kale (orkestra gizona)

18:30 Erdi Aroko MUSIKA

18:45 IPUIN kontaketa, euskaraz

19:00 *Iratxoak* KALE ANTZERKIA

19:15 MUSIKA EMANALDIA kalez kale (orkestra gizona)

SUGE-SORGINTZAILEA

19:30 Erdi Aroko MUSIKA

19:45 IPUIN KONTAKETA, euskaraz

20:00 *Alkimistak* KALE ANTZERKIA

20:30 MUSIKA EMANALDIA, kalez kale (orkestra gizona)

21:00 Erdi Aroko MUSIKA

21:30 *Suaren zaldunak* KALE ANTZERKIA

Domeka, 20

11:00-14:00 eta 17:00-21:00 Txalupa eta baserriko lanabesen ERAKUSKETA, Umeen txokoan

11:30 *Aztarnariak eta alkimistak* KALE ANTZERKIA

12:00 Erdi Aroko MUSIKA

12:15 MUSIKA EMANALDIA kalez kale (orkestra gizona)

12:30 *David ankerra* KALE ANTZERKIA

12:45 IPUIN KONTAKETA, euskaraz

13:00 Erdi Aroko MUSIKA

ARTISAUEN SALMENTA POSTUAK

13:30 IPUIN KONTAKETA, euskaraz

13:45 Erdi Aroko MUSIKA

18:00 *David ankerra* KALE ANTZERKIA

18:15 MUSIKA EMANALDIA kalez kale (orkestra gizona)

18:45 IPUIN KONTAKETA, euskaraz

19:00 *Iratxoak* KALE ANTZERKIA

19:15 MUSIKA EMANALDIA kalez kale (orkestra gizona)

19:30 Erdi Aroko MUSIKA

19:45 IPUIN KONTAKETA, euskaraz

20:00 Alkimistak KALE ANTZERKIA

20:30 MUSIKA EMANALDIA kalez kale (orkestra gizona)

21:00 Erdi Aroko MUSIKA

El chico de la última fila antzerkia

Non: Arrasateko Amaia Antzokian
Noiz: Maiatzaren 13an, domekan, 19:30ean

Sarrera salmenta
kutxa
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



DOKE ANTZERKI TALDEA

XVI. mendeko ezkontza antzeztuko du Doke taldeak

MONIKA BELASTEGI

Arrasateko Doke antzerki taldeak hirugarrenez hartuko du parte Erdi Aroko azokan. Aurten, gainera, Joxemari Velez de Mendizabalek eurendako eta azokarako propio prestatutako antzezlan batekin: *Ezkontza*. Taldeko bederatzi lagunek hartuko dute parte Itziar Rekalderen zuzendaritzapean.

Aurreko bi urteetan *Eskuak elkarri* delako obraren zatia antzeztu izan dute Doke taldeko kideek Erdi Aroko ferian. Irudian iazko antzezpenaren unea. GOIENKARIA

Ezkontza. Horixe da Arrasateko Doke antzerki taldeak aurten Erdi Aroko azokan estreinatuko duen antzezlanaren izena. Joxemari Velez de Mendizabalek taldearendako eta azokarako propio prestatutako antzezlana da eta maiatzaren 19an ikusteko aukera izango dute Arrasateko azokara hurbiltzen direnek.

Aurten hirugarrenez hartuko du parte Erdi Aroko ferian Doke taldeak eta halaxe izan behar zuela argi zeukaten, Mariasun Pagoaga taldeko kideetako batek azaldutako moduan: "Ez dugu zalantzarik izan aurten ere parte hartu behar genuela. Azken batean herriko antzerki talde bakarra gara eta euskaraz antzezten duena". Horren aurrean baiezkoa borobila izan zen.

Hala, zein antzezlan egin pentsatzen hasi ziren: "Aurreko bi urteetan antzezlan bera egin dugu –*Eskuak elkarri* lanaren zatia– eta horregatik aurten aldatzea erabaki dugu", azaldu du Mariasun Pagoagak. Eta gehitu du, "Joxemari Velez de Mendizabalek esan zuen berak presatuko zuela bederatzi lagunendako antzezlana eta hortik etorri da hilaren 19an egingo dugun *Ezkontza*".

Mendizabalen testuak ikasi eta entseatzen jardun dute Doke taldeko bederatzi lagunek hainbat denboran, Pagoagak azaldu duen bezala: "Guk testuak ikasi eta gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara, baina kontuan izan behar da gu antzerki talde amateurra garela, eta ondorioz, laguntza behar izaten dugu. Hori horrela, Gasteizetik Itziar Rekalde etorri izan da zuzendari lanak egitera", gehitu du Pagoagak. Horrekin batera, ilusioak eta antzerkirako maitasunak ere asko laguntzen diela nabarmendu du.

Joxemari Velez de Mendizabalek azokarako propio sortu du 'Ezkontza' antzezlana

XVI. MENDEKO EZKONTZA

Erdi Aroko azokan estreinatuko duten antzezlanaren izenak argi dioen bezala ezkontza baten bueltan ibiliko da kontatuko duten istorioa; XVI. mendeko ezkontza baten bueltan, hain justu ere.

Arrasateko bikote gazte bat ezkontzekotan da. Euren gurasoek adostutako ezkontza izango da; sentimenduak ez dira garrantzitsuena ezkontza horretan. Emaztegaiaren familiaren kasuan, bederen, euren alaba familia oneko mutilarekin ezkontzea da helburu garrantzitsuena. Baina bada herrian ezkongaiarekin erabat maiteminduta dagoen beste neska bat, eta... Apaizak ere emango du zeresanik; jan-edana oso gustuko ditu eta mozkortu ere egingo da... Dibertigarria eta entretenigarria izateko elementu guztiak ditu Doke antzerki taldearen *Ezkontza* antzezlanak.

Ezkontza interesatua egingo duen bikote gazte baten istorioa kontatuko dute

HAINBAT EMANALDI

Erdiguneko hainbat gunetan egingo dute emanaldia Doke taldekoek. Goiz eta arratsaldez ibiliko dira: batean, plaza nagusian; hurrengoan Seber Altuben; gero Ferreriasen... bospasei gunetan antzeztuko dute *Ezkontza*.

20-25 minutuko iraupena du eta Mariasun Pagoagak azaldu duen moduan, euren asmoa da ikusleek ondo pasatzea antzezlana ikusten.

Antzezlanak 20-25 minutuko iraupena du eta herriko hainbat gunetan egingo dute

Jonathan Richman-en kontzertua

Non: Arrasateko Amaia Antzokian
Noiz: Maiatzaren 26an, zapatuan, 20:00etan

Sarrera salmenta
kutxa
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

mingainari tiraka

Ana Garmendia eta Unai Markiegi > Kaixo tabernako jabeak

"Ondo moldatzen gara biak lan egiten"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Aste gutxi batzuk daramate Ana Garmendia amak eta Unai Markiegi semeak Kaixo tabernarekin. Gogotsu hasi dira lanean eta orain arte jasotako erantzunarekin pozik daude.

Tabernako izenak sartzera gonbidatzen zaitu. Zergatik jarri diozue izen hori?

Aurretik ere horrela zuen izena eta ez aldatzea erabaki dugu. Izen erakargarria iruditzen zaigu. Gainera, bergararrek horrela ezagutzen zuten aurretik eta nahasmenik ez sortzea inportantea da.

Gogotsu hasi zarete lanean. Ordutegi zabala duzue-eta...

Hala da. 09.30ean zabaltzen dugu eta aspertu arte egoten gara tabernan.

Ordutegi horrekin pintxoak ez dira falta-ko zuenean...

Goiz partean, gosariak ematen ditugu. Aurretik deituz gero, bazkariak ere jartzen ditugu, plater konbinatuak, kazolatxoak. Ogitartekorik ez da falta. Oilasko erreak egiten ditugu, baita etxera eramateko ere.

Ondo portatzen ari dira bergararrak?

Bai. Oso pozik gaude. Hala ere, toki onenean ez dago taberna eta beraz, apur bat kostatzen ari zaigu jendea hona etortzea.

Zein da pintxo zaleagoa, ama ala semea?

Biak. Urdaiazpiko eta txorizoarena ditugu gustuko. Erraz prestatzen direnak.

Norekin hartuko zenukete ardo bat?

Edozeinekin. Oso ondo moldatzen gara denekin. Bergarako edozein tokitan hartuko genuke gustura.

Zelan moldatzen zarete elkarrekin lanean?

Ondo, askotan haserretzen bagara ere. Etxean ere berdin ibiltzen gara.

Jaietarako gutxi falta da. Parrandarako astia izango duzue?

Bai, zerbaitetarako denbora izango dute seme-alabek. Ditudan hiruak geratuko dira tabernan, ni gizonarekin Tenerifera joango naiz-eta. Ahal dena egingo dute hirurek. Hori bai, ogitartekoak baino ez dituzte aterako egun horietan.

hau be badaukogu

Kutxaespazioaren Experimentaldian izan zen Aranzadi Ikastola joan zen asteburuan

Aranzadi Ikastolako DBH3ko Astronomiako ikasleak Donostiako Kutxaespazioak antolatu duen Zientzia Azokan izan ziren joan zen asteburuan (argazkiak erakusten duen moduan). Han Euskal Herriko 12 ikastetxek hartu dute parte, gelan prestatutako esperientziak hara doazenei erakutsiz. Aurten eraman dituzten esperientziak honako hauek dira: Heronen iturria, Franklin-en kanpaiak, begiko puntu itsua eta kamara digital konpaktu batekin zeruko konstelazioei ateratako argazkien bilduma. Barikua egun lasaia izan zen eta gauzak primeran irten ziren. Zapatuan jende gehiago joan zen Aranzadik zuen txokora.

GOIENKARIA

bere ustez

Iñigo Garitano

Arauak urratzen direnean

Espainian Gobernuak eta Fiskaltza Nagusiak makinaria guztia martxan jarri dute ezker abertzalea udal hauteskundeetara Gobernuak nahi duen neurrian aurkezteko. 2003an ezker abertzaleko hautagaiei hautatuak izateko zuten eskubidea ukatu egin zien Auzitegi Konstituzionalak. Guztiei.

Orain, Gobernuak nahi izan du toki batzuetan nolabaiteko ordezkaritza izatea, udal batzuetan bai, adibidez, Bergaran ANV, baina beste hainbatetan ez, Batzar Nagusieta-

"Arrazoi politikoak dira Gobernuarenak hartu duen bideari eusteko, oinarri juridikorik gabe"

rako zerrendak, Nafarroa, udal modo bat... Arrazoi politikoak dira Gobernuak dituenak hartu duen bideari eusteko. Baina oinarri juridikorik gabe.

Ez daukat zalantzarik bake prozesuak beste ibilibide bat hartu izan balu hauteskundeetako panorama ez zela oraingo disparate hau izango, eta izan zen prozesuaren porrotaren erantzuleak asko dira, ezker abertzalea bera barne. Baina berdin zait, eskubideak ezin dira estrategia politikoen arabera aitortu edo/eta ukatu. Eta Auzitegi Gorenak zein Auzitegi Konstituzionalak 1978ko Espainiar Konstituzioaren aurka ebazten dihardute.

Bere oinarrizko araua urratu duen Estatuak herritar talde garrantzitsu baten errespetua eta legitimitatea irabazteko aukera galdu du oraingoan ere.

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Ile · apaindegia
Styloak
Estetika
Hankak + Iztaiak + Besapeak
20 €
Osintxu 13, behea
943 77 70 57

MAHAI-INGURUA Proiektuen berri emateko antolatu zuen ekitaldia Udalak: Ibon Antero (Hiruatx), Junkal Arruti (Bakerako lankidetza batzarra), Marcos Corres (Boheri) eta Lorea Zabala (Inpet) azalpenak ematen. M.A.

ELKARTASUNA > GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

Aurrekontuaren ohiko gastuen %0,7 bideratzen du Udalak GKEendako, bost gure herrian

Dagoeneko zabalik dago eskaerak egiteko epea; oinarriak kontsulta daitezke eguazteneko GAOn

54 mila eurotik gora banatuko ditu Udalak, eta eskaerak egiteko oinarriak Ongizate sailean dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Laster egingo du deialdia Udalak Gobernuz Kanpoko Erakundeek dirulaguntza eskaerak egin ditzaten. Aurrekontuko ohiko gastuen %0,7 bideratzen du, 54.327 euro, eta iaz bost talderi eman zien laguntza. Talde horiek –batek ezin izan zuen– mahai-ingurua egin zuten joan zen astean herritarrei euren proiektuen berri eman eta esperientziak elkartrukatzeko.

BAKERAKO LANKIDETZA BATZARRA

Guatemalako Sadegua erakundearekin dabil elkarlanean, eta Huehuetenango departamenduko 44 emakume eta familien antolakuntza gaitasuna eta ingurumen eta osasun baldintzak hobetzea dute helburu. Orain erabiltzen dituzten su-berogailuarekin ke guztia etxe barruan geratzen zaie, eta asmoa da berogailua izango den eta aldi berean janaria prestatzeko erabiliko duten sukalde egokiz hornitzea.

BOHERI, KOLONBIA ETA VENEZUELAN

Orain dela zazpi urte hasi zen lanean, eta gaur egun bi proiektu ditu, bata Kolonbian eta bestea Venezuelan. Lankidetza eta autogestioa sustatzeko kooperatiba proiektuak dira biak, eta helburua da enpresak sortzen laguntzea eta aurrera egiteko formazioa eta aholkularitza eskaintzea. Kolonbian, esaterako, haragikiak (txorizo, urdaiazpiko…) eraldatzeko kooperatiba jarri dute abian.

PERUN, INPET

Perun lan egiten duen erakundea da eta 30 urteko esperientzia du. Aretxabaletatik jantzigintzan lan egiten duten emakumeen egoera hobetzeko proiektuari laguntzen dabiltza. Lima hiriburuko San Juan de Lurigancho barruti pobrean lanean dabiltzan enpresa txikiei laguntzen diete, eta honako helburuak dituzte: lehiakortasuna handitu, enpresak legalizatu, bezero gehiago eskuratu eta euren artean elkartu.

HIRUATX, EKUATORE GINEAN

Ibilbide luzea duen taldea da, 16 urte inguru, eta azken proiektua Afrikako Ekuatore Ginean dabil garatzen Mundukiderekin batera. Herritarren bizi baldintzak hobetzea dute helburu, eta horretarako oilasko haztegia izango den kooperatiba jarri dute abian. Hutsetik hasi dira eta hainbat eraikin egin dituzte: oilategiak, ur-andela, aroztegia… Dagoeneko 2.000 txita dituzte eta 500 oilo. Artoa eta soja ekoizten hasi gura dute orain, oiloen janaria kanpotik ekarri beharrik ez izateko. Gainera, aurrera egiten erakutsi gura diete, kalitatezko produktuak ekoiztu eta sinistarazi eurak direla produktu horien jabe.

IESBAA, SAHARAREN ALDE

Saharako herriaren alde lan egiten duen taldea da, eta udazkennegu partean janari eta produktuak batzen ibili zen Saharara bidaltzeko. Umeek, uda gure artean pasatzeko kanpaina egin berri du, eta saharararrak zelako egoeran bizi diren ezagutaraztea herritarrei du helburuen artean.

MAPFRE
BADATOZ BEHERAPENAK MAPFRERA!
* %60ko deskontua automobil aseguruetan.
* %25erainoko deskontua etxebizitza aseguruetan.
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

Jon Díaz Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

UDALEKUAK

Begiraleak gura dituzte udaleku irekietarako

Kultur etxera bideratu behar dira eskaerak, eta azken eguna hilaren 17a da

M.A. > ARETXABALETA

Udaleku irekiak antolatuko ditu Udalak uztailean, urtero legez. Horretarako begiraleak gura ditu, eta izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Interesa dutenek *curriculuma* aurkeztu behar dute kultur etxean, posta bidez –Iralabarri plaza 13, Aretxabaleta– edo posta elektronikoz –kultura@aretxabaleta.net–. Eskaerak aurkezteko azken eguna hilaren 17a da.

16 URTETIK GORAKOAK

Antolatzaileek *curriculuma*ri begiratuta hautatuko dituzte begiraleak, baina 16 urtetik gora izan beharko dituzte. Zuzendaritza taldean jardun gura duenak, ostera, hala adierazi beharko du eskaera egiterakoan.

OSPAKIZUNA > OTALA ZELAIKO ERROMERIA

Erromeria giroa sortuko dute Otala Zelain herritarrek

Lasterketak, jolasak, paella txapelketa eta dantzak izango dira domekan, Aozaratzan

Eguraldi txarra eginez gero, jai giroa Iturrigorri frontoira ekarriko dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Otala Zelai eguna antolatu du Udalak domekarako. Eguraldiak laguntzen badu giro dotorea sortuko dute Aozaratzako zelaian.

BERTSOLARIAK ETA SAGARDOA

Eguna lasterketek hasiko dute. 10:00etan umeek jardungo dute, eta 11:00etan Urkuluri itzulia egingo diote nagusiek.

Krosa bukatutakoan sariak banatuko dituzte, eta ondoren ume eta gaztetxoek animaliekin jolasteko aukera izango dute. 13:00etan, paella txapelketa hasiko da, eta bitartean Leizarra musika eskolako trikitilariek, bertsolariek eta sagardo kupelak zelaiko giroa berotuko dute. Ohiturari jarraituz bazkaria norberak eroan beharko du. Arratsaldean, herri kirolak egongo dira umeendako, dantza saioa Loramendi dantza taldearen eskutik eta dantzaldia Erdizka lauetan taldearekin.

JOLASAK Basurde kumeari jarraika ume eta gaztetxoak Otala Zelaiko zuhaitz artean. M.A.

HAUTESKUNDEAK > EZKER BATUA-BERDEAK/ZUTIK

Benetako ezkerreko politikaren alde eginez ilusioa sortu gura dute

Talde ezberdinen arteko akordioekin ezker anitza eta zabala sendotu gura dute Aretxabaletan

M.A. > ARETXABALETA

Ezker Batua-Berdeak eta Zutik taldeek elkarrekin osatu dute zerrenda Udal hauteskundeetarako, gure herrian. Proiektu politiko ezberdinak dituztela azaldu zuten, baina era berean akordioen bitartez "ezker anitza eta zabala" osatu gura dute herrian. Ararrekin elkartzeko ahalegina egin arren, ez dela posible izan ere gaineratu zuten.

HAUTESKUNDEETAKO GABEZIAK

Ezker Batua-Berdeak taldeko Tomas Fernandez da zerrendaburua. Eta herrirako dituzten asmoen berri eman zuen: babes ofizialeko etxebizitzak, nagusiendako zaindutako etxebizitzak, gazteendako lokalak eta gaztetxea, emakumeei zuzendutako egitasmoak eta beste asko.

Zutikeko Javier Abaldek, bestalde, hauteskundeen gabeziak azaldu zituen: ezeztatutako zerrendak, alderdi txikiei onik egiten ez dien legeak, etorkinek ezin bozkatu, ETAren presioa... "Demokraziak, zenbat eta parte hartzaileagoa izan, hobeto funtzionatzen du", bukatu zuen.

AURKEZPENA Tomas Fernandez (Ezker Batua-Berdeak) eta Javier Abalde (Zutik). M.A.

ANDRA MARI
Aholkularitza

Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala

2006ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel.: 943 79 29 26

> HAUTESKUNDEAK

Ezker abertzalearen aldeko argazkia aterako dute bihar

Ezker abertzaleak Udal hauteskundeetarako aurkeztu duen zerrendaren aldeko herri argazkia aterako du, bihar, zapatua, 13:00etan, udaletxe aurrean.

Herritarren babesa gura du argazkia ateratzeko orduan, eta horregatik zerrendaren alde apirilean sinadura eman zuten herritar guztiak zein gainerako aretxabaletarrak gonbidatu gura ditu biharko ekitaldira. *Entzun gaitzatela, ezker abertzalea aurrera!* leloa izango du argazkiak.

> MUSIKA

Musika eskolako izenemate epea zabalik astelehenetik aurrera

Datorren ikasturteko matrikulazio epea zabalduko du Leizarra musika eskolak astelehenean, maiatzak 14. Izena emateko bertatik pasatu beharko dute interesatuek bulegoko ordutegian, 17:00etatik 19:00etara.

Euskal dantza zein musika ikasketak erakusten dituzte musika eskolan, eta 7 urtetik aurrera instrumentua hautatzen dute. Izena emateko gutxienez 4 urte izan beharko dute umeek, hau da, 2003an jaiotakoak.

> ERRETIRATUAK

Nafarroako Corellara egingo dute irteera maiatzaren 16an

Nafarroan dagoen Corella herria ezagutzera joango dira Basotxo erretiratuen elkarteko kideak hilaren 16an, eguaztena. 08:30ean aterako da autobusa Azbe lantegi pareko geltokitik, baina txartelak aurrez hartu behar dituzte Basotxoko egoitzan. Gaur, egubakoitza, da azken eguna 10:30etik 12:30era bitartean. 23 euro da bidaia.

Bestalde, Soriara antolatutako bidaia bertan behera utzi dute.

Sandra, Maddi, Hildegard eta Mireia > Ikasleak

"Ingelesa ikasi, jendea ezagutu eta geure arteko harremana sendotu dugu elkartrukearekin"

M.A. > ARETXABALETA

Elkartrukea egin dute lehenengoz Kurtzebarri eskolan. Azaroan Holandako Merlet institutuko 27 ikasle etorri ziren gurera, eta martxoan aretxabaletarrak izan ziren Cuijk herrian. Horren berri eman gura izan dute DBHko laugarren mailako ikasle ordezkariek.

Zer moduz hartu zintuzten Holandan?

Ondo. Astebete egin genuen hemen egondako ikasleekin.

Zela moldatu zarete elkar ulertzeko?

Beno... Ingelesez noski, baina euren maila askoz hobea da, eta guk baino askoz hobeto ahoskatzen dute. Telebista ingelesez ikusten dute, eta liburu asko ere itzuli barik dituzte.

Hortaz mintzamena lantzeko ondo etorri zaizue...

Bai, hilabeteetan baino gehiago ikasi dugu astebetean; beste erremediorik ez genuenez lotsa utzi eta berba egin behar. Konturatu gara ingelesa benetan beharrezkoa dela.

Eta zelako neska-mutikoak topatu dituzue?

Mutilak oso garaiak. Gu baino hotzagoak dira, gehiago kostatzen zaie zabaltzea, baina bestelakoan antzekoak. Hori bai, ez daukate kalera ateratzeko ohiturarik eta koadrilarik ere ez dute. Eskolatik ateratakoan etxera joaten dira, eta lagunak ere etxera gonbidatzen dituzte.

Etxean sartuta egon zarete?

Ez! Hitzordua egiten genuen eskola ondorenerako, eta geure ohiturara moldatu dira. Boom izeneko lokalera joaten ginen musika entzun eta egotera.

Holanda ezagutzeko aukerarik izan duzue?

Ez genituen irteera asko egin, bi hiri ezagutu genituen: Amsterdam eta Nijmegen.

Zerk eman dizue atentzioa?

Jatorduak ez dituztela behar bezala egiten. Ez dira elkartzen bazkaltzeko, norberak gura duenean jaten du zerbait eta kito; jatea behar fisiologikoa da bakarrik.

Bestetik, oso garbiak dira. Kaleak benetan garbi zeuden, eta asko arduratzen dira ekitaldi baten ostean dena garbi eta txukun uzten. Bizikletan ibiltzen dira guztiak, eskolara, dendara... eta kaleak horretarako moldatuta dituzte.

Esperientzia onuragarria izan dela uste duzue?

Sandra Labrador, Maddi Bengoetxea, Hildegard Colino eta Mireia Davila. M.A.

"Bizikletan ibiltzen dira guztiak edonora joateko kaleak horretarako gertatuta dituzte"

Bai, zalantza barik, errepikatzekoa. Hizkuntzak ikasi ditugu, jende asko ezagutu dugu eta gainera geure arteko harremana sendotu dugu elkartrukea gertatu bitartean.

argazki zaharra

Kurtzebarritik bueltan Otala Zelaira

Santo Domingo egunaren bueltan –maiatzaren 12 osteko domekan– ospatzen dugu Otala Zelaiko erromeria aretxabaletarrok Aozaratza auzoan dagoen zelaian. Aspaldiko ohitura da bazkaria hartu eta egun pasa joatea bertara, eta udalbatzako kideek, auzo-alkateekin batera, mendi buelta egiten dute mugarriak ikusteko. Ondoren Matikua jatetxera joaten dira bazkaltzera.

Mokadutxoa egiten ageri diren koadrilako kideak Kurtzebarrira joan ziren 1953 urte inguruan. Juan Antonio Etxaberen txabolan bazkaldu zuten, eta arratsaldean, jai giroa izango zela-eta Otala Zelaira hurreratu ziren.

Argazkian goitik hasita: Ramon Elkoro, Juan Antonio Etxabe, Alberto Beltran de Heredia eta Bittor Agirre. Azpian: Ramon Mari Elkoro, Jose Mari Elkoro (semea) eta Jose Mari Elkoro (aita).

Argazkia: Ramon Mari Elkoro.
Testua: Ramon Mari Elkoro.
Urtea: 1953.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

HAUTESKUNDEAK 07 > EUSKO ALKARTASUNA

Datorren agintaldian ere elkarlanean aritzeko gertu dagoela esan du EAk

Plazako aparkalekua kentzea eta anbulatorioko zerbitzua indartzea dira EAk dituen asmoetako bi

AURKEZPENA EAko zerrenda osatzen duten kide batzuk aurkezpen ostean. O.E.

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Datozen lau urtetarako EAk dituen asmoak azaldu zituen prentsaurrean Ernesto Murgiondo alkategaiak. Iñaki Galdos ahaldun nagusi izateko hautagaia eta EAko zerrenda osatzen duten beste hautagaiek izan zituen ondoan.

PLAZAKO APARKALEKUA KENDU

Datorren legegintzaldian egiteko asmoen artean, plazako aparkalekua kentzea da bat. "Kiroldegiko aparkaleku berriak arnasa hartzen lagunduko dio plazako guneari. Horregatik, proposatzen dugu plazako aparkalekua kendu eta gune horretan ume eta gazteendako parke edo jolaslekua egin", argitu zuen Ernesto Murgiondok. Horrez gain, beste asmo hauek ere baditu EAk, besteak beste: "Anbulatorioan gaueko eta asteburuko zerbitzua jartzea eta pediatria zerbitzua sendotzea; kanposantuko bidea eta horma konpontzea; futbol zelai berria Ibarran egitea eta San Lorentzoko kirol gunea berreskuratzea; Sandaili eta Araotz zaintzea; bidegorriaren proiektua egitea eta Santa Anako zinema ekipoa hobetzea".

GAZTEAK ETA ESPERIENTZIADUNAK

Iñaki Galdosek, bestalde, Oñatiko EAren zerrenda dela gaztea eta esperientziaduna azpimarratu zuen eta EAk Oñatin hiru ezaugarri hauek dituela esan zuen: "Ernestok orain arte egindako lana, beste alderdiekin batera egindako elkarlana eta Oñatik izan behar duen ibar-kontzientzia, Debagoienako parte da Oñati eta".

SALAKETA Ezker abertzaleko kideak prentsaurrekoan. O.E.

KAMERAK > 11 KAMERA DAUDE

Plazan kamerak jartzea salatu du ezker abertzaleak

O.E. > OÑATI

Ezker abertzaleak salatu du Udalak kamerak jartzea plazan eta inguruan. "EAJren nagusitasuna ikusten da hor, Oñati *anaia handia* bihurtuz. Hori gertatu da udalbatzak ez duelako oposiziorik izan", esan zuen Karmelo Arregik ezker abertzalearen izenean. Ezker abertzaleak galdetu du ea nork kontrolatu eta zein erabilpen emango dioten kamerek hartutako informazioari.

Lourdes Idoiaga alkateak argitu du penagarria dela neurri hori hartu behar izatea baina txikizioak egoten direlako hartu dutela, ez direla pertsonen kontrolerako. Esan du irudiak udaltzainburuak bakarrik ikusi ahal izango dituela eta egun gutxitara automatikoki ezabatuko dituela sistemak.

Guztira 11 kamera daude jarrita: udaletxearen ondoan lau udaltzaingoaren eraikin berrian bost eta azokan bi.

DIRULAGUNTZA > JUANITO OIARTZABAL MENDIZALEAK EMAN DIE

Bidaurretako mojek dirulaguntza berezia jaso dute

Eskale bati mojek nola lagundu zioten ikusita erabaki du Juanito Oiartzabalek dirulaguntza ematea Bidaurretako mojei

O.E. > OÑATI

Bidaurretako mojek dirulaguntza berezia jaso dute astean. Juanito Oiartzabal mendizalea *reality show* baten parte hartzen ari da eta bere ordezkariak Oiartzabal defendatzeko egindako prometan irabazitako dirua ekarri du Bidaurretako monasteriora, 1.000 euro inguru.

ESKALE BAT ONDO HARTZEAGATIK

Vicente de Prado da Juanito Oiartzabalen ordezkaria eta berak eman die dirua Bidaurretako mojei. Oiartzabalek ezin izan du etorri Tele5 telebista kateko *Supervivientes* programan dagoelako.

De Pradoren esanetan, duela hilabete inguru Oñatira etorri zen Oiartzabal eta eskean zebilen gizon bati Bidaurretako mojek nola lagundu zioten ikusi zuen. Mojek eskalea ondo hartu zutela ikusi zuen eta hori eskertzeko erabaki du telebista programa horietan irabazitako dirua Bidaurretako moja klaratarrei ematea. De Pradok esan du kopurua 1.000 euro ingurukoa dela eta mojen esku utzi du zehaztea. Mojek, ordea, ez dute kopurua zehaztu gura izan, "oparia" izan dela esan dute bakarrik.

Oñatiko turismo bulegoa izan da dirulaguntza honetan bitartekari lanak egin dituena. Turismo bulegoak eskerrak eman dizkio Vicente de Pradori Oñatiri egindako propagandagatik, izan ere, telebista programan pare bat bider aipatu zuten Oñati eta Bidaurretako monasterioa.



DIRUA Vicente de Pradok mojei dirua eman zien unea. ARRITXU BARRUSO

EAE-ANV

**“ERALDAKETAREN OÑATI.
GURE HERRIAREN HITZA HELBURU.
UDAL BERRIA.”**

“La obra maestra de la injusticia es parecer justo sin serlo” PLATON, filosofo ospetsuak duela hainbat mende esandakoa eta egun gure eguneroko bizitzan, zoritxarrez, guztiz txertatua dagoena.

BOZKATU EAE-ANV

ARGITALPENAK > MAPAK ETA MUGARRIEN GAINEKO LIBURUXKA

Udalerriko mapak eta mugarrien gaineko liburuxka kaleratu dituzte

Mapa kartografikoak, airez egindako argazkiak eta toponimia batu dituzte

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko mugarrien gaineko liburuxka ere kalean



BI ALKATEAK Argazkian Arritxu Oliden eta Juan Carlos Bengoa mapak eta liburuxka erakusten. ARRITXU BARRUSO

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Udalak udalerriaren gaineko mapak aurkeztu ditu astean. Geograma enpresa gasteiztarrak egin du lan hori, eta lau zatitan banatuta dago: udalerriko kartografia eta toponimia; airez egindako argazki orokorra; eta kale-izendegia, hain zuzen ere.

Lan hori Udalak eta Jaurlaritzak finantzatu dute, eta 3.000 ale kaleratu dituzte. Horietatik 1.000 udalerriko etxebizitza guztietara bidaliko dituzte. Horrez gain, aukera egongo da Ibarraundi museoan edo Santa Ana auzoan halako besterik erosteko.

INFORMAZIO ASKO BATUTA

Kartografian udalerriko auzo, baserri, iturri, erreka, mendi eta interes handiko eraikinak batu dituzte. Horrekin batera, toponimia ere jaso dute. Maparen beste aldean, berriz, airez egindako argazkia ikusgai dago. Argazki horrek bereizmen edo erresoluzio handia dauka.

Horrez gain, Aretxabaletako eta Eskoriatzako alkateek beste ekoizpen bat aurkeztu zuten. Bi udalerrien arteko mugarrien gaineko lana liburuxka baten batu dute. 44 mugarri horien gaineko fitxa bana sartu dituzte liburuxkan: argazkia, non kokatuta dagoen, hara zelan jo eta mugarriaren deskribapena jaso dituzte, hain zuzen ere. Horrekin batera, airez egindako argazkia eta egiaztapenaktak ere batu dituzte lan horretan.

ELKARTEAK > AITZORROTZ KULTURA ELKARTEA

Zapatuan Aitzorrotz kultura elkartearen eguna ospatuko dute

Aitzorrotzek 15 urte bete ditu, eta elkartea herrira gehiago zabaldu gura dute

I.B.> ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak egitarau berezia prestatu du biharko, zapatua. Elkartea orain dela 15 urte sortu zuten eta urteetan geldi samar egon bada ere, orain dela 4 urte indarberritu zen.

Azken urteotan kontzertu, antzezlan, erakusketa, berbaldi, bertso saio, pilota txapelketa eta beste asko antolatu dituzte. Gehienak Inkernu tabernan eta kultura etxean egin dituzte. Horregatik, zapatuan ekitaldi guztiak kalera aterako dituzte.

Elkartearen helburua da herriko kultura, historia eta natura ondarea bultzatzea.

Goizean eta eguerdian kalejirak egingo dituzte; eta toponimiaren gaineko erakusketa herriko plazan jarriko dute. Horren ostean, 14:30ean herri bazkaria egingo dute plazan. Txartelak salgai daude plazako tabernetan.

17:00etan Eriz magoa, capoeira emanaldia, kale animazioa eta kontzertuak egingo dituzte. 22:30ean, berriz, Barua Banda taldeak kontzertua egingo du.

HERRITAR TALDEA Prentsaurrekoan belaunaldi desberdinetako herritarrek esku hartu zuten. IKER BARANDIARAN

> GERTAERAK

Gizonezko bat hilda agertu zen bere etxean martitzenean

45 urteko gizonezko bat hilda aurkitu zuten martitzenean bere etxean. Bergararra zen, baina hamar hilabete dela Eskoriatzan bizi zen. Ertzaintza, hasiera baten, norbaitek hil ote duen ikertzen ibili da, baina, orain ez dute heriotza naturala izan denik baztertzen.

Gizonezkoaren gorpua 15:00ak aldera aurkitu zuten Santana auzoko etxebizitza baten. Hildakoaren bizilagun batek adierazi duenez, aurreko gauean kolpeak entzun zituen goiko pisuan eta biharamunean horren berri eman zion etxearen jabeari. Hala, alokairuan bizi zen gizonezkoaren hilotza aurkitu zuen jabeak bertan.

> AISIALDIA

Udaleku irekietan matrikulatzeko epea zabaldu dute

Udalak 1995 eta 2003 bitartean jaiotakoak udaleku irekietan matrikulatzeko epea zabaldu du. Uztailaren 3tik 20ra bitartean egingo dute, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00ak bitartean, hain zuzen ere.

Matrikula 40 eurokoa izango da, baina badira beherapenak: bi anai-arrebek izena emanez gero, 68 euro ordaindu beharko dute; eta hiru izanez gero, 80 euro.

Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 18a izango da, eta interesatuek Tortolis ludotekara (astelehenetik egubakoitzera, 16:00etatik 20:00etara bitartean) edo gazteria zerbitzura (martitzen eta eguenetan, goizez eta arratsaldez) jo beharko dute izena ematera.

> LEHIAKETA

'Mundua bertan' lehiaketaren laugarren galdera

Mundua bertan-eko erantzunak hona bidali beharko dira: *lehiaketak@eskoriatza.net*.

XIX. mende bukaeran bazen Euskal Herrian euskaltzale bat mintzairaren gaineko azterketa zuzena eta modernoa egin zuena, nahiz eta bere arauak eta hitzak ez izan guztion gustukoak. Euskaltzaleak asmatutako hitz batzuk hauek dira: *arkatza, ikastola, abizena*... Baita gaur egun erabiltzen ez diren *gentza, txadona, erkala, ingia* eta *izparringia* ere. Esango diguzu zein den euskaltzale horren izena? Eta berak asmatu eta orain erabiltzen ez diren goiko hitzetatik, gutxienez, hiruren esanahia?

OSOKO BILKURA > EZOHIKO OSOKO BILKURA

Kirol zerbitzuen kudeaketa kontratatzeko bidean daude

Igerilekuko sorosle lanak, kiroldegiko atezaintza eta kirol ikastaroen ardura hartu beharko dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Atzo, eguena, ezohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Argitu digutenez ez da legealdiko azkena izango, baina bai azkenetariko bat.

Lehenik eta behin, udaleko kirol zerbitzuen kudeaketa kontratatzeko espedientea irekitzea eztabaidatu zuten. Ez genuen jakiterik izan onartu zuten edo ez, baina horren arabera interesatuek 26 egun izango dituzte eskaintzak aurkezteko.

Kudeaketa horren barruan honako lanak egin beharko dituzte: igerilekuan sorosle lanak egitea eta igeriketaren gaineko ikastaroak ematea; asteburuetan kiroldegiko atezain eta pilotalekuko zaintzaile lanak egitea; eta kiroldegian astean zehar ematen dituzten ikastaro guztien ardura izatea, hain zuzen ere.

HAUR ESKOLAKO PREZIOAK

Gaiz aldatuz, Arizmendik eskaintzen duen haur eskola zerbitzuaren prezio berriak ere onartzekoak ziren. 0 eta 3 urte artekoen zerbitzua Udalaren ardura da.

Horrez gain, Ibarraundi baserriaren jabeari San Pedro 9 behean etxebizitza bat ematea aztertu zuten. Hala, jabearekin hitzartutako erretornu-eskubidea gauzatu gura zuten.

Eta bukatzeko, zinegotziek legealdi bukaerako aitorpenak egiteko inprimakiak onartzeko asmoa zuten.

KIROLDEGIAREN ARDURA Kirol ikastaroak ere kudeatu beharko dituzte. I.B.

JAIAK > ESALDI LEHIAKETA

San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa deitu du Udalak

Herriko koadrilei bidea eman diete esaldiak asmatu eta jaiak girotzen lagun dezaten

I.B.> ESKORIATZA

Udaleko Euskara eta Kultura batzordeak San Pedro jaiak antolatzen buru-belarri dabiltza. Horrekin lotuta, esaldi lehiaketa deitu dute, jaiak girotzeko eta partehartzea bultzatzeko.

Esaldi horien helburua da "jaiak ondo pasatzera gonbidatzea; jaiak, euskara eta gazteak elkartuz; eta jaiak neurrian ospatzeko deseatuz".

TALDEAN ESKU HARTU

13 urtetik gorako lagunek esku hartu ahal izango dute lehiaketan, baina hiru eta bost kidez osatutako taldeak izan beharko dira halabeharrez. Dena dela, talde bakoitzak gutxienez esaldi bat aurkeztu beharko du, eta gehienez taldekideek gura beste; ez dago mugarik.

Interesatuek udaletxearen eta kultura etxearen azpian jarriko dituzten buzoietan sartu beharko dituzte esaldiak, kartazal baten sartuta. Horiek aurkezteko azkeneko eguna ekainaren 3a izango da. Kartazalean taldearen izena jarri beharko dute; eta barruan, beste kartazal itxi batean datuen txartela.

NEURRIZ KANPOKORIK EZ

Antolatzaileek jakinarazi dute neurriz kanpoko kontsumoa bultzatzen duten esaldiak eta jarrera sexistak bultzatzen dituztenak ez dituztela onartuko.

Esaldi onena asmatu duen taldeari San Pedro jaietan afari bat ordainduko diote; eta pegatinetan erabiliko dituzten esaldien asmatzaileei 50 euroko sariak emango dizkiote.

ALKATEA HAUTAGAI Irudian, Juan Carlos Bengoa eta Iñaki Galdos. I.B.

HAUTESKUNDEAK > EA-REN AURKEZPENA

EAk turismoa eta aisialdia indartzeko asmoa dauka

Herritarren alde lan egiten jarraituko dutela azpimarratu du Juan Carlos Bengoak

I.B.> ESKORIATZA

Eguaztenean prentsaurrekoa egin zuten EAko alkategai Juan Carlos Bengoak eta Batzar Orokorretarako hautagai nagusi Iñaki Galdosek.

Bengoak nabarmendu zuen EAk udalean lan gogorra egin duela, alkatetzan zein oposizioan. Alkatetzan egon direnean lorpen handiak egin dituztela, baina hori beste taldeei ere zor diotela. Horrekin lotuta, nabarmendu zuen bukatzera doan agintaldian udaletxeko ateak zabalik izan dituztela, eta alderdi guztiek esku hartzeko aukera izan dutela; baita herritarren kexa guztiak osoko bilkuratan eztabaidatu dituztela.

Agintaldi berriari dagokionez, ingurumenaren, ekonomiaren eta giza baliabideen iraunkortasuna landuko dute. Horien artean, etxebizitzak eskuratzeko aukerak. Horrez gain, turismoa eta aisialdia lantzeko asmoa erakutsi zuen, bidegorriak eta herriak dituen baliabideak indartuta.

> MERKATARIAK

Bihar, zapatua, loreak banatuko dituzte herriko plazan, merkatarien ekimenaren bitartez

Bihar, zapatua, lore ederrak etxera eramateko aukera izango da herriko plazan, 09:30etik 15:00etara bitartean. Horretarako, astean herriko 20 saltoki baino gehiagotan txartelak banatu dituzte bezeroen artean.

Aste osoa eman dute horretan eta 3.000 txartel banatzeko asmoa zuten. Dena dela, gaur, egubakoitza, ere izango da txartelak eskuratzeko aukera; azkeneko eguna izango da.

Bezeroek txartel bakoitzeko lore bana eskuratu ahal izango dute Urtinea enpresa hernaniarrak jarritako saltokian. Horrez gain, norbaitek loreak erosteko asmoa badu, horren aukera emango dizkiote.

SALON DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA
Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Xabier Arantzeta > Txirrindularia

"Nire helburua da ondo pasatzea eta kirola egitea; ez dut gehiegi pentsatzen etorkizunean"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Aurtengo denboraldian hiru garaipen lortu ditu Xabier Arantzeta txirrindulariak; pozik dago lortutakoarekin. Kadete mailan dabil (16 urte ditu), Bergarako Sumofic-Lokatza taldean. Aitor Laskurain antzuolarra taldekide dauka Arantzabalek.

Dagoeneko hiru garaipen lortu dituzu. Pozik egongo zara, ezta?

Bai, nahiko pozik nago. Ez nuen espero hain goiz hastea garaipenak lortzen. Aurrerago, beharbada, bai, espero nuen. Kadeteen mailan bigarren urtea daukat aurtengoa eta gogotsu hasi dut denboraldia. Alde handia dago bi urteen artean; izan ere, infantiletan, lasterketak ez ditugu errepidean egiten, industrialdeetan eta horrelakoetan izaten dira, zirkuitu itxietan. Kadeteen lehenengo urtea errepidera egokitzeko izaten da.

Hiru garaipenak antzerako eran irabazi dituzu.

Hala da, bai; ihesaldi txiki baten sartu nintzen eta helmugatik gutxira, igoera baten, ihes egin eta neu bakarrik iritsi nintzen helmugara hiru lasterketatan.

Txirrindulari bezala, zela definituko zenuke zeure burua?

Aldapan ibiltzen naiz gusturen, eskalatzailea naiz.

Zela entrenatzen zara?

Astean bost bat egunean, eguneko pare bat ordu ibiltzen naiz bizikletan. Aurre-denboraldian, bestalde, ziklokrosean ibili naiz aurten eta oso gustura, gainera. Iñigo Igartuarekin jardun dut teknika ikasten.

Xabier Arantzeta, Sumofic-Lokatza taldeko txirrindularia. A.I.

Zein da zure helburua txirrindularitzan?

Oraingo mailan jarraitzea nahiko nuke; zorte pixka batekin, amateur mailara iritsiko banintz, pozik hartuko nuke. Dena dela, nire helburua da disfrutatzea, ondo pasatzea eta kirola egitea. Oraingoz, egia esan, ez dut gehiegi pentsatzen etorkizunean. Nire lehentasuna da ikasketetan ondo jardutea.

Legealdiari agurra, argazki eta guzti

Aurreko asteko egubakoitzean egin zuen udalbatzarrak bukatzera doan agintaldi honetako azkeneko osoko bilkura. Zinegotzi guztiak egon ziren hantxe, eta bukaera emateko, argazkia atera zuten guztiek elkarrekin.

Ekainetik aurrera zinegotzi bi gehiago izango dira, hamaika, guztira. Lau urte barru, hortaz, jendetsuagoa izango da argazkia.

BAKARNE BARANDIARAN

> IKASTAROA

Bideoak editatzen ikasteko oinarrizko ikastaroa

Udaleko Kultura Sailak antolatu du bideoak ordenadorez editatzen eta manipulatzen ikasteko oinarrizko ikastaroa. Maiatzaren 26tik ekainaren 30era, zapaturo, 10:00etatik 13:00etara izango dira eskolak, Herri Ikastetxeko informatika gelan. Ikastaroaren prezioa da 21 eurokoa orduko euro bat. Izena emateko aukera dago udaletxean bertan, 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta edo posta elektroniko bitartez: *kultura@antzuola.net* helbidera idatzita.

> OSOKO BILKURA

Gertu Gae-k mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran

Gertu Gae-ren udal taldeak legez kanporatzearen gaineko mozioa aurkeztu zuen. PSE-EEko Kortajarenaren aurkako botoarekin eta gainerako guztien aldekoarekin, ez zen onartu. Idatzi horretan, Espainiako gobernuari eskatzen zaio ez dadila legez kanporatzerik egin; udalbatzarrak alderdien arteko elkarrizketa eta akordioen aldeko jarrerak bultzatzea eta Ezker Abertzaleak plazaratutako marko demokratikorako proposamenaren berri jasotzea.

> HAURRESKOLA

Matrikulatzeko aukera dago maiatzean zehar

Aurreko astean jakinarazi genizuen Haurreskolan matrikulatzeko epea zabalik egongo dela maiatzaren 17tik 31ra. Datu bat, baina, okerra zen: azaldu genizuen herrian erroldatuta egon behar dela umea, baina, hori ez da horrela. Beste herri batean erroldatutakoek ere badute aukera Antzuolako Haurreskolan izena emateko. Dena dela, beharrezkoa da nonbait erroldatuta egotea.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

bere ustez

Ana Gillegi

Badoa negua eta maiatza loratu da

Badoa negua atzean geldituz (bai ezta?). Denok deseatzen eguraldi onarekin kalera ateratzeko. Hilabete berezia dela iruditzen zait, hainbat urtebetetze ospatzen ditugu etxean: ume biena, Maialenena, aitaita Manolona ere ospatzen genuen. Gure ezkon eguna ere bai. Ospatuko dut, Patxi laguna berriz ere ondoan izatea-eta eskertzen dut, udaberriko eguzki gozoa eta iluntzean kilkerraren kantua bere konpainian entzutea. Kurtso amaiera eta Asentzioko afariak Gorka eta Nereare-

"Hilabete berezia dela iruditzen zait, hainbat urtebetetze ospatzen ditugu etxean"

kin (eta lau begi pare umeak uretara noiz jausiko zaintzen). "Etxetxoa" ere martxan jarriko dugu eta kostaldean pasako ditugu aste bukaerak; egunez hondartzan, paseatzen eta lagun artean; gauetan dena lasai dagoenean izarretara begiratu eta gaua entzunez.

Badirudi udararen atariko froga dela. Denok prest ondo pasatzeko, denok umoretsu egun luze eta epelengatik. Baina ez nago ahaztuta udan edo udaberrian beste zeregin batzuk ere baditudala, ez hain politak agian, baina eguneroko martxa ziurtatzen dutenak. Eta eguneroko martxa ziurtatzeko, nire herriko martxa egokia ziurtatzeko, maiatzaren 27an udaletxean botoa ematea ez zait ahaztuko. Lau urteterako martxa berria.

PAISAIA LINGUISTIKOA Kontseiluak dio Udalak gehiago eragin dezakeela enpresen euskara erabileran. L.Z.

HIZKUNTZA POLITIKAREN NEURKETA > UDAL-ORDENANTZA EGITEKE

Elgetako Udalari 4,71ko nota jarri dio Kontseiluak

Kontseiluak egindako neurketak Udalaren hizkuntza politika neurtzeko balio izan du eta alde positiboak zein hutsuneak nabarmendu ditu

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetak 0-10 tarteko neurketan 4,71 puntu lortu ditu eta Kontseiluak egindako neurketaren 22. postuan dago. Aurretik ditu, esaterako Irun, Hernani eta Ordizia. Barikuan aurkeztu zituen datuok Kontseiluko Mikel Balentziagak eta aipatzekoa da ez zela udal ordezkaririk ekitaldira agertu.

"Elgetako Udalak hein handi batean euskaraz funtzionatzen du", esan du Balentziagak, "baina ez du funtzionamendu hori legez arautzen duen ordenantzarik egin oraindik".

UDAL-ORDENANTZA FALTA

"Udal-ordenantza euskaldunen hizkuntza eskubideak babesteko egin behar da", azaldu du Balentziagak. "Orain euskaraz funtzionatzen du Udalak, baina egunen batean kontrakoa egitea erabakiko balitz Elgetako euskaldunek ez lukete inongo babes juridikorik edukiko".

ALDE POSITIBOAK ETA HUTSUNEAK

Kontseiluko ordezkariaren esanetan, Elgetan, zenbait gauza ondo egiten ari dira. Esaterako, Udalaren atal guztiak euskaraz ari dira eta heldu zein haurrek kirola euskaraz praktikatzerik dute. Haurrendako aisia, gainera, euskara hutsez eskaintzen da.

Hutsuneak ere antzeman dira, ordea. "Udalaren komunikazioa neurri handian euskara hutsez egiten bada ere ez da berau arautzen duen erabakirik", esan du Balentziagak. "Udalari aholkularitza juridikoa eta teknikoa eskaintzen dioten enpresei ez zaie txostenak euskaraz aurkeztea exijitzen eta Udalak ez du egitasmorik enpresen euskalduntzean eragiteko".

Kontseiluko Mikel Balentziagaren esanetan arau hauek idatziz jasoz gero nabarmen igoko litzateke Elgetako Udalaren hizkuntza politikaren nota.

Neurketa hau hiru bat urte barru berriz egitea da Kontseiluaren asmoa. Orduan ikusiko da Udalak aurrera edo atzera egin duen euskara kontuetan.

ERRETIRATUAK

Hilaren 21ean irteera egingo dute Gatzagara

L.Z. > ELGETA

Astelehena da maiatzaren 21a eta egun horrekin irteera antolatu du Elgetako Erretiratuen Elkarteak. Leintz-Gatzagan egingo dute arratsalde-pasa.

Dorletako Santutegia, Jakion enpresa eta Gatz Museoa bisitatuko dituzte. Azken honetan gatza egiteko prozesua zein den bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute.

AUTOBUSA DOAN

Erretiratuek autobusez egingo dute joan-etorria. 14:30ean irtengo dira Leintz-Gatzagarantz.

Irteeran parte hartu nahi dutenek hilaren 15a baino lehen eman behar dute izena. Horretarako Pedro Mari Uberarekin egon behar dute.

> OZKARBI EGUNA

Domekan bazkaria egingo dute Ozkarbiko bazkideek

Hilaren 13an, domeka, egingo dute Ozkarbi Eguna elkarteko bazkideek. Poteoarekin emango diote hasiera ospakizunari. Eguerdi partean trikitiak lagun dituztela ibiliko dira poteoan. Jarraian, bazkaria egingo dute elkartean. Urtero legez Zuzendaritza Batzordeko kideek egingo dituzte zerbitzarik lanak. Bazkal ostea alaitzeko trikitilariak izango dituzte.

III. MAGIA MOSTRA > ASTURIARRAK ALDE HANDIAREKIN ESKURATU DU SARIA

Aurkezle lanak egin zituen Murphy mago asturiarrak eraman du publikoaren saria

Magia Galaren ostean egindako *Zapatu Golfoa*, errepikatzeko esperientzia

L.Z. > ELGETA

Barre algara gehien eragin dituen magoak eraman du aurtengoan ere Elgetako publikoaren saria. Trukuak eta txisteak egiteaz gain Murphy izan zen zapatuko Magia Galan ikusleen parte hartze zuzena ahalbidetu zuen mago bakarra. Publikoarekin aritu zen jolasean eta saria jaso du.

Saritu gehiago ere eman ditu, ordea, Mostrak. Aukeraketa honetan parte hartzeagatik Gasteizen egiten den Magialdirako bi lagunendako afaria eta sarrera eskuratu ditu Andrea Unanue aretxabaletarrak. Ordezkoa Ines Etxebarria da.

MURPHY Asturiarrak jasoko du III. Magia Mostrako txapela. JOSETXO ARANTZABAL

INGURUMENA > BASO-ZIURTAGIRIA

Plan foralak onartu ditu zenbait laguntza

Dirulaguntza emango du hiru proiektutarako, baina Udalak eskatutakoa baino gutxiago

Kiroldegiko konponketak, Etxaguen auzokoak eta Untzillako saneamendua egin nahi ditu Udalak

UBANE MADERA > ARAMAIO

Diputazioaren Plan Foralak baiezkoa eman dio Aramaioko Udalak hiru obra diruz laguntzeko egindako eskaerari.

Batetik, Etxaguen auzoa urbanizatu eta zolatu nahi du Udalak.

Bestetik, kiroldegian zenbait egokitzapen lan ere egin nahi ditu; besteak beste, igogailua ipini nahi du eta kiroldegi barruko taberna, berriz, kendu eta haren lekuan bestelako aretoak ipini (gimnasia egiteko, adibidez).

Eta azkenik, auzoen azpiegiturak berritzeko lanen barruan, Untzilla auzoaren saneamendua egin nahi du.

"Behin-behinerako onartu dituzte dirulaguntzak oraingoz, datorren astean onartu behar dituzte behin betiko, baina ez dut uste aldaketarik izango denik", argitu du Mertxe Mondragon alkateak. Dena den, hark gaineratu du Plan Foralak dirulaguntzak ematea onartu duen arren, Udalak eskatutakoa baino kopuru txikiagoak ematea onartu duela; hori horrela, "orain dik ikusi egin behar dugu zertarako eman duten laguntza eta zer egin dezakegun".

Plan Foralaren laguntza horiek dira aurten erabiltzeko, 2007an. "Baina obrak lehiaketara atera egin behar ditugu eta joango gara hori polito-polito egiten 2007an zehar".

BESTELAKO LAGUNTZAK

Bestalde, Foru Aldundiaren gaineko kontuekin jarraituz, alkateak jakinarazi du beste bi laguntza ere eskatu dituztela, kasu horretan, herriko urekin lotutakoak. Hala, batetik ura potabilizatzeko laguntza eskatu diote Diputazioaren menpe dagoen Alava Agencia del Agua erakundeari; eta bestetik, matxurak detektatzeko. Dena den, esperantza larregi ez dute: "Urtero egiten dute deialdia; guk urtero eskatzen dugu eta urtero esaten dute ezetz. Eta matxurei dagokienez, beharrezkoa da haiek detektatzeko sistemaren bat izatea. Hodi kilometro asko dago eta matxura bat gertatzen denean oso zaila izaten da orain hura detektatzea. Bada sistema egoki bat Aramaiorendako, kartografia digitala erabilita ".

AZKENEKO OSOKOA

Horrekin batera, alkateak jakinarazi du 2003-2007 legealdia bukatu baino lehen udalbatzarrak azkeneko osoko bilkura egiteko asmoa baduela. Aurreratu du izango dela maiatzaren 23an (eguaztena).

Bestelakoen artean, Mertxe Mondragonek lau urteotako baloraziоa egiteko asmoa dauka.

OMENALDIA, 100. URTEURRENEAN

Bukatzeko, Udalak egin behar duten omenaldi baten berri eman du alkateak: Tomas Galartza oletarra omendu behar dute, hil honetan 100 urte beteko dituelako. Ospakizuna egin behar dute maiatzaren 26an, Oletan bertan. Tomas Galartza alabarekin bizi da orain, Bilbon, baina dagoeneko Maria Jesus Galartza alabak iragarri du Oletan izango direla ospakizun egunean.

KARTELA Aramaioren gaineko tematika erabili dute kartelean. GOIENKARIA

UDALA > KARTEL LEHIAKETA

Udalak aukeratu du jaiak iragarriko dituen kartela

U.M. > ARAMAIO

Oraingo astean erabaki du Kultura eta Euskara Sailak San Martin jaiak iragartzeko zein kartel erabiliko duten.

Argazkiak erakusten duen moduan, gaztetxoek egindakoa da; hain justu, 12 urteko hiru lagunen artean marraztu dute: Maria Izaga, Izaro Aretxaga eta Paula Amilbururen artean.

Hirurei Elkarren saltokietan gastatzeko 60 euroko txartela emango diete, txartel bakarra hirurentzat.

Kartel lehiaketa irabazi duen marrazkia sartuko dute jaien egitarauaren azalean. Gainerako marrazkiak, berriz, azalduko dira egitarauaren barruko aldean.

16 URTETIK GORA BAT ERE EZ

14 marrazki aurkeztu dituzte aurten lehiaketara. Guztiak 16 urtetik beherako neska-mutikoek aurkeztutakoak. Eta ez Udalak hala erabaki zuelako, baizik eta 16 urtetik gorakoendako mailan ez delako inor aurkeztu.

HAUTESKUNDEAK 07 > EAJ-REN AURKEZPENA

Egitamua ondo landu nahi du EAJk

Besteak beste, babestutako etxebizitza gehiago eraikitzeko asmoa dauka Euzko Alderdi Jeltzaleak

U.M. > ARAMAIO

2003-2007 legealdian Egitamu Orokorra lantzen hasi da Aramaioko Udala gobernatzen duten EAJ eta EA alderdiak. Herriaren ordenamendua edo antolamendua arautzeko tresna da Egitamua.

Bada, Egitamu hori onartzea da Aramaioko EAJk datozen lau urteotarako finkatu duen ildoetako bat. Hala adierazi du Iñaki Nafarratek EAJk, alkatetzarako aurkeztu duen hautagaiak: "Aramaio kudeatzeko ezinbesteko tresna da-eta hori".

BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK

Halaber, Egitamu Orokorra egiten dabiltzala kontuan hartuta, zera ere egin nahi dute Euzko Alderdi Jeltzaleko alderdikideek: "Egitamu Orokorrean sartu nahi dugu ahalik eta lursail gehien babestutako etxebizitzak eraikitzeko. Etxebizitza guztiak ez dira izango babes ofizialekoak, izan daitezke tasatutakoak edo bestelako formularen bat (babes motaren bat) erabiltzen dutenak, baina halako gehiago eraiki nahi ditugu, bereziki, behar gehien dutenei begira, gazteei begira, esaterako".

AZPIEGITURAK

Gazteen harira, berriz, haiekin zuzenean lan egin nahi dute EAJko ordezkariek: "Zubia egin nahi dugu gazteen eta Udalaren artean, baina, beti ere, bien aldetik konpromisoa ipinita".

Bukatzeko, auzoetara begira, "orain arte egin diren auzoetako azpiegiturak bukatzen" jarraitzeko asmoa dutela ere azaldu du Nafarratek.



HAUTAGAIAK Txema Vilches, zerrendan bigarrena eta Iñaki Nafarrate, alkategaia. EAJ

> HEZKUNTZA

Naturaren eta euskal ohituren gainean ikasteko irteerak

Datorren asteari begira, bi ekitaldi antolatu dituzte San Martin Eskolako ikasleendako. Batetik, maiatzaren 16an, eguaztenean, Gorbeiako parke naturalera irteera egingo dute Lehen Hezkuntzak bigarren eta hirugarren zikloko neska-mutikoek. Joango dira Gorbeiako naturaren interpretazio zentroa ezagutzera, "naturaz gehiago jakiteko asmoarekin".

Eta bestetik, barikuan, maiatzaren 18an, Arrasaten dute hitzordua Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleek. Kasu horretan, eta azken urteotan egin duten moduan,euskal kirolak eta antzinako jolasak ezagutu eta praktikatuko dituzte aramaioarrek, Debagoieneko Goieskolako bestelako neska-mutikoekin batera.

Bi ekitaldi horiez gainera, hil honen hasieran egon ziren Eskoriatzako Ibarraundi museoan, hango Historiaurrearen gainekoak ikusten eta ikasten.

GUREL > UDABERRIRAKO EKITALDIAK

Urkiolara joango dira domekan, guraso eta umeak

Ikastaro bi egingo dituzte, euskal dantzak eta masajeak, eta Balmasedara irteera uztailean

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Egun pasa polita antolatu du Gatzagako guraso elkarteak domekarako, mendi buelta Urkiola inguruan. Autoetan joango dira gero mendian ibiltzeko.

UME ZEIN GURASOAK DANTZAN

Joan zen astean izan zuen batzarra Gurel elkarteak, eta hemendik eta abuztura bitartean egingo dituzten ekitaldi garrantzitsuenak lotuta utzi zituen. Domekako mendi irteera da lehenengoa. Urkiola aldera joango dira automobiletan, eta han Pol-Pol iturriraino hurreratuko dira, Zabalaundi ingurura. Eguraldiak lagunduko dien itxaropenarekin paisaiarekin gozatu eta ondo pasatzera doaz gatzagarrak.

Datozen asteotan, ostera, ikastaro bi egingo dituzte herrian. Batetik, euskal dantza ikastaroa oinarrizko dantzak ikasi eta erromeriatan dantzan egiteko. Gatzagako, bertako, Idoia Armendarizek erakutsiko die, eta ume zein gurasoendako izango da.

Ume txikiei masajeak ematen ikasteko ikastaroa da bestea. Data zehazteko dute oraindik biek, baina lehenbailehen egin gura dituzte, egubakoitz iluntzean edo zapatu goizean.

UZTAILAREN 7AN, BALMASEDARA

Udaberrian edo ikasturte bukaeran irteera egitea dute ohitura Gatzagan, eta noiz eta nora egin erabaki zuten. Uztailaren 7an izango da, eta Balmasedara joango dira. La encartada txapel lantegiari bisita egin, herriko eraikin esanguratsuenak eta txokorik politenak ezagutu eta arratsaldean hondartzara. Autobusa hartuta joango dira orduan.

UDALEKUAK Gatzagako ume eta gaztetxoak kamisetak margotzen hasteko gertu joan zen uztailean. GUREL

Bestalde uztailean egingo dituzten udalekuak ere lotu zituzten. Ludoteka eta liburutegiko arduradun den Alazne Diazen eskuetan utzi dute. "Gurasoak gustura daude aurreko urteetako antolakuntzarekin hortaz antzekoa egingo dugu", dio Gurutze Orbegozo presidenteak. Hala, herrian antolatutako ekintzez gain irteerak egingo dituzte Gamarra edo Landa aldera.

KIROLAK > PILOTA TXAPELKETA

Gaur joango dira pilotari gazteak Amurriora txapelketaren bigarren zatia jokatzera

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gaur, 18:30ean, jokatuko dute herriko pilotari gazteek txapelketa Amurriokoen aurka.

14 MUTIKO AMURRIORA

Otsailean jokatu zuten txapelketaren lehen zatia etxean. Lehenengo txapelketa zuten gatzagarrek, eta zortzi partidutatik bi bakarrik irabazi zituzten. Orain errebantxa hartu gura dute, eta entrenamendu saioetan gogor lan egin ondoren emaitza onak ekarri gura dituzte Belokiren mutikoek. 14 pilotari joango dira gurasoekin batera, eta emaitzak albora utzita, zalantza barik jai giro polita biziko dute Amurrio aldean.

AFIZIONATUENDAKO TXAPELKETA

Bestalde, herriko pilotari afizionatuendako urtero antolatzen duten eskuz binakako txapelketa ekainean jokatuko dute. Ekainaren 9an eta 10ean izango dira partiduak, eta izena aurrez ematea komeni da Labidea dendan. 12 euro ordaindu behar du bikoteak.

> UDALA

Ekainaren 11 arte ikusgai Arlaban gaineko plana eta arau aldaketa

Arlaban gaineko plan bereziaren dokumentua eta lur hiritar ezinari dagokion arau subsidiarioen aldaketarena oraindik ikusgai daude Gatzagako udaletxean. Haserako onespena onartu zuen Udalak martxoan, eta orain erabaki du jende aurreko erakuskeeta luzatzea ekainaren 11 arte. Dokumentu biak udaletxeko idazkaritzan dituzte gura duenak azter dezan.

> INTERNET

Elkartasun kontuak zela bilatu sarean azalduko dute KZgunean

Hilaren 21ean dute hurrengo hitzordua gatzagarrek KZgunean. *Sarean* delako ikastaroa egingo du Aitor Madrid arduradunak, 10:00etatik 11:00etara bitartean. Zela topatu elkartasun ekintzak, taldeak eta bestelakoak Interneten azalduko die elkartutakoei.

Hurrengo ikastaroa ekainaren 4an izango da, eta Interneten irratia sintonizatzen eta telebista ikusten erakutsiko du.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

Dorletako Ama Txirrindularitza Elkartea 06-07
astelehen honetan,
Asteleheneko Goienkaria-rekin

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.
Oraingo astelehenean, maiatzak 14, Dorletako Ama Txirrindularitza Elkartearenak argitaratuko ditugu.Taldeko txirrindulari guztiak argazki handi batean, txirrindulari eta arduradunen izen-abizenekin jasoko duzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria.*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

MENDIKO BIZIKLETA > EUSKADIKO SPIUK BTT OPENA

Arrasateko lasterketa, Openeko zirkuitu erakargarrienarekin

Domekan egingo dute Euskadiko Spiuk BTT Openeko bosgarren lasterketa, Arrasaten. 11:30ean hasiko dute elite mailako ziklisten lasterketa

IGOR BAZ Iazko ekitaldian, Ikutixoko erreka ondotik jaisten. XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Lehenago, baina, (09:30) kadeteen, juniorren eta emakumezkoen lasterketa egingo dute. Lehenengoek bi itzuli egingo dituzte Olandixo eta Ikutixo artean prestatu duten zirkuituan barrena –zirkuituak 8 kilometro ditu–, eta juniorrek eta kadete mailakoek, berriz, hiru itzuli egingo dituzte. Lasterketa horretan, gertutik jarraitu beharko da Lizarralde taldeko mutilek egingo duten lana.

ELITEA, 11:30EAN

Gazteen lasterketak eta gero etorriko da proba nagusia. Elite mailakoekin batera lehiatuko dira 23 urtez azpikoak, master 30 kategoriakoak eta baita master 40koak ere. Joan den urteko probarekin alderatuta, ibilbideari dagokionez aurten ez dute aldaketarik egin; hala ere, ziklistek ez dute joan den urteko zirkuitua aurkituko: "Azkeneko asteotan oso eguraldi txarra egin du, eta zirkuitua goitik behera aldatu da. Joan den urtean jendeak asko gozatu zuen, jaitsiera polita jarri genuelako. Bada, garbi esan dezakegu Arrasatekoa Openeko zirkuitu erakargarriena dela, eta gainera, oraingo jaitsiera iazkoa baino askoz ere teknikoagoa da", esan digu domekan irteera-marran egongo den Felix Zugasti arrasatearrak.

GOGOR LANEAN

Aurten, Euskadiko Openak Spiuk etxearen babesa du, eta horrekin batera, lasterketa horietan eskuratzen diren puntuak baliagarriak dira UCIren rankingerako: "Hori dela-eta, lasterketa antolatzeko diru gehiago behar izan dugu, eta hori lortzeko babesle gehiagoren bila ibili behar izan gara. Alde horretatik, eskerrak eman gura dizkiegu lasterketa antolatzen lagundu diguten guztiei". Dirua lortzen bakarrik ez, zirkuitua txukuntzen ere lanean ibili dira egunotan, domekan dena gertu egon dadin.

EDERRAKO ZORTZI

Antolatzaile lanak egitearekin batera, lehian ere ikusiko ditugu Ederrako mutilak: Felix Zugasti, Iñigo Roldan, Oscar Oncala, Igor Lazkano, Igor Baz, Zigor Urain, Oier Garro eta Jon Altunak osatzen dute taldea. Eurekin batera lehiatuko da, baita ere, Jose Angel Lopez arrasatearra, master 40 kategorian.

Lasterketa irabazteko faboritoen gainean, joan den urtean Unai Yus erraz nagusitu zen Arrasaten, ziklista gasteiztarrak ez zuen kontrariorik izan. Aurten, baina, BH-Aidazu taldeko mutila ez dabil horren indartsu. Ezustekoa ematen dabiltzan ziklisten artean daude, berriz, Patxi Cia (Bikezona-Conor), Raul Serrano (Conor-Saltoki), Joxean Garrido (Spiuk), edota Asier Apezetxea (Conor-Saltoki).

Orain arteko hiru lasterketetan, Patxi Cia eta Raul Serrano ikusi ditugu podiumeko lehenengo mailan. Serranok estreinaldi ederra egin zuen Bearinen (Nafarroa), baina Ciak errelebua hartu zion Erandion (Bizkaia). Obanosen (Nafarroa) errekuperatu berri du Serranok liderraren maillota, eta Arrasatera lidergoari eusteko asmoarekin etorriko da. Gogotik izerditu beharko du.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila
Zarautz-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Asti.

Aloña Mendi-Trintxerpe.
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Zestoa-Mondra
Zapatua. 17:30. Zubiaurre.

Lehen erregionala
Bergara-Allerru
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Bigarren erregionala
Elgeta-Mariño
Zapatua. 15:30. Unbe.

Intxurre-Antzuola
Zapatua. 16:00. Elorri.

Bigarren erregional. Kopa
Zestoa-Aretxabaleta B
Domeka. 16:30. Zubiaurre.

Mondra B-Eibartarrak B
Domeka. 18:00. Atxabalpe.

Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea
Beti Gazte-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Lesaka.

Mondra-Martutene
Zapatua. 16:00. Atxabalpe.

Aretxabaleta-Anaitasuna
Zapatua. 17:00. Ibarra.

Ohorezko mailako gazt. Jaitsiera fasea eta Kopa
Bergara-Zumaiako
Zapatua. 18:30. Agorrosin.

Lehen mailako gazteak
Arizmendi Aretx.-Behobia
Zapatua. 15:00. Ibarra.

Gazteak. Kopa
Urki-Antzuola
Zapatua. 12:00. Eibar.

Arrasate-Eibartarrak
Domeka. 16:00. Atxabalpe.

Zestoa-Bergara
Domeka. 12:00. Zubiaurre.

Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea
Reala-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 10:00. Zubieta.

Tolosa-Bergara
Eguaztena. 19:00. Berazubi.

Ohorezko mailako kadet. Kopa eta jaitsiera fasea
Allerru-Arrasate
Zapatua. 12:30. Lezo.

Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

Kadeteak, Kopa
Bergara B-Zestoa
Zapatua. 12:15. Ipintza.

Ohorezko mailako infant. Txapeldunen fasea
Arizmendi Aretx.-Hondarrib.
Zapatua. 19:00. Ibarra.

Ohorezko infantilak. Kopa eta jaitsiera fasea
Urola-Aloña Mendi
Zapatua. 13:00. Argixao.

Arrasate-Añorga.
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

Infantilak, igoera
Bergara-Herrerako Sport.
Domeka. 12:00. Ipintza.

Emakumezkoen igoera fasea
Mondra-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Atxabalpe.

Tolosa-BTLS
Zapatua. 17:30. Usabal.

Emakumezkoen Kopa
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 11:30. Azkoagain.

Emakumezkoen F-11
Gasteiz Cup-Arizmendi Aret.
Zapatua. 12:00. Betoño.

Aloña Mendi-Zarautz
Zapatua. 10:00. Azkoagain..

Emakumezkoen F-8
Arizmendi Aretx.-Ekintza
Zapatua. 09:30. Almen.

Alebinen Txapeldunen fasea.
Aloña Mendi-Ordizia
Domeka. 10:30. Ibarra.

Bergara-Lagun Onak
Domeka. 10:30. Ipintza.

Arrasate-Beasain
Domeka. 10:30. Atxabalpe

Alebinak. Kopa
Aretxabaleta-Urko
Domeka. 10:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

Euskal Liga
Grupo Ikusnet-Eskoriatza
Zapatua. 19:00. Iparralde.

Euskadiko lehen maila
Trans. Lakunza-Aloña Mendi
Zapatua. 18:30. Billabona.

Gazte maila
Aloña Mendi-Deutsche Sch.
Gaur. 22:30. Zubikoa.

SASKIBALOIA

Lehen maila
Ocaso Berrio-Mugarri Alkesa
Zapatua. 19:00. Bilbo.

Gipuzkoako senior maila
Allerru-Candy BKE
Gaur. 20:00. Lezo.

Aloña Mendi-Ainhoa Tab.
Zapatua. 19:15.Zubikoa.

Ointxe Arrasate-Gabi Jat.
Zapatua. 16:00. Musakola.

Emakumezkoen senior maila. Lauko Finala.
Internacional-Cafes Aitona.
Zapatua. 18:00. Eskoriatza.

Eskoriatza-Anorga
Zapatua. 20:00. Eskoriatza.

Finala domekan. 12:00. Esko.

Gizonezkoen gazte maila
Mugarri Alkesa-Cafes Aitona
Zapatua. 10:00. Musakola.

Aloña Mendi-Goierri Verkol
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Gizonezko kadeteak
Caldereria Z.-Ford Mugarri
Zapatua. 11:30. Azpeitia.

Atletico-Bergara
Zapatua. 10:00. Donostia.

Aloña Mendi-Easo Basoa
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Infantil maila, gizonezkoak
Arizmendi A-Tolosa A
Zapatua. 12:00. Musakola.

Aloña Mendi-LEK B
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Arizmendi A-Goierri
Zapatua. 10:30. Musakola.

LEK A-Ikasi ISB
Zapatua. 10:30. Musakola.

Bergara 94-BKL
Zapatua. 11:00. Mariaren L.

Infantil maila, emakumezkoak
LEK D-BKL A
Zapatua. 12:00. Musakola.

LEK A-Andraitz B
Zapatua. 10:30. Musakola.

LEK E-Laskorain
Zapatua. 12:00. Musakola.

LEK B-BKL D
Zapatua. 11:00. Intxaurtxu.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketarako igoera fasea
Bergara-Gaztelueta
Zapatua. 18:30. Labegarai.

Euskadiko Txapelketako Kopa
Ford Mugarri-Urola
Zapatua. 19:00. Iturripe.

Lehenengo eta Bigarren territorial mailako Kopa
Arrasate-Ormaiztegi
Zapatua. 17:30. Iturripe.

Pulpo-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Zumaia.

Emakumezkoen senior mailako Kopa
Ereintza-Verkol Aloña
Zapatua. 16:30. Donibane.

Verkol Aloña-IES Construc.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Gazte maila, Kopa
Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Pulpo-Gatz Museoa Jakion
Zapatua. 10:30. Zumaia.

Emakumezkoen gazteak
Elgoibar-Verkol Aloña Mendi
Zapatua. 19:00. Olaizga.

ATLETISMOA

Arrasate-Oñati
Laixanek antolatzen duen euskararaen aldeko lasterketa. Zapatun. 18:30. Garibain (Arrasate).

Otala Zelai krosa
Domeka. 11:00. Urkulu.
Lehenago gaztetxoen lasterketak egingo dituzte.

3x3 TXAPELKETA

Saskibaloiko 3x3 txapelketa
Ointxe Saskibaloi taldeak eta Leintz Eskola Kirolak 3x3 txapelketa egingo dute bihar, goiz eta arratsalde, Laubiden (Arrasate).

PILOTA

Buruz Buruko Txapelketa barruan, pilotari profesionalak
Domeka. 17:00. Bergara
Titin III - Goñi III
Xala - Pascual

Olaizola II - Patxi Ruiz

Galarza VI - Zubieta.

MENDIKO BIZIKLETA

Euskadiko Spiuk Opena
Domekan, Arrasateko Olandixoko zelaian.

09:30. Kadete, gazte mailako eta emakumezkoen lasterketa.

11:30. Elite, 23 urtez azpiko, master 30 eta master 40 kategorietako lasterketa.

AUKEA SARIAK

Sari banaketa
Domeka. 12:30. Musakola.

FUTBOLIN TXAPELKETA
Saria: Mercedes SE 400 edo 5.000 euro txapeldunarentzat
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)
BTLS JOKU AUTOMATIKOAK
www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051
Antzuola: Mox – Surpe Aretxabaleta: Haizea – Izotz – Kixkor Arrasate: Biona – Iturriotz Equs – Udala – Wiskeria Bergara: Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor Eskoriatza: Aldatz – Naira Oñati: Arrano – Ongi – Otamendi

> ATLETISMOA

Arrasate-Oñati lasterketa egingo dute bihar

Laixan euskara elkarteak antolatuta, bihar egingo dute 25. Arrasate-Oñati lasterketa (18:30ean, Garibai paseale-kuan). *Jantzi kirola euskaraz* lelopean, antolatzaileek aurreikusten dute 200 korrikalari inguru animatuko direla bi herri horiek banatzen dituzten 11,7 kilometroak egitera.

>ATLETISMOA

Aretxabaletako Otala Zelai krosak 29 urte egingo ditu domekan

Domekan egingo dute (11:00) Otala-Zelai krosa. Korrikalariak Otala-zelain hasiko dira korrika, eta urtegiraino jaitsi eta itzulia egin eta gero berriro ere gora egingo dute (8,4 km). Nagusien lasterketa baino lehenago, gaztetxoen lasterketak ere egingo dituzte.

> ESKOLA KIROLA

LEKek eta Ointxek 3x3ko Txapelketa antolatu dute biharko

Urteroko hitzorduari jarraituz, Leintz Eskola Kirolak eta Ointxe Saskibaloi Taldeak bihar egingo dute 3x3 Saskibaloi Txapelketa.

Antolatzaileen esan digute 120 taldek eman dutela izena. Laubiden jarriko dituzten saskietan jokatuko dute txapelketa, goiz eta arratsalde.

> PILOTA

Domekan, Olaizola II.a eta Patxi Ruiz Bergaran

Olaizola II.ak eta Patxi Ruizek Buruz Buruko Txapelketako final laurdenetako bat jokatuko dute domeka arratsaldean Bergaran (17:00). Txapelketako beste norgehiagoka Zarautzen izango da, zapatuan. Hala, partidu horretan Bengoetxea VI.a eta Gonzalez lehiatuko dira.

> ZIKLISMOA

Bihar, Irizar eta Velasco Giroko irteera puntuan izango dira

Bihar bertan hasiko da Giroko 90. edizioa, eta Euskaltel taldeko Markel Irizar eta Iban Velasco dira proba horretarako aukeratutako txirrindularietako bi. Eguaztenean bertan abiatu ziren Italia aldera, Sardiniara, hain zuzen. Biharko etapa Caprera eta Madalena arteko erlojupekoa izango da (24 km).

SASKIBALOIA > LAUKO FINALA

Eskoriatza, Internacional, Cafes Aitona eta Añorga aurrez aurre Lauko Finalean

Bihar arratsaldean jokatuko dituzte finalera sailkatzeko kanporaketak

Eskoriatzak Añorgaren kontra neurtuko ditu indarrak, 20:00etan, Intxaurtxuetan

BIGARREN Joan den astean Cafes Aitona mendean hartuta, Eskoriatza bigarren sailkatu da Ligan. GOIENKARIA

XABIER URTZELAI > ESKORIATZA

Lau urte igaro dira Eskoriatzako neskek Lauko Finala jokatu zutenetik. Orduan, lehenengo kanporaketa gaindituta, finalean Astigarragako neskak nagusitasun handiarekin gailendu ziren. Aurten ere Eskoriatza ez da faboritoa, Internacional edo Añorga moduko taldeek Ligan indartsuak direla erakutsi dutelako. Baina, egun ez dago orain dela lau urte talde batetik bestera zegoen aldea, parean daude indarrak, eta etxean jokatzen dutela aprobetxatuta, Eskoriatzak ezustekoa eman dezake. Horretarako, behar beharrezkoa dute etxeko zaleen babesa.

BIGARREN NAZIONAL MAILA

Eskoriatzako neskek helburu hori dute buruan, mailaz igotzea. Taldeko kide Fernando Rasoren esanetan, baina, domekako finalera sailkatzeko lehenengo Anorga hartu behar dute mendean: "Zapatuan, 18:00etan jokatuko dute Cafes Aitona taldeak eta Internacionalek. Eta, 20:00etan jokatuko dugu guk, Añorgaren kontra. Egia da Ligan Añorgak birritan irabazi gaituela, baina ondo jokatuz gero, Eskoriatzak izango du bere aukera".

Zapatuko bi talde onenak sailkatuko dira domekan jokatuko duten finalerako (12:00). Hala, Lauko Finala girotzeko Rasok badaki gainontzeko taldeek zale asko ekarriko dituztela Intxaurtxuetara: "Badakigu bi taldek Mendigoian igaroko dutela asteburua, kontzentratuta. Eta, zaleak autobusean etorriko direla, animatzera. Hala, guk etxean jokatzen dugunez, eskoriatzarren eta ibarreko saskibaloi zaleen babesa beharko dugu. Giro polita egongo da Intxaurtxuetan, duda barik".

COPRECI
COPRECI Koop. Elk.

2007ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra Gesalibarko Aita Menni ospitalean, Areto Nagusian, egingo da 2007ko maiatzaren 18an, 15:30ean lehen deialdian eta, kasua balitz, bigarrenean, 16:00etan, egun eta toki berean, eguneko gai zerrenda honen arabera:

GAI ZERRENDA
1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
   2.1. 2006ko Gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2007ko Gestio Plana onartzea.
3. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2006ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5. 2006ko Emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko Xedapen Estatutarioak.
7. Kooperatibaren Estatutu Sozialaren 24. artikuluaren aldaketa.
8. Kooperatibako Barne Erregelamenduaren 26.1a), 45.4, 50.4, 55.3 eta 89.2 l) artikuluen aldaketa.
9. Kontseilu Errektorearen jakinerazpenak. Fagor Taldea berregokitu eta indartzeko proiektua.
10. AHKTk aurkeztutako Araudia.
11. Entitateen gaiak
    11.1. MCC
    11.2. Euskadiko Kutxa
    11.3. Lagun-Aro
12. Kanpoko Auditoreak izendatu.
13. Kontseilu Errektorea berritzea.
14. Zaintza Batzordea berritzea.
15. Kontseilu Soziala berritzea.
16. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Idazkaria

Aretxabaletan, 2007ko apirilaren 26an

Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek berei dohainik eskuratu edo bidaltzekoa

ULMA
ULMA C y E, Koop. E. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

D E I A
Eguna: 2007ko maiatzaren 18a
Ordua: 12:00etan lehen deialdia eta 12:30ean bigarrena
Tokia: KURSAAL Elkarguneko Auditorioa–Donostia

GAI ZERRENDA
1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea
2. 2006ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2007ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2006ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. Soberakin garbiak banatzea
6. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoen (HKSF) erabilera
7. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak
8. POGU IIIren, III. tituluaren 2.1.2 eta 2.2 atalak aldatzea, hala badagokio
9. ULMA C y E, Koop. Elkartearen banaketa
10. Auditore izendatzea
11. Estatutu Sozialen 13 eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio
12. Kooperatibaren Barne Araudiaren 6 eta 82. artikuluak aldatzea, hala badagokio
13. Ekonomia araubideko Estatutu Xedapenak
14. Mendeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
15. Kontseilu Errektoreko lehendakaria izendatzea
16. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
17. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
18. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
19. Galderak eta eskaerak

Oñati, 2007ko maiatza

OHARRAK: Urteko kontuak agertzen dituzten dokumentuak, egoitza sozialean azter daitezen, bazkideen eskura daudela jakinarazten da.
Bestalde, proposatu diren estatutu aldaketen testu osoa eta aldaketa horien txosten justifikatzailea, ULMA C y E, Koop. Elkarteko egoitza sozialean aztertzeko edota doan bidali edo ematea eskatzeko bazkide guztiek eskubidea dutela jakinarazten da.
Era berean, ULMA C y E, Koop. Elkartearen banaketari dagokionez, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legeko 78. artikuluan aipatzen diren dokumentu guztiak, egoitza sozialean aztertzeko edota doan bidali edo ematea eskatzeko bazkide guztiek eskubidea dutela jakinarazten da.

Debagoieneko **GREMIOAK**



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

RELE
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABALETA ITURGINTZA
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

LEIHATEK
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

DAVILA MARGOAK
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

> ANTZERKIA
Lapurzuloa Elgetan eta *El chico de la última fila* Arrasaten **> 45**

> KOMUNIKAZIOA
Hauteskundeei eskainitako atal berezia *goiena.net* atarian **> 51**

> LEIRE FERNANDEZ
Arte Ederretako doktoretza tesian, marken logotipoen gaineko lanarekin *Cum Laude* emaitza jaso du. Arte Ederretako fakultatean irakasle dabil oñatiarra **> 50**

Euskal Argazkilaritza Federazioak kongresua egingo du bihar, zapatua, Bergaran

Argizaiola 2007 lehiaketako sariak banatuko dituzte

Debagoieneko argazkizale talde bakarrak dira Bergarakoa eta Aretxabaletakoa

Argazkizaleen topagune Bergara



ALEX AZKARATE

EDU MENDIBIL > BERGARA

Euskal Argazkilaritza Federazioak kongresua egingo du bihar, zapatua, Bergaran. Bigarren aldiz, Pol-Pol Argazki Taldeak izango du kongresua antolatzeko ardura. Euskal Herri osotik etorritako 50 argazkizale inguru batuko dira Pol-Pol Mendizale taldearen egoitzan, 09:30ean hasita. Hain zuzen ere, Pol-Pol Mendizalearen baitan sortutako taldea da Bergarako argazkizaleena. 1970eko hamarkadaren hasieran jarri zuten abian herriko hainbat zalek eta Serafin Esnaola apaiza zenak.

Gaur egun Debagoieneko argazkizale talde bakarrak dira Bergarakoa eta Aretxabaletakoa. Arrasaten ere egon izan da, baina Asa taldeak ez du jarraitzen dagoeneko.

TALDE BETERANOA BERGARAKOA

Pol-Pol Argazki Taldeak lokal propioa dauka 1994tik. Astelehenero biltzen dira Zabalotegi kaleko 5. zenbakian. Gaur egun Juan Antonio Untzurruntzaga da taldeko presidentea. Bera da taldeko beteranoenetako bat, Agustin Gurrutxagarekin batera.

Biharko kongresuaren ostean, argazki zaleek bazkaria izango dute Pertxa elkartean. Bazkalostean, aurtengo Argizaiola sarien banaketa ekitaldia egingo dute. Argizaiola lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da Euskal Argazkilaritza Federazioaren gonbidapena. Eta horretarako beharrezkoa da Federazioak babestutako lehiaketaren baten sariren bat jasotzea. Debagoienera etorrita, bi dira Federazioak babestutako lehiaketak, biak Bergarakoak: Kirol Argazkien Lehiaketa (14 ekitaldi ospatu dira dagoeneko) eta Bergara Hiria (22. ekitaldira iritsi dena).

Argazkizaleen topagune Bergara

(43. orrialdetik dator)

Argizaiola lehiaketako aurtengo irabazlea Bergaran askotan saritua izan den Javier P. Fernandez Ferreras izan da. Berangoko argazkizaleak 600 euro eta garaikurra jasoko ditu bihar. Josu Izarra gasteiztarrak eta Xabier Arribas irundarrak jasoko dute bigarren eta hirugarren sariak, hurrenez hurren. Argizaiola lehiaketara aurkeztutako lan onenen erakusketa ikusgai izango da Pol-Pol Mendizale Taldearen egoitzan, maiatzaren 20ra arte.

Era berean, Espainiako Argazkilaritza Konfederazioaren artista tituluak banatuko dituzte. Saritutako bost euskaldunen artean bi bergarar daude: Juan Antonio Untzurruntzaga eta Benito Cantero.

ARGAZKI KAMERA ZAHARRAK

Bestalde, ekainaren 1etik 10era Aroztegi aretoan egingo den Bergara Hiria lehiaketaren erakusketarekin batera, antzinako argazki kamerak eta argazkilaritzako materiala ikusgai jarri nahi dute antolatzaileek. Beraz, dei egiten zaie materiala uzteko gertu diren zaleei Pol-Poleko kideekin harremanetan jartzeko. Jasotako materiala behar den bezala babestuta eta bitrina egokietan ikusgai jarriko dutela adierazi dute antolatzaileek. Materiala jabearen izenarekin identifikatuta egongo da erakusketan. Argibideak 943 76 30 90 zenbakian (eguerdian edo gauean).

'TXITXAR' Argizaiola lehiaketan saritutako lanetako bat. JAVIER P. FDEZ. FERRERAS

AURKEZPENA Telesforo Zuriarrain, Gonzalez de Txabarri eta FMRko David Prieto astelehenean, Donostian. ARGAZKI PRESS

ARTEA > ARGITALPEN BERRIA

Arantzazu aurkeztea helburu duen liburua

'Arantzazuko Santutegia' liburua kaleratu du Italiako FMR argitaletxeak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz

E.M.> BERGARA

Artean espezializatutako Franco Maria Ricci (FMR) italiar argitaletxeak *Arantzazuko Santutegia* liburua argitaratu berri du. Diputazioko Foru Aldundiaren enkarguz egindako lana da. Nazioartean Arantzazu ezagutzera ematea izan da Diputazioaren asmoa eta helburu horrekin 200.000 euro jarri ditu liburua plazaratzeko.

Liburuaren 4.500 ale kaleratu dituzte, horietatik 500 luxuzko edizioan. Era berean, 3.000 liburu euskaraz eta gaztelaniaz aterako dira eta beste 1.000 ingelesez eta frantsesez. Arantzazuko Santutegian jarriko dira salgai, 60 euroren truke. Euskal Herritik kanpo FMR argitaletxeak banatuko ditu eta 120 eurotan salduko dira liburuak.

TESTU ETA IRUDI BIKAINAK

Liburuan lau idazleren lanak jasotzen dira: Joseba Intxaustik santutegiaren jatorria eta etapa ezberdinak aztertu ditu *500 urteko historia* izenburua duen testuan; berpizkunde garaitik gaur egun arte kulturagune moduan Arantzazuk izan duen garrantzia jorratu du Joxe Azurmendik *Arantzazu, gizartea eta kultura* testuan; hirugarrenik, Javier Garrido frantziskotarrak santutegiaren espiritualtasunaren gainean idatzi du; eta, azkenik, Miguel Alonso Del Val arkitektoak Arantzazuko artea eta arkitektura hizpide izan ditu.

Testuak bezain garrantzitsuak dira liburuko argazkiak. Arantzazuk izan duen bilakaera erakusten duten irudi historikoekin batera, Roberto Biganok bereziki liburu honetarako egindako argazkiak jasotzen dira.

Astelehenean Donostian egindako aurkezpenean, Telesforo Zuriarrain Arantzazuko Frantziskotarren elkarteko zaindariak adierazi zuenez, "liburua opari bat izan da, bai guretzat eta bai Euskal Herri osoarentzat. Sortzen ari den Arantzazu berriarentzat oso baliagarria izango da eta Txabarri diputatuari eskerrak eman nahi dizkiot, bera izan delako bultzatzaile nagusia".

ARANZADI ikastola

T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuaren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2007ko ekainaren 20an egingo da, 18:00etan lehen deialdian eta, hala balegokio, 18:30ean bigarren deialdian, Bergarako San Martín Plazako UNEDeko Areto Nagusian (Plazako atetik sartuz).

GAI ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea
3. 2006/07 ikasturteko memoria
4. 2007/08 ikasturteko egitasmoa
5. 2006. urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balego kio, onestea
6. Soberakinen banaketa
7. 2007. urteko aldizkako kuoten onarpena
8. Galde-erantzunak

Bergaran, 2007ko maiatzaren 3an

Angel Mari Eguren Ugalde
Lehendakaria

LKS

LKS INGENIERIA, S. KOOP.

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Eguna: 2007ko maiatzaren 25ean
Ordua: 10:30ean lehenengo deialdia, 11:00etan bigarrena
Tokia: Arantzazuko Gandiaga Topegunea Ekitaldi Aretoa (Oñati)

GAI ZERRENDA

1 - 2006ko maiatzaren 19ko Ohiko Batzar Nagusiko Aktaren onespenari buruzko txostena.
2 - Aktaren onespenerako bazkideak izendatzea.
3 - 2006ko ekitaldiko memoria, emaitzen balantze eta kontuak eta Gestio Txostena aztertu eta onartzea.
4 - Soberakin erabilgarrien banaketa.
5 - Heziketa eta Sustapenerako Fondoa banatzea.
6 - Ekonomi Erregimeneko Estatutu Xedapenak.
  - Ekarpenak
  - Kapitalerako ordainketa
  - Kapitalerako ekarpenen eguneratzea
7 - Estatutu Sozialaren aldaketak onartzeko proposamena.
8 - Kontseilu Errektorearen Estatutu-berriztapena.
9 - Kontseilu Sozialaren Estatutu-berriztapena.
10 - Estatutuaren arabera Zaintza Batzordea berritzea.
11 - Kontu-auditoreak izendatzea.
12 - Ingeniaritza eta Zerbitzuen Dibisio kooperatiba elkarteari buruzko txostena.
13 - MCCri buruzko informazioa.
14 - Galderak eta eskaerak.

Jon Igarza
Lehendakaria

EUSKAL AKTOREAK Argazkian euskal antzoki eta telebista ekoizpenetan ezagunak egin diren hainbat aktore. KANPINGAGS

ANTZERKIA > KANPINGAGS TALDEAREN 'LAPURZULOA'

Lapur xelebre batzuen gaineko komedia

Gaur, egubakoitza, Kanpingags taldeak *Lapurzuloa* antzezlana egingo du Elgetan; oso aktore ezagunek esku hartuko dute ikuskizunean

IKER BARANDIARAN> ELGETA

Elgetako eta inguruetako antzerki zaleek aukera izaten dute egubakoitzetan antzezlanetaz eta antzeko ikuskizunetaz gozatzeko. Hala, gaur, egubakoitza, ere izango da horretarako aukera. Kanpingags taldeak *Lapurzuloa* antzezlana egingo du Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean.

Lapurzuloa Stephen Adly Guirgis idazlearen *Den of thieves* lanetik egokitu dute. Jatorrizko lanak arrakasta handia izan du herrialde anglosaxoietan, Ingalaterran eta AEBetan, hain zuzen ere. Egileen esanetan, berez lana AEBetako gizartearen satira bat da, baina Kanpingags taldeak euskaldunok gure buruei barre egiteko elementuak batu dizkio ikuskizunari.

AKTORE OSO EZAGUNAK

Ikuskizun horren zuzendaria Carlos Zabala da, eta taldean Euskal Herriko aktore oso ezagunek lan egingo dute: Asier Hormaza, Joseba Apaolaza, Kontxu Odriozola, Itziar Ituño, Kandido Uranga, Asier Sota, Patxi Barco, Ainhoa Aierbe eta Ainhoa Garaik, hain zuzen ere.

Komedia beltza eta samurra, garratza eta atsegina da. Obsesioak jotako lau pertsonaiaren bizitzak gurutzatuko dira. Mota guztietako terapiak probatuko dituzte: jateari, erretzeari, lapurtzeari uzteko... Eta arazo horiek burutik kendu ezinda dabiltza guztiak.

Halako batean, lapurreta erraza egiteko aukera izango dute eta itsuturik lapurreta egingo dute. Baina lapurtutako dirua mafiarena da. Mafiak gure pertsonaiak harrapatuko ditu, eta lauretako baten heriotza eskatuko du. Horregatik, honako gogoeta egingo dute: zer galduko luke munduak horietako bakoitzaren heriotzarekin?

ANTZERKIA > UR TALDEAREN 'EL CHICO DE LA ULTIMA FILA'

Gauzak atze-atzetik ikustearen joko berezia

Etzi, domeka, antzezlana egingo dute Amaia Udal Antzokian, 19:30ean

I.B.> ARRASATE

Arrasaten domekatan dago ohitura antzerkia ikusteko. Hala, etzi, domeka, Ur taldeak *El chico de la ultima fila* antzezlana egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

Ikuskizun horren egilea Juan Mayorga idazle madrildarra da, eta antzokietara eramateko idatzi zuen berak. Mayorgak antzezlan ugari idatzi ditu, eta lan horiengatik hainbat sari jaso ditu.

IRAKASLE ETA IKASLE BANA

Batxilergoko irakasle batek ikasleen idazlanak zuzentzen dabilela ezuste bat izango du. Idazlan guztiak oso txarrak direla iruditu zaio, bat jaso artean. Zur eta lur gelditu da idazlan horrekin: oso ondo idatzita egongo da.

Hortik aurrera, irakaslearen eta ikasle horren artean oso harreman estua sortuko da. Maisuen eta ikasleen arteko paperak nahastu egingo dira hainbat alditan.

Egilearen esanetan, ikuskizun horrek irudikatzen du beste batzuen bizitza kanpotik ikusteak eragiten duen gozamena; eta literatura bizitzarekin nahasteak dakarren arriskua. Hori guztia errealitatea azkeneko ilaratik ikusten dutenen figurarekin islatzen du.

HELENA PIMIENTA, ZUZENDARIA

Antzezlanaren zuzendaria Helena Pimienta da. Pimienta 1978. urtetik dabil antzerki zuzendari lanetan. Lehenengo Atelier taldearekin; eta 1987tik gaur egunera arte Ur taldearekin.

Aktoreei dagokionez, Arrasaten egingo duten ikuskizunean honako hauek lan egingo dute Amaia Udal Antzokiko agertoki gainean: Ramon Bareak, Carlos Jimenez-Alfarok, Luisa Pazosek, Jose Tomek, Ignacio Jimenezek eta Natalie Pinotek, hain zuzen ere.

UR Izen handia hartu du Ur antzerki taldeak. UR TALDEA

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
• Ibargarai 74 m². Oso ondo.
• Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
• Masterreka 92 m². Ondo.
• Osintxu 80 m². Berritua.
• Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
• San Pedro 110 m². Estreinatzeko.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• San Pedro 65 m². Prezio ona.
• Aranerreka 87m². Oso ondo.
• Simon Arrieta 80 m² Ondo.
• Zubieta 60 m². Prezio ona.
• Ortuibar 97 m². Oso ondo.
• Osintxu 95 m². Prezio ona.
• Zubiaurre 60 m². Berritua.

Elgeta:
• Etxebizitza berrien eraikuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.
• San Roke 90 m². Berritua.
• Salbador 90 m². Igogailuarekin.
• San Roke. Prezio ona.

Alfa INMOBILIARIA HIPOTECAS
Parrokia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89
ARRASATE
• Uribe Auzoa. 3 logela, sukaldea eta bainugela.58.000.000 negoziagarriak.
• San Andres. 37.000.000
• Loramendi torrea.
• Uriburu. 3 logela. 38.000.000
• Galizia kalea. 3 logela, ganbara. 27.000.000
• Santa Marina.Primerako etxebizitza. 36.000.000
• Jauregi Barria. 72 m2, garaje berritua. 42.000.000
• Zentroan. Etxebizitza berria, logela bat, igogailua.
• Zentroan. 115m2, garajea.
• Erguin. Lokala
ESKORIATZA
• Zentroan. Etxebizitza berria. 51.000.000
• Intxaurtxueta. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainu eta garajea. 55.000.000
• Olaeta. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainua.
www.alfamondragon.com
orrialdean 7.000 etxebizitza baino gehiago aukeran

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
BERGARA
• Bidekurutzeta, 82m², ia berria
• Arrizuri, 97m², oso ondo
• Juan XXIII, 80 m², berritua
• Masterreka, 87m², oso ondo
• Zabalotegi, 50 m², berritua
• Bidekurutzeta, 60 m², oso ondo
• Zubiaurre, 60 m², aukera ona
• Ibarra, 47m² berritua
• Martoko, 78 m², oso eguzkitsua
• Erdialdean, 200 m², aukera ona
• Ibargarai, 80 m²,ondo
• Artekale, 62 m² oso ondo
• Barrenkale, 40 m², berritua
• Artekale, 158 m², duplexa
• Mugertza, 60 m², berria
• San Lorentzo,18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.
SORALUZE
• Gabolatz, 65 m², oso ondo
• Atxuri, 93 m², oso ondo.
ANTZUOLA
• Duplex berria, erdialdean.
• Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

Aretxabaleta. Etxea salgai herri erdian. 72 m2. Garajearekin. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

Arrasate. Arimazubin etxea salgai. Egoera onean dago. Bi logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara. Kanpoaldera begira dago. 657 77 81 87.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

Arrasate. Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m2. Guztiz berrituta. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

Arrasate. San Josepen. 58 m2, bi logela, egongela, bainugela, sukaldea, trastelekua, berogailua, igogailua, guztiz berritua. Deitu 19:00etatik aurrera, mesedez. 667 53 70 00.

Arrasate. Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea, trastelekua eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

Arrasate Zerrajeran etxebizitza salgai. 2 logela, 2 bainu, egongela, sukaldea, terraza eta garajea. Errekaruntz begira. 656 77 94 32.

Arrasaten. Grupo San Juanen etxebizitza salgai. 60 metro koadro erabilgarri. Azken solairua, igogailuarekin, ganbararekin eta sotoarekin. Berogailu indibiduala. Bizitzera sartzeko gertu. 606 25 92 80.

Bergara. Apartamentua salgai Zubietan. Eguzkitsua. Telefonoa: 656 78 06 95.

Bergara. Etxebizitza guztiz berritua eta jantzia salgai. Zabalotegi kalean. 615 79 41 02.

Bergara. Labegaraietan etxea salgai. Berrituta eta altzariekin. 635 71 04 55.

Bergara. Simon Arrietan etxebizitza salgai. 80 metro koadro. Dena kanpo alder. Egoera onean. 652 76 86 68.

Bergara. Zabalotegin. 50 metro

ULMA
Packaging

ULMA Packaging-ek, ontziratze sistema eta makinen eskaintzaren bitartez merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, lanean hasteko behar du:

INGENIERIA PROIEKTUEN KUDEATZAILEA

erref 07/07

Prestakuntza-profila:
- Ingeniaritza teknikoa, sistema elektriko eta elektronikoen ezagupen zabalarekin.
- Automatismoen ezagutzak (mekanikoak eta elektrikoak).
- Ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.

Funtzio nagusiak:
- Proiektuak planifikatzea.
- Erosketa eta azpikontratazio kudeaketan laguntzea.
- Muntaia-jarduerak eta lerroen prestatzea koordinatzea, haien onarpena lortu arte.
- Bezeroaren eta proiektuaren zuzendariaren arteko komunikazioa onartzea.
- Proiektuen helburu kostuak betetzen direla zaintzea.
- Bezeroei proiektuetan laguntza teknikoa kudeatzea.

Profil profesionala:
- Zailtasun tekniko handiko proiektu konplexuen instalazioen koordinazioan eskarmentua izatea.
- Bidaiatzeko aukera.

Interesatuok bidali curriculuma honako helbidera: ULMA Packaging-eko GGBBetako Departamentua Garibai auzoa 28 145 posta-kutxa 20560 OÑATI Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARETXABALETA

Baster Alde jatetxeak esperientziadun zerbitzaria behar du. 679 45 57 75

OÑATI

Prestakuntza zentro batek frantses irakasleak behar ditu, frantsesak. Curriculumak bidali: profesores@komalingua.com 678 47 16 74

ESKORIATZA

Sukaldari eta sukaldari laguntzailea behar dira jatetxe-erretegi batetan aste bukaeretan lan egiteko. 662 13 27 55

karratu ditu eta 14 metro karratuko trastelekua. Erabat berritua. 635 72 67 11.

Biarritz. 90 metro, 3 logela, komuna, bainua, dutxa, sukaldea, bi balkoi eta egongela handia. Hondartzatik 10 minutura oinez. 646 69 47 99.

Donostia. Atiko polita salgai Hondartzatik oso gertu. Oso argitsua (bi leiho eta bi velux). Gela bat. Kalefakzioa eta igogailua. 630 22 67 57.

Elgeta. Etxebizitza salgai, bigarren solairuan. Igogailua, 3 gela, sukaldea, komuna, egongela eta ganbara. 138.232 euro. Telefonoa: 645 71 76 25.

Eskoriatza. Duplex berria salgai. Erdialdean. (100m2). Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Garajea eta trastelekua. 655 70 46 90.

Eskoriatzan etxebizitza salgai, 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, garajea eta trastelekua. 686 92 55 71.

Jaca. 2007-ko abenduan jasota; urbanizazio pribatua, igerilekua... Handia, 2 gela, sukaldea jantzita, 2 terraza, garajea eta trastelekua. Kalitate handikoa eta gasa. Eguzkitsua eta Oroel mendira begira. Aukera. 678 72 89 18.

Biarritz. Etxebizitza salgai, 90m2. Hondartzatik oinez 10 minutura. 646 69 47 99.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. San Lorentzo auzoan. Hiru gela, bi bainu eta ganbara. Garajea aukeran. Prezioa adostekoa. 656 74 80 47.

Oñati. Ugarkalden lehen eskuko etxebizitzak salgai: 100 m2. Oso eguzkitsuak. Sukaldea guztiz jantzita eta etxea norberaren gustura egiteko aukera. 649 44 60 92.

Torrevieja. Etxea salgai. 67 m2, bi logela. 110.000 euro. Telefonoa: 671 60 82 81.

LAN ESKAINTZA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitateak lanaldi erdirako **EUSKARA TEKNIKARI BAT** behar du, bitarteko izaeraz.

Titulazioa: Erdi mailako titulazioa (diplomatura).

Eskaerak: Maiatzaren 18aren eguerdiko ordu biak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen egoitzan. Bertan dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

Helbidea: Arrasate pasealekua 5, behea ARRASATE.
Telefonoa: 943 79 33 99
Web orria: *www.debagoiena.com*

LAN ESKAINTZA

Txatxilipurdi elkartean pertsona bat behar da:

HAURREN SAILEKO ARDURADUN lanpostua betetzeko.

Lanaldi osoko kontratuarekin.

Gutxieneko eskakizunak:
- Gizarte zientzietan diplomaduna.
- Euskara maila handia.

Kontuan izango da:
- Euskalgintzaren ezagutza.
- Aisialdian esperientzia eta ezagutza.
- Pertsonen kudeaketa, lidergoa eta komunikaziorako gaitasuna.

Arrasate edo ingurukoa izatea lehenetsiko da.

Interesa edukiz gero bidali curriculuma:
haurrak@txatxilipurdi.com

Txatxilipurdi elkartea
Pablo Uranga 6, behea
20500 Arrasate

Tel.: 943 795446

txatxilipurdi

104. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Bi neska gertu daude etxebizitza osatzeko. Deitu telefono honetara: 616 05 97 92.

Donostian logela alokatuko nuke, etxea konpartituz. Telefonoa: 652 74 20 82.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia alokagai Uarkapen. Deitu telefono honetara: 605 77 59 03.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Oñati. Lokala salgai San Lorentzon. Telefonoa: 605 77 15 13 edo 605 71 84 94.

302. EROSI

BERGARA Lokala erosi/alokatuko genuke . Ibargarai aldea . Deitu telefono honetara: 636 72 32 72 edo 696 16 05 54.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Lokal bat hartuko nuke errentan. Jairo. Deitu telefono honetara: 660 43 71 94.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxe berria errentan herri erdian. 943 77 13 02.

Arrasate. Ikasleentzako etxebizitza errentan ematen dut. Hiru logela ditu. 699 97 84 23.

Arrasateko Leintzibar kalean berriztutako pisua errentan ematen da. 943 79 55 26.

Benidorm. 2 logela, 2komun, aire egokitua, garaje eta igerilekua. Hondartzatik gertu. Telefonoa: 666 67 06 94.

Benidorm. Levante hondartzan, igerileku eta garajearekin. Hondartzatik 5 minutura. 945 21 34 70 edo 665 72 60 76.

Cadiz. Conilen, Bateles hondartzaren ondoan, apartamentua ematen dut errentan. 680 44 26 68.

Eskoriatza. Apartamentua errentan ematen da. Altzariekin. 658 70 91 54.

Hendaia. Apartamentua errentan uztailean. Toki lasaian dago, terraza eta parkingarekin. 600 euro. 677 65 39 34.

Hendaia. Urbanizazio batean dagoen apartamentu bat errentan ematen da. Urbanizazioak igerilekua dauka eta apartamentua egokitu berria da. Parking partikularra. Lau lagunendako edo familia batentzako egokia. Inaxio. 670 41 08 58.

Jaca. Etxe bat errentan ematen da maiatzetik azarora. Urbanizazioa, tenis pista eta igerilekua dauzka. 665 73 95 65.

La Barrosa-Chiclana(Cadiz). Apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso-oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Nojan apartamentu bat errentan ematen da, udan. Garajea eta igerilekuarekin, bi logela. 635 75 35 29.

Salou. Apartamentua ematen dut errentan Jaime I.a pasealekuan, Novelty eraikinean. Erabat jantzita eta aire girotuarekin. 629 98 98 99.

Torrevieja. Hondartzatik 100 metrora. Bi logela eta egongela-jangela ditu. 943 77 03 85.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Elgeta. Pertsona euskalduna behar da arratsaldez (18:30-20:30) hamar hilabeteko umea zaintzeko. 633 83 85 32.

402. ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko emakumea gertu. 662 26 72 65.

Debagoiena. Mutil gazte bat gertu edozein lanetarako. 609 98 02 52.

Debagoiena. Asteburuetan edozein lan egiteko gertu dago mutil bat. Marcos. Deitu telefono honetara: 696 38 10 07.

Debagoiena. Garbiketa lanak egingo nituzte orduka zein jardun osoz. Deitu telefono honetara: 618 93 59 29.

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 943 79 76 88 edo 666 21 88 95.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 646 75 08 07.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. Telefonoa: 662 26 67 25.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. Telefonoa: 663 46 93 60.

Debagoiena. Pertsona nagusiak gauetan zaintzeko gertu dago neska bat. 615 79 41 02.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBH2ko ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke, ahal bezain laster. Telefonoa: 943 79 89 96.

Bergara. First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru orduz eskolak eman diezazkidan. 943 03 73 39.

Web orrialdeen programazioko klaseak jasoko nituzke. Linuxen oinarritutako oinarrizko maila. Olaia. 649 17 48 27.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Alfa Romeo 156 SW. Gasolinazkoa. 2004koa. 48.000 km. 645 00 99 35.

Autokarabana salgai Perfilatua. 130 ZP. 2006ko otsailekoa. 23.000 km. Deitu telefono honetara: 667 41 20 33.

Golf GTI III autoa salgai. 2.800 euro. Deitu telefono honetara: 666 44 10 09.

Megane Luxe Dinamique salgai, oso egoera onean. 1.9 Dti, 120 ZP, 2005ekoa, 40.000 kilometro. 13.300 euro. Deitu telefono honetara: 652 75 54 46.

Monobolumena salgai. Seat Alhambra Sport. 130 ZP. Egoera onean, 43.000 km eta 2004koa. Deitu telefono honetara: 653 71 04 56.

Peugeot Eliseo eskuterra salgai. 45 cc. Egoera onean. Merke: 400 euro. Deitu telefono honetara: 657 73 93 82.

Suzuki GS 500E motorra salgai. 25.000 km eta egoera oso ona. 1.800 euro. Deitu telefono honetara: 669 97 93 48.

Yamaha WR250 motorra salgai, 2001ekoa. 3.000 km eta egoera oso onean. 3.000 euro. 635 71 67 06.

ZX auto gorria salgai. 2.016 balbula. 2.000 euro. Deitu telefono honetara: 695 79 00 34.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak Salgai, Setterrak. Telefonoa: 943 78 70 64 edo 652 71 61 99.

704. BESTELAKOAK

Txakurra. Golden Retriever txakurra galdu da Garagartzan. "Oso" du izena, 7 hilabete ditu eta tamaina ertaina, ile horiduna. Eskertuko da. 943 79 61 14.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Autorako DVDa eta pantaila salgai. 656 70 23 12.

Bizikleta salgai. Moser koadroa, aluminiozkoa, 55-56 neurrikoa, Shimano Ultegrarekin. 500 euro. 943 78 07 10.

Emaztegai soinekoa saltzen da, estreinatu barik. Neurria: 40. Zuria berdearekin. Modernoa. 800 euro. Deitu telefono honetara: 652 75 54 46.

Gatzagan aintzinako altzariak saltzen dira. Berriztatzeko daude. Merkeak. Deitu telefono honetara: 615 74 13 47.

MP3 duen irratia salgai, automobilerako. JVC markakoa. 635 25 54 44.

Pesak egiteko (100 kg-ra arte) makina saltzen dut. 200 euro. 650 58 43 00.

Saxofoia. Yamaha markako saxofoia saltzen dut. Ia berriberria da. 943 79 76 69.

Scooter Kymco motorra salgai. Bet&Win. 150 cc. 8.700 km. 636 85 74 43.

Snowboard taula salgai. Forum markakoa eta Recon modeloa. Freestyle fijazioak. 1 metro eta 45 cmkoak. 656 73 34 24.

Trialeko bizikleta. Monty 221 Ti. 2004koa. Egoera onean. Lehen 1.300 euro, orain 550 euro. Markel. 943 79 41 88.

Txakurrentzako erremolkea saltzen da. Oso egoera onean. Jon. 618 72 68 34.

Ume-kotxea. Bikiendako umekotxe tolesgarria, Maclaren Twin Traveller. Udarako, aulkiondako bi estalki eta negurako bina Red Castle forru polar eta zaku, eguzkitakoarekin. Deitu telefono honetara: 676 83 25 62.

Windsurf ekipamendua. 6,6 m2-ko hiru bela, Gaastra Echo motakoak. 6 m2-ko Arrow Air motako bela bat eta 5,5 m2-ko Triboard bela. Gainera, bi masta 460 cm eta 400 cm-koak, eta ezpeleta (botavara). Dena 499 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. 677 78 31 56.

Windsurf ekipamendua. Bic Rumba taula + 99 litroko Bic Veloce taula opari + estrak. Dena 275 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. 677 78 31 56.

Hirusta bilduma, Lau hostoduna, salgai. Deba ibarrean batuak. 3 eurotan ale bana eta bosteko sortetan. Pertsonalizatzeko aukera badago. L.A. Telefonoa: 653 70 84 09.

802. EROSI

Umea eramateko mendiko motxila eta bizikletako aulkia erosi nahi ditugu. Deitu telefono honetara: 696 40 82 19.

806. GALDU

Bergara. Urre zuridun eta urre horidun eskumuturrekoa galdu nuen apirilaren 29an. Toki Eder, Artekale eta plaza inguruan ibili nintzen. Deitu telefono honetara: 686 98 20 96.

808. BESTELAKOAK

Arrasate. Lursail eguzkitsua errentan ematen da. Gernika pasealekuko zubitik gertu. 22:00etatik 23:00etara deitu, mesedez. 656 75 52 28.

hildakoak

- **Luis Antonio San Torcuato Perez.** Bergaran, maiatzaren 3an. 49 urte.
- **Mª Isabel Iriondo Leibar.** Arrasaten, maiatzaren 6an. 82 urte.
- **Publio Sanz Vegas.** Bergaran, maiatzaren 6an. 75 urte.
- **Mª Teresa Alberdi Urkia.** Bergaran, maiatzaren 6an. 84 urte.
- **Mª Jesus Ibañez Carpintero.** Aretxabaletan, maiatzaren 6an. 76 urte.
- **Emiliano Nuevo Luengo.** Arrasaten, maiatzaren 7an. 86 urte.
- **Valentin Vidriales Gamito.** Arrasaten, maiatzaren 8an. 76 urte.
- **German Alberdi Otxoa de Angiozar.** Bergaran, maiatzaren 8an. 44 urte.
- **Leandro Arabaolaza Arregi.** Oñatin, maiatzaren 8an. 80 urte.
- **Migel Lazkanoiturburu Garmendia.** Oñatin, maiatzaren 8an. 81 urte.

III. URTEURRENA

Gregoria Gomez Batalla

"Goya"

Hirugarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 13an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Carlos Ayastuy Zugasti

"Otxua"

Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

II. URTEURRENA

Miguel Biain Cortabarria

2005eko maiatzaren 7an hil zen.

Bigarren urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.

Zurekin eraman zenuen zeneukan txistu soinua, baita gure bihotz barruko bizitasuna.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ines Etxezarreta Galdos

2006ko maiatzaren 2an hil zen 91 urte zituela.

Haren seme-alabak: Sor Maria Paz (†), Sor Margarita, Sor Nieves, Maria Jesus (†), Manolo (†) eta Maria Eugenia, Patxi eta Koro, Jesus eta Arantxa; bilobak: Mikel, Markel eta Alaitz, Maite, Angel eta Maddalen; birloba: Xabat; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztela sapatuan 19.00etan Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan egingo den elizkizunera.
Aldez aurretik, mila esker.

URTEURRENA

Julio Iriondo Leibar

Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 12an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ignacio San Jose Zua Zua

Andresa Loitiren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 13an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Natividad Garate Orue

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 13an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

V. URTEURRENA

Jose Luis Miner Arrieta

Bosgarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 13an, 13:30ean, Oñatiko Arantzazuko Amaren santutegian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Akilina Zangitu Larreategi

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 13an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Miguel Altube Zabarte

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 13an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Luis Fernandez Fernandez

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 13an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.

ESKELA

Leandro Arabaolaza Arregi

Oñatin hil zen 2007ko maiatzaren 8an, 80 urte zituela.

GOIENAk eta BATU-BANATUk bat egiten dute Amaia langilearen sendiaren saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
b+b batu-banatu

Arrasaten, 2007ko maiatzaren 11n.

bila-bila 7



hitz gezidunak

	* Irudiko animalia Ardiaren ile			Gai itsaskorra Zoritxarrez			Lerroan ipini Harri xabalak	
			Bakun Pilota jokaldi					
Mortuko abere Fruitu mota		Gorotz Lasai, zabal						
						Errepikatuz, txori mota Uranioa		
Ibiltzeko euskarriak Faborre								
						Errepikatuz, gorotza Otx!		
Musika nota Merezi duena			Gabezia Nitrogenoa				Kontso-nantea Kontso-nantea	
					Beldur handi			



umore giroan

Kike Amonarriz

GAITZA HARRAPATU NAHI

Jon, igel zanpatu bat daramala putetxe batean sartzen da.

Jabeak, ez zion sartzen utzi nahi, baina Jon setati:

- Dirua dut, eta ez naiz joango . Gainera, gaixotasun larriko neska bat nahi dut.

Jabeak Kristalengana bidali zuen. Jon igelarekin igo zen gelara. Bukatzean, jabeak:

- Zergatik gaixo dagoena?

- Gauean, gurasoak joatean, zaintzailearekin txortan egingo dut, eta gaixotasuna erantsiko diot. Itzultzean, zaintzaileak aita kutsatuko du. Etxera itzuli eta amak hartuko du gaitza. Bihar, aita lanera joandakoan, amak postaria kutsatuko du... Hura da igela zanpatu zuen!

sudokua

			5					
	7	8				4	3	
		5			8			7
9				4	3		8	
7								3
	2		1	8				4
1			8			7		
	9	6				2	1	
					9			

hieroglifoa

Musean

jaO
jeO
jiO
jo
juO

hizki salda

Euskal Herriko 5 zuhaitzen izenak

A	Z	E	H	U	R	I	I	A
R	A	A	A	I	P	K	I	L
R	L	A	L	M	A	K	R	U
A	N	S	T	R	R	A	A	P
G	A	T	Z	U	K	L	N	A
I	S	I	A	B	P	A	D	K
T	N	K	A	E	I	K	O	R
S	A	Z	T	I	R	A	H	R
A	I	N	P	I	N	M	U	U

soluzioak





Jerogliflikoa: Jokorlik ez.



bono fotoa



Araotzeko inguruetan bada toki bat eskalatzaileek eta ama izan nahi dutenek ondo ezagutzen dutena. Noren omenez eraiki zen ermitatxo hau koba barruan?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

.....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Campo Viejo ardo beltza edo gorria

75 cl-ko botila

3,19 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako FLOREN UGALDErendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Mojategi.

Oraindik badago geratzeko arrazoirik.
Erregaia botatzea ez da horietako bat.

Chevrolet Lacetti TCDi berria. Dibertsio gehiago. Geldialdi gutxiago.

LACETTI LACETTI. Chevrolet Lacetti berria 121 ZP diesel TCDi motorrarekin, EBDdun ABSa, airbag bikoitza, alboko aire-poltsak, ISOFIX lokailuak, klimatizagailua, abiaduraren kontrol automatikoa, diesel partikulen iragazkia... (Bertsioaren araberako ekipamendua).

Lacetti 1.4 SE
Sarrerarik gabe
125€/hileko – 118 kuota
Prever plana barne. %6,77 UT

ES MÁS. CHEVROLET

Giauto
www.giauto.es
clientes@giauto.es
EIBAR
Otaola, 27
943 202 500
OLABERRIA
Karobi Ind.
943 885 150
salmentak: 902 345 225
tailerra: 902 345 235

Lacetti 1.4 SE 16V modeloa. PSP: 11.121 € (Prever plana eta sustapena barne). Kuotak: 1.tik 118.era 125€-koak. Finantzatutako zenbateko osoa: 15.028,03€. TIN: %6. UTB: %6,77. Irekiera komisioa: %2,5 (278,03€). Eskaintza ezin da beste sustapenekin bateratu, 2007/05/31ra arte balio du Penintsularako eta Balearreetarako. Finantzazioa: Finanzia Banco de Crédito, SA. RBE: 1668/07. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7-8,8. CO2 isurketa (g/km): 146-210. 3 urteko edo 100.000 km-ko bermea: kilometroen muga ez da aplikatzen lehen bi urteetan (Bermeen Legea: 23/2003).

Ondo egindako lana

Zurekin

BOZKATU EA!!

EA
eusko
alkartasuna

Ernesto Murgiondo

Leire Fernandez > Arte Ederretan doktorea

"Enpresaren pertsonalitatea zein den adierazteko balio dute logotipoek"

Leire Fernandezek (Oñati, 1978) Arte Ederretako doktoretza tesia aurkeztu berri du; marken logotipoen inguruko lana aurkeztu zuen oñatiarrak Bilboko Arte Ederretako fakultatean. Betidanik gustatu izan zaio irudiaren mundua Fernandezi eta txikitatik argi izan du non lana egin gura zuen. Orain, gainera, Arte Ederretako fakultatean irakasle lanetan ere badabil.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Leire Fernendez curriculumari azken ukituak ematen harrapatu dugu. Arte Ederretako ikasketak egin ondoren, tesia aurkeztu berri du oñatiarrak; gainera, Cum Laude emaitzarekin. Ez du arazorik izango lana aurkitzeko oñatiarrak.

GOIENKARIA

Lehenbizi, zorionak! Zeri buruzko tesia egin duzu?

Arte ederretan lizentziatura ikasten ari nintzen bitartean, Bilboko Guggemheimen egon nintzen diseinugile bezala eta baita Bilboko estudio batean. Gero, BBKn egon nintzen, logotipo berria egin zen garaian, eta aplikazio guztiak egiten aritu nintzen; txartelak, koadernoak, libretak... Azkeneko urtean, Erasmus bekarekin Ingalaterran egon nintzen urtebete. Doktoretza egitea gura izan nuen; logotipoak eta enpresetako marken mundua asko gustatzen zitzaidan, eta batez ere, logotipoen esanahia landu gura nuen.

Iruditu zitzaidan, estudio askotan, irudi horiek norberaren gustuaren arabera egiten zirela, benetako esanahiari arreta jarri barik. Ikus- lengoaia dela ahaztu eta irudiari bakarrik ematen zitzaion garrantzia, kasu askotan. Nik gai hori sakontzea gura izan nuen; gure enpresetan eta baita ere gure gizartean logotipoek duten garrantzia aztertu gura nuen. Tesia, logotipoen esanahiaren ingurukoa izan da, zer esan gura duten ikus-komunikazioaren aldetik. Ikonografia, tipografia, kolorea, ikus erretorika eta beste hainbat aspektuen bitartez nola adierazten diren enpresaren baloreak eta helarazi gura duten kontzeptuak.

Gustura geratu zara emaitzarekin?

Bai, aurkezpena oso gogorra izan zen: bi ordu eta erdi, baina oso gustura geratu nintzen emaitzarekin. Aho batez eman zidaten Cum Laude emaitza eta gainera, doktoretza sari berezirako gomendatu naute. Lehenengo aldia da Arte Ederretako fakultatean gomendapen hori ematen dutena.

Beti izan duzu argi artearen munduan lana egin gura zenuela?

Bai, txikitatik, marrazkiak egiten aritu izan naiz. Koloreekin aritzen nintzen jolasten, hori izugarri gustatzen zitzaidan. Urtebetetze egunean, beti oparitzen zizkidan norbaitek margoak. Gero, Oñatiko kultura etxean, Maria Luisa Maiztegirekin hasi nintzen pintura klaseak hartzen. Beti izan dut argi irudiarekin zerikusia duen zerbaitetan lana egin gura nuela.

Jendeak, gustuko duzuna baina etorkizuna izango duen karrera bat aukeratzeko esaten du. Arte ederretako lizentziatu izatea ez dago oso ondo ikusia, etorkizun gutxiko karrera da-eta. Baina nik uste dut, aukera ona egin nuela, norberaren gustuko karrera batean inplikazio gehiago jartzen duzulako.

Lehiaketa askotan parte hartu duzu eta irabazi ere hainbat egin dituzu. Zein da ilusio gehien egin dizun saria?

Bartzelonara bidali nuen lan batengatik jaso nuen errekonozimenduak ilusio handia egin zidan, adibidez. Ez nuen lehenengo saria eskuratu baina aintzat hartu zuten nire lana. Unibertsitatean ere, iaz, bi sari ia jarraian irabazi nituen. Bat, irakasleen soldaten % 0,7 behartsuenei bideratzeko kanpaina bateko logotipo lehiaketa zen eta bestea tabakoaren aurkako eslogan baten lehiaketa.

Bezero batek irudia egiteko eskatzen dizunean, nondik hasten zara? Zeri ematen diozu garrantzia?

Enpresaren arabera izaten da; izan ere, enpresa bakoitzak duen arazoa ezberdina izaten da. Bezeroak eskatzen duenaz gain, benetan enpresaren arazoa zein den ikertu behar duzu. Logotipoa egiterakoan, enpresa horrek izango duen bezeroak zeintzuk diren jakitea beharrezkoa da, baita ere enpresa handia edo txikia den eta nazionala edo nazioarteko enpresa den.

Logotipoa egiterakoan, logotipo honen bitartez zer komunikatu gura duten jakin behar dugu. Azken finean, enpresaren pertsonalitatea zein den jakin behar dugu; izan ere, logotipoak pertsonalitate hori erakutsiko du. Enpresa zelakoa den adieraziko du logotipoak. Horregatik, logotipo bat egin ahal izateko, zein arazo dituzten eta zein pertsonalitate duten ezagutu behar dugu

Ikasle garaian Bilbon bizi izan zera. Nolako hiria da?

Nik uste dut arte mailan, Bilbok aukera asko ematen dituela; galerietan erakusketak egiteko aukera asko daude. Hala ere, norbera asko mugitu behar da.

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 29 urte. **Ikasketak?** Arte Ederretan doktorea. **Zaletasunak?** Margotzea, irakurtzea eta haurren liburuetako ilustrazioak ikustea. **Gomendatzeko moduko pelikula bat?** *Los otros* eta *Seven* bezalako pelikulak gustatzen zaizkit; suspensea dutenak. **Musikari bat?** U2 taldea; Bono asko gustatzen zait. **Egin duzun bidaia gustukoena?** Abuztuan Greziara egin nuen bidaia; Partenoia asko gustatu zitzaidan. **Zer amesten duzu?** Askotan, hegan egiten dudala amestu izan dut.

Goiena.net
Debagoieneko albisteak
Sarrera Antzuola Aramaio Aretxabaleta Arrasate Bergara Elgeta Eskor
Hauteskundeak

Gaiak

Udal hauteskundeetako emaitzak

1995, 1999 eta 2003 urteetako emaitzak.

Antzuola

1995 (Hautesle errolda: 1.634)

Kandidatura	Botoak	%	zinegotziak
EAJ	447	35,25	5
HB	324	25,55	3
PSE-EE/PSOE	175	13,8	1

SAREAN Hauteskundeei eskainitako atal berezian, besteak beste, azken emaitzak kontsulta daitezke. GOIENKARIA

GOIENA.NET > HAUTESKUNDEAK, INTERNETEZ

Hauteskundeen gaineko atal berezia dago orain Goiena.net webgunean

Aurtengo Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako zerrendak eta alkategaien fitxak, eta aurreko hiru hauteskundeetako datuak batzen ditu

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Maiatzaren 27ko hauteskundeetako kanpaina hasi da, eta Debagoienaren gaineko informazioa Goiena.net webgunean jasotzeko bidea dago orain. Izan ere, horretarako atal berezia antolatu du Goienako Telematika sailak.

Webgunearen atarian, Hauteskundeak 2007 dioen *banner*-ean klik eginda, zuzenean sartzen da erabiltzailea atal horretara; *www.goiena.net/gaiak/hauteskundeak* da helbidea. Han, aurtengo eta aurreko urteetako hauteskundeen informazioa dago.

UDAL HAUTESKUNDEAK

Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeek atal bana dute. Udal hauteskundeen atalean klik eginda, herriz herri, honako informazioa dago: aurtengo hauteskundeei dagokienez, herri bakoitzeko alkategai guztien fitxa, argazki eta guzti, eta alderdi bakoitzaren zerrenda osoa.

Horrez gain, 1995eko, 1999ko eta 2003ko udal hauteskundeetako emaitzak ere batzen ditu webguneak, alderdi bakoitzaren boto kopuru absolutu eta erlatiboarekin eta bakoitzak lortu zuen zinegotzi kopuruarekin. Hautesle errolda urte bakoitzean zein zen ere jakinarazten du.

BATZAR NAGUSIAK

Batzar Nagusietarako hauteskundeen inguruko datuak oso modu antzekoan daude antolatuta: hala, aurtengo hauteskundeei dagokienez, Gipuzkoan, Debagoienari dagokion Deba-Urola barrutiko zerrenda guztien berri ematen du, alderdiz alderdi; eta Araban, herri bakoitzeko hautagaiak eta koadrila bakoitzerako Batzar Nagusietarako hautagaiak; Aramaiori Zuiako koadrilakoa dagokio. Informazio hori guztia lurralde bakoitzeko Aldizkari Ofizialera lotura bana bidez ematen du webguneak.

Aurreko hauteskundeen gaineko datuak jakiteko aukera ere badago. Kasu horretan, 1995, 1999 eta 2003an, alderdi politiko bakoitzak Debagoieneko herri bakoitzean lortu zuen boto kopuru absolutu eta erlatiboa ematen da, taula baten.

teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

Canon PowerShot G5 IS, mugitu eta biratu daitekeen 2,5 hazbeteko pantaila duen zortzi megapixeletakoa

Hau da Canon etxearen zortzi megapixeletako kamera konpakta berria.

Mugitu eta biratu daitekeen 2,5 hazbeteko pantaila dauka. Aurpegiak detektatzen ditu autoenfokea hobetzeko. Egokitzailea batekin optika gehigarriak erabil daitezke foku-distantzia gehitzeko edo angelua handitzeko. Kanpo flasha gehitzeko zapata bat dauka eta SDHC/Secure Digital eta MMC txartelak erabil ditzake. 450 gramuko pisua du. Salneurreia zehazteke dago.

Objektibo barneratua eta bisore elektronikoa duen zortzi megapixeletako argazki-kamera konpaktua.

> ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK

Dell etxearen hiru eramangarri berriak: D630, D531 eta D830, bi Santa Rosa plataformarekin

Latitude gamako hiru ordenagailu berri aurkeztu ditu, D630, D531 eta D830 modeloak.

D830 eta D630 modeloak oso antzerakoak dira, 14.1 eta 15.5 hazbeteko pantaila dute hurrenez hurren.

Baina Dell-ek ez du bakarrik Intel prozesagailuak erabiltzen. D531 modeloak, 15.4 hazbeteko pantailarekin, AMD ekoizlearen Turion 64 erabiltzen du.

Salneurria 622 eta 922 euro artean dago.

Hirurak Windows Vista edo XP sistema eragilea aukeran ematen dute.

> BLU-RAY-ERREPRODUZIGAILUA

Europarako Pioner etxearen lehenengo Blu-ray-erreproduzigailua: BDP-LX70

Pioner etxearen Europako merkatu Blue-ray erreproduzigailua kaleratu berri du, BDP-LX70 modeloa. Estatu Batuetako BDP-HD1 modeloan oinarritutako bertsio hobetua da.

Ethernet konexioa du, beraz ordenagailuarekin konektatu ezkero erreproduzi ditzakeen fitxategiak (MPEG2, MP3, WMV9, WMA9 Pro eta JPEG) telebistan ikus ahal izango dira.

Saltokietan ekainean egongo da eskuragarri eta salneurria ere ekainean jakitera emango dute.

Blue-ray eta beste hainbat formatu erreproduzi ditzake eta Ethernet bidez ordenagailuko fitxategiak telebistan ikusteko aukera ematen du.

berriak

> PROGRAMAZIOA

Peio Ospital kantari ezaguna gaur, 'Ilunpean' saioan

Peio Ospital kantaria, Pantxoa eta Peio kantariek osatzen duten bikote esanguratsuko partaidea da. Euskal herriko kantagintza ulertzeko funtsezkoak diren bi kantari hauek, euskal erreferente bilakatu ziren 70. hamarkadan. Lapurtar bikote honen abestietan lurra eta maitasuna dira gai nagusiak. Oihana Elortza kazetariak elkarrizketa egingo dio gaur Peio Ospitalu, 22:15ean.

> PROGRAMAZIOA

'Harmailatik' saioan ez da kirol aukerarik faltako

Arantzazu Ezkibel oñatiarrak aste honetan helduko dio Harmailatik saioa aurkezteari. Asteburuan egingo diren Arrasate-Oñati lasterketa eta Otala Zelai krosari begira jarriko dira GOITBko kirol saioan. Lasterketa eta kros hauek emango dute zer esanik eta horregatik, *Harmailatik* en jarraipen zabala egingo diote puntako kirolariak batuko dituzten lasterketari eta krosari.

> ARRASATE IRRATIA

Herri Urrats jairako gonbitea 'Asteko gainbegiratua'-n

Iparraldeko ikastolen aldeko Herri Urrats jaia izango da domekan Senpereko lakuan. Aurreko astean izandako euriteen eraginez kolokan izan da aurtengo jaia. Alain Bosq komunikazio arduradunarekin izan ginen astelehenean; oztopo guztien gainetik guztiok jaiarekin bat egiteko gonbitea egin zigun. Aste bukaeran berreskuratuko dugu Bosq-ek kontatutakoak .

> ARRASATE IRRATIA

Hauteskundeen jarraipen zabala 107.7an ere

Hauteskunde kanpaina hasi dela-eta, Arrasate Irratian ere tarte zabala eskainiko diote maiatzaren 27ko hitzorduari. Udal hauteskundeei dagokionez, batetik, Arrasateko udal hautagaiak gonbidatuko ditugu *Igo Autobusera!* magazinera; eta bestetik, GOITBko lankideek prestatutako saioak ere eskainiko ditugu uhinen bitartez. Batzar Nagusiei dagokionez, GOITBk ekoitzitako saio bereziak ere eskainiko ditugu.

'ZU KAZETARI' > EGUAZTENA 21:15

'Zu kazetari' izeneko tarte berria GOITBn, eguaztenetik

Tarte honetan edozein herritarrek egindako grabaketak eta ikus entzunezkoak eskainiko dituzte

GOIENKARIA > ARRASATE

Zu kazetari izeneko tarte berria eskainiko da aste honetatik aurrera. Herritarrok izango zarete kazetari, kameralari eta gidoigile lanetan arituko zaretenak. Aste honetan izango den estreinaldian Arizmendiko ikasleek egindako ekoizpen bat ikus ahal izango duzue. Ikus entzunezkoa moda desfile bat da eta Debagoieneko denda eta ileapaindegietako arropa eta orrazkerak ikusi ahal izango dituzue. Arizmendiko ikasleek ikas bidaiarako dirua lortzeko ekoiztu duten grabaketa, eguaztenean GOITB-n ikusgai, 21:15ean.



DESFILEA Arizmendiko ikasleen moda desfilea eskainiko du GOITBk. GOIENKARIA

'HAUTESKUNDEAK' > KANPAINAREN JARRAIPENA

Hauteskundeen inguruko saio bereziak eskainiko ditu Goiena Telebistak

GOIENKARIA > ARRASATE

Gaur hasi da hauteskunde kanpaina eta Goiena Telebistan ere gaurtik aurrera eta hauteskunde egunera arte, hauteskundeen inguruko saio bereziak eskainiko dituzte, herriz herri. Saio hauetan, alkatetzarako hautagaiak ezagutuko ditugu eta hainbat gairen inguruan hautagai bakoitzaren proposamenak ezagutuko ditugu. Hautagai bakoitzak minutu eta erdiko tartea izango du jarraian datozen gaiei buruz hitz egiteko; hirigintza, ingurumena, kultura, euskara, gizarte ongizatea eta kirola.

Lehenbiziko saioa gaur bertan izango da, 21:45ean, eta Leintz Gatzagari eskainitakoa izango da. Astelehenean, hilaren 14an, Elgetaren txanda izango da, hilaren 15ean, Aramaiorena; maiatzaren 17an, Antzuolarena, eta hilaren 18an, egubakoitza Eskoriatzarena. Batzar nagusiek ere izango dute tokia, izan ere datorren eguaztenean, hilak16, Batzar Nagusietarako hautagai diren debagoiendarrak bilduko ditu.

telebegi

Edu Mendibil

Gautxoriendako saioak

Oporraldi luze baten ondoren, bidaien gaineko *Dutifrí* saioarekin itzuli da Javier Sarda. Futboleko izarren pareko pribilegioen jabe, edozer gauza egiteko estatusa lortu du Sardak. *Marteko* giro nahasia atzean utzita, erretiro lasai baterako moduko saioa dauka orain. Gauetan berak utzitako lekua Buenafuentek eta Eva Hachek betetzen dihardute aspaldi. Lehen Sardarendako lekua bakarrik zegoela zirudien (bidean geratu ziren hainbat *lehiakide*), baina Andreuk eta Evak euren ikusleak izatea lortu dute. Bakarrizketaegile bikainak, biek ere kolaboratzaile onak dituzte alboan.

Bien bitartean, Ipar Irlandako eredua eta alderdien legearen gaineko eztabaidak nagusi asteazken gauean: *Firin faran*, *59 segundos*, *Políticamente incorrecto*... Boxeo izarrak bailiran, Josean Izarra eta Martin Garitano kazetariek De Juanaren paseoen inguruko eztabaidarekin amaitu zuten ETB-2ko saioa. Ordu horretan aspaldiko trikitipiezen lehiaketa bat errepikatzen ari ziren ETB-1ean, txapeldunek 20.000 duro irabazten zituztenekoa. Antza, Estepan Aldamizen hutsunea betetzea ez da hain erraza.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.
Erakundeen geltokian, Mojategi kirolgunearen gainean, Moises Altunarekin; Elkarteen geltokian, Iturri Elkarlan elkartea; Alain Bosq, Herri Urratseko komunikazio arduraduna..

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Merkatu txikiaren geltokia
Elkarteen geltokia
Erakundeen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 11
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire.**14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusten. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Berbaire . **18:15**Bertsoak. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea .**19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hauteskundeak07-Gatzaga. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Kirolari. **00:15**Emisio amaiera.

Zapatua, 12
08:00 Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Kirolari. **12:00** Astekoak. **12:15**Klika. **12:45** Eltze beroa **13:30** Mahai ingurua. **14:30** Hauteskundeak07. **15:00** Bertsoak. **15:30**Ur eta lur. .**16:00** Didjeridu. **16:30**Lazkaoko jaiak. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Ikusten. **20:30**Erreportajea. **21:00**Klika. **21:30**5+5. **22:00**Astekoak. **22:15**Berbaire. **22:45**Ilunpean. **23:15**Didjeridu. **23:45**Musikantoi. **00:15** Emisio amaiera.

Domeka, 13
08:00 Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. **11:00**Ikusten. **11:30**Musikantoi. .**12:00**Ur eta lur. **12:30**Klip@. **13:00**Kirolari.**13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean**. 15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Berbaire. **18:30**Ikusten. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Mahai ingurua. **21:30**Bertsoak. **22:00**Didjeridu. **22:30** Ikusten. **23:00** Erreportaia.**23:30**Ilunpean-.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

Astelehena, 14
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Hauteskundeak07-Gatzaga. **14:15** Ikusten. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ilunpean. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Klika. **16:15**Erreportajea. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ur eta lur. **18:45**Albisteak. **19:15** Kirolari . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Hauteskundeak07-Aramaio. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ikusmira. **00:15**Emisio amaiera.

Martitzena, 15
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Hauteskundeak07-Aramaio.**14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Har,maillatik. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15** . **18:45**Albisteak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Hauteskundeak07-Elgeta. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

Eguaztena, 16
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Hauteskundeak07-Elgeta. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire **15:45** Gaurkoak. **15:47**Didjeridu. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Zu kazetrai. **18:45**Albisteak. **19:15** Teknopolis. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Zu kazetari. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Hauteskundeak07-Mahai ingurua. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

Eguena, 17
13:15 Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Hauteskundeak07-Mahai ingurua. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa .**18:15** Teknopolis. **18:45**Albisteak. **19:15** Klika. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Hauteskundeak07-Antzuola. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

EL CHICO DE LA ULTIMA FILA

ANTZERKIA

Non:
Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz:
Maiatzaren 13an, domekan, 19:30ean



Sarrera salmenta
kutxa
SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950•2007 ARRASATE

ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXEMOBEL ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Kalitatearekin bizi nahi duzu etorkizuna?
Har ezazu gosari. Ez du preziorik.
Arkauz etxean zure beharrak ase egingo ditugu.

Arkauz zure etxea da.

Maiatzak 11-18

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

Musika

ARRASATE
> Boo Boo Davis blueslariak emanaldia egingo du 3.60 aretoan

James *Boo Boo* Davis musikari estatubatuarrak (Drew, Mississippi) blues musikarik garbiena egingo du bihar, zapatua, 23:00etan 3.60 aretoan. Emanaldi hori *Blues Gauak* delako egitarauko azkena izango da.

Musika

BERGARA
> Sabaton taldeak kontzertua egingo du gaur gauean Jam aretoan

Suediako power metal taldeak Thurderbolt taldearekin batera egingo du emanaldia. *Metalizer* da Sabaton taldeak argitara eman duen azken diskoa. Besteak beste, horixe entzungo dute 20:00etatik aurrera Jamera hurbiltzen direnek.

Antzerkia



OÑATI
> Ander Lipus antzerkigileak 'Ardoaz' emanaldia egingo du domekan

Elgoibarko aktore eta antzerki zuzendari Ander Lipusek *Ardoaz* antzezlana egingo du etzi, domeka, Portu tabernan, 18:30ean. Bakarrizketa da eta edanari emana den gizon baten burutazioak kontatuko ditu. Doan da.

Antzerkia

ELGETA
> Aktore ezagunek 'Lapurzuloa' antzeztuko dute Espaloian

Komedia azidoa, beltza eta samurra da. Aktore ezagunek egiten dute lan, besteak beste: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Kontxu Odriozola, Ainhoa Garai eta Ainhoa Aierbek.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

ARRASATE
> Ur Teatro taldeak 'El chico de la ultima fila' egingo du

Besteen bizitzara hurbiltzeak duen xarmaren eta literatura bizitza errealarekin nahasteak duen arriskuaren gaineko istorioa kontatuko dute.

Etzi, domeka, 19:30ean, Amaia antzokian.

Musika

BERGARA
> 'Erromeriak Bergaran' egitasmoaren bigarren saioa

Koldo Iparragirre trikitilariak jardungo du herriko giroa alaitzen.

Gaur, egubakoitza, 19:00etatik aurrera, Munibe plazan.

ESKORIATZA
> Azkaiter Peloxek kontzertua egingo du

Bergarako musikariak Eskoriatzako plazan egingo du emanaldia.

Bihar, zapatua, 19:00etan.

OÑATI
> Ana Salaberria eta Ainhoa Zubillaga Santa Ana aretoan

Salaberria sopranoak eta Zubillaga mezzosopranoak Esther Mendiburu piano jolearekin lagunduta abestuko dute.

Etzi, domeka, 19:30ean.

Erakusketak

BERGARA
> Aitor Sarasketa eta Manu Muniategiren lanak ikusgai

Gaur irekiko dute erakusketa, 19:00etan. Sarasketa eibartarrak margoak erakutsiko ditu. Muniategi bergararrak *Instrucciones para naúfragos. Soilik itxuraz* liburua. Marrazki erotikoz eta Harkaitz Canoren testuekin egindako tirada mugatuko liburua da hori; Arco ferian aurkeztu zuen.

Hilaren 29ra arte, Aroztegi aretoan.

BERGARA
> Elorrioko Eskulan Margo taldearen erakusketa

Bergarako Juanjo Akizu margolariaren ikasleak dira erakusketa jarri dutenak.

Hilaren 19ra arte, kultura etxeko erakusketa aretoan.

Hitzaldiak

ARRASATE
> 'Baserriaren eta kalearen arteko zubiak eraikiz' hitzaldia

Amelia Jauregi eta Begoña Aristi EBEL elkarteko kideek egingo dute. Gero, Baserritik baserrira antzezlana izango da.

Hilaren 17an, 19:00etan, Kulturaten.

Lehiaketak

DEBAGOIENA
> Mundumira jaialdiak bi lehiaketa deitu ditu

Bata da ikastetxeetarako lehiaketa, eta ibar osora zabalik dago. Bi maila daude: 6-9 eta urtekoak eta 10-12koak. Lehiaketaren gaia da: *Munduari bira*. Parte hartu nahi dutenek Aretxabaletako kultura etxera bidali beharko dituzte lanak, maiatzaren 15a baino lehen. Beste lehiaketa da graffitiena. 15 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Baita taldeka ere –gehienez lau lagun, eta gutxienez bat ibarrekoa–. Lehiaketa ekainaren 1ean izango da, Aretxabaletako plazan. Gaia izango da: *Bost kontinenteak*. Parte hartzeko Aretxabaletako kultura etxean eman behar da izena hilaren 21a baino lehen.

Argibide gehiago: 943 71 10 27.

BERGARA
> Kirol argazkien lehiaketa deitu dute Udalak eta Pol-Polek

Euskadin bizi den edozein zalek har dezake parte. Gaia kirola da eta zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahalko dira lanak. Lanak Bergarako udaletxera eroan daitezke edo honako helbidera bidali: Udal Kirol Zerbitzua (argazki lehiaketa). San Martin plaza. 20570, Bergara.

Irailaren 12a da mugaeguna.

ESKORIATZA
> San Pedro jaietarako esaldi eta kartel lehiaketa deitu dituzte

Udalak deitu ditu. Esaldi lehiaketan 13 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek har dezake parte, 3-5 pertsona bitarteko taldeak sortuz. Esaldiok aurkeztu beharko dira hilaren 25etik ekainaren 3ra bitartean. Jaietako egitarauko azalaren kasuan, edonork har dezake parte. Kartelak derrigorrez eroan behar du esaldi hau: *2007ko San Pedro Jaiak, Eskoriatza*. lanak aurkezteko mugaeguna da ekainak 1.

Informazio gehiago kultura zerbitzuan.

ARRASATE
> San Juanetako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Lanak teknika librean egin ahalko da, baina kartelak derrigorrez *2007 San Juan jaiak Arrasate* testua izan beharko du. Irabazleak 750 euroko saria eroango du. Lanak aurkezteko azken eguna da maiatzaren 25a.

Informazio gehiago: *www.arrasate-mondragon.org.*

Ospakizunak

ESKORIATZA
> Loreen eguna ospatuko dute, herriko dendariek antolatuta

Herriko plazan egokitutako mahaietan loreak banatuko dituzte. Hirugarrenez antolatu dute ekimen hori.

Bihar, zapatua, egun osoan barrena.

ARRASATE
> Musakola auzoko jaiak ospatuko dituzte

Besteak beste, gaur, barikua, erretiratuendako afaria izango da 19:30ean, eta 22:00etan, dantzaldia Kaixo taldearekin. Bihar, zapatua, gaztetxoendako bazkaria izango da 14:00etan, eta 16:30etik 18:30era, puzgarri eta jokoak. Domekan, dantza saioa egingo dute 13:00etan, Bergarako Abarka taldekoek. Horrez gain, Ointxe saskibaloi taldeak sagardo jaia egingo du jaien barruan. Bihar, zapatua irekiko dute txosna, 11:30ean.

Gaur hasi eta domekara arte.

Ikastaroak

BERGARA
> Beart taldeak margo eta marrazketa ikastaroa egingo du

Uztailean izango da, goizez. 5 eta 13 urte arteko gaztetxoendako ikastaroa da. 10:00etatik 12:00etara izango dira eskolak, elkartearen egoitzan.

Izena emateko edo argibide gehiagorako deitu: 626 73 38 79 (Ainhoa), 635 71 32 69 (Maite) eta 665 70 31 75 (Oihana).

PROPOSAMENA

OÑATI
> Kasablankako jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak, 18:00etan. Gero, 22:00etan, Los Cretinos, Black River eta Drakers taldeek kontzertua egingo dute. Bihar, zapatua, patata tortilla lehiaketa egingo dute, 12:00etan; arku tiroketa tailerra eta mus txapelketa, 16:00etan; sagardo eta pintxo dastatzea, 18:30ean; Iragan eta Loko diablo rojoren kontzertua, 19:00etan eta auzo afaria 21:30ean. Etzi, domeka, bertso jaialdia izango da 13:00etan.

Gaur hasi eta domekara arte.

nire aukera

Alberto Garro
Arizmendiko komunikazio arduraduna

Domekan Otala Zelaira egun pasa

Oraingo aste bukaeran egin gura duena kontatu digu Garrok. "Zapatu goizean, beti bezala, astean zehar egin ez ditudan erosketak egingo ditut. Gero, etxean bazkaldu, ostean lo kuluxka egin eta umeekin buelta bat ematera joango gara: bizikletan, patinekin...". Eguraldi ona egiten badu, iluntzean kalean bokadiloren bat afaldu eta etxera formal-formal joango direla azaldu du. Domekan, berriz, Otala Zelaiko eguna dela eta, bidegorritik Urkulura igo, bazkaria eraman eta eguna han pasatuko dutela gehitu du aretxabaletarrak.

Umeez inguratuta ez zauden aste bukaerarik imajinatzen duzu?
Noizbait tokatu zait eta kuriosoa da. Hasiera batean izugarrizko emozioa izaten nuen: hau eta bestea egingo dut... Baina gero, bakarrik aurkitzen zarenean erreferentzia guztiak galdu eta ez dakizu zer egin. Azkenean asper-asper eginda amaitzen duzu.

Hondartza, mendia ala biak?
Gustura bietan. Dena dela, hondartzan egonez gero toailan etzanda ez, aspertu egiten naiz. Nahiago dut umeekin jolasten ibiltzea: uretan, palarekin jolasten...

Kanpotik datorren bisitariri zer erakutsiko zenioke Debagoienetik?
Urkulu goialdera eramango nuke, Hiruatx aldera. Handik ikusten dena izugarria da, gu, dagoeneko ohituta gaude, baina paisaia ikusgarria da. Gosea egin eta gero, Matikua inguruan txorizo pare bat sagardo botilarekin eta listo. Plan hoberik ba al dago?

Zinema

ARAMAIO
KULTURA ETXEA

Euriaren seme-alabak
Domeka: 17:00.

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

La vida de los otros
Astelehena: 20:30.

El feje de todo esto
Eguena: 20:30.

ELGETA
ESPALOIA ANTZOKIA

Corazon del Angel
Eguaztena: 21:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

The Messengers
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

PORTU TABERNA

Gore zinemaren astea, 18:30
Astelehena: 'Bad taste'.
Martitzena: 'Historia de Ricky'.
Eguaztena: 'La matanza canibal de los garrulos lisergicos'.
Eguena: 'Brain dead. Tu madre se ha comido a mi perro'.

EIBAR
UNZAGA

Spiderman 3
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ
GURIDI

Spiderman 3
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 19:30, 22:30.

Tu la letra, yo la musica
17:30, 20:30.

La vida de los otros
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

Esto es ritmo
17:30, 20:00, 22:30.

Ciudad en celo
17:30, 20:00, 22:30.

Premonition
17:00, 20:40.

Hotel Tivoli
18:45, 22:30.

¿Quien dice que es facil?
17:30, 20:00, 22:30.

El novio de mi madre
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

La maldicion de la flor dorada
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

El infierno
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Alas a la vida
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Spiderman 3
18:00, 20:45.

La vida en rosa
17:00, 19:45, 22:30.

Borrachera de poder
17:00, 19:45, 22:30.

Despues de la boda
17:00, 19:45, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

El novio de mi madre
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Spiderman 3
16:00, 19:00, 23:00.

Los abandonados
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

El numero 23
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Sunshine
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

The River Queen
16:00, 19:00, 22:00.

Seduciendo a un extraño
18:15, 20:30, 23:00.

Shooter el tirador
16:00, 19:00, 23:00.

Descubriendo a los Robinsons
16:00, 18:00, 19:00, 20:00.

300
16:00, 18:15, 19:00, 20:30, 23:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna..

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

El retorno de los malditos
12:15, 15:55, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

Spiderman 3
12:15, 15:30, 18:30, 19:30, 22:30, 00:35.

Premonition
12:15, 15:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Hotel Tivoli
12:15, 16:00, 18:00.

Retrato de una obsesion
19:45, 22:15, 00:45.

El numero 23
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Cerdos salvajes
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

La telaraña de Carlota
12:15, 15:50, 17:45.

Sunshine
19:40, 21:50, 00:00.

Un puente hacia Terabithia
12:15, 16:25.

Tu la letra, yo la musica
18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

Azur&Asmar
12:15, 15:40, 17:40.

Shooter
19:35, 22:00, 00:30.

Seduciendo a un extraño
20:00, 22:10, 00:20.

Las vacaciones de Mr. Bean
12:15, 16:05, 18:05.

300
20:00, 22:20, 00:40.

Descubriendo a los Robinsons
12:15, 15:45, 17:45.

Happy Feet
12:15, 16:20, 18:20.

La cosecha
20:15, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

El retorno de los malditos
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

Spiderman 3
12:00, 16:20, 19:30, 22:00.

Retrato de una obsesion
12:00, 17:00, 19:40, 22:15.

¿Quien dice que es facil?
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

Premonition
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

Dame 10 razones
12:15, 17:00.

Sunshine
12:00, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.

Tu la letra, yo la musica
12:10, 16:05, 18:15, 20:25.

Cerdos salvajes
15:50, 17:50, 22:15.

Seduciendo a un extraño
22:35.

El buen pastor
19:15, 22:30.

Descubriendo a los Robinsons
17:00.

Las vacaciones de Mr. Bean
12:15, 16:30, 18:30, 20:30.

300
22:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Después de la boda ****

Zuzendaria: Susanne Biern.
Aktoreak: Mads Mikkelsen, Rolf Lassgard, Side Babet Knudsen.
Danimarka-Suedia. 2007.

Agian Lars von Trier da Danimarkako gaur egungo zuzendari famatuena, baina badira beste zuzendari on batzuk. Horien artean Susanne Bieren dago, eta orain gure karteldegian berak zuzendutako *Después de la boda* film ederra daukagu.

Istorioaren ardatza ezkontza bat izan arren, ez gaude film alai baten aurrean. Badakigu Europako iparraldeko antzerkian, zineman, drama gustukoa dutela, eta filma ildo horretatik doa. Argumentua aztertuz gero melodrama latz baten aurrean gaudela esan dezakegu, baina nahiz eta hori egia izan, zuzendaria ez da geratzen gertatzen diren gauzen narrazioan, zuzendariari benetan axola zaiona da gertakizunek pertsonaiengan dituzten ondorioak. Hau da, filmean oso ondo deskribatzen eta islatzen dira pertsonaien sentimenduak. Badira oso gertuko plano ugari: pertsonaien begiak, ezpainak ikusten ditugu, baita euren keinu adierazgarrienak ere. Hala, ondo iristen zaizkigu euren emozio guztiak eta pertsonaiak oso gertukoak egiten zaizkigu. Pertsonaia konplexu eta sinesgarriak dira, eta oso erraza egiten zaigu eurekin bat egitea. Filmak ez du elipsirik erabiltzen, bizitzan dauden momentu latzenak detailez erakusten zaizkigu, baina exhibizionismoan erori barik. Pertsonaien benetako sentimenduak aditzera ematen dira.

Kamara asko mugitzen da, lehen planoak ugariak dira eta muntaia nahiko zorrotza da. Osagaiok tentsioa ematen diote istorioari, eta honi aktore guztien lan zoragarria gehitzen badiogu oso lan aipagarria lortzen da.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

300 ***
AEB, 2004. Zuzendaria: Zack Snyder. Aktoreak: Gerard Butler, Rodrigo Santoro, Lena Headey.
115 min.
V. mendea Kristo aurretik. Pertsiako inperioak erreditzeko eskatu dio Greziako konfederazioari. Atenas eta beste hiri estatuak ez daude ados horrekin. Espartako erregeak persiarrei aurre egitea erabakiko du, 300 soldadu indartsuenekin. Filma Frank Millerren komikian dago oinarritua.

Alpha Dog
AEB, 2007. Zuzendaria: Nick Cassavetes. Aktoreak: Bruce Willis, Sharon Stone.
116 min.
Johnny Truelove gazteak diru asko du, eta Los Angeleseko luxuzko etxe batean bizi da. Festa ugari antolatzen ditu etxe horretan. Droga trafikoari esker du luxuzko bizimodua, baina egun batean mundu hori guztia kolokan jarriko da.

Confianza ciega
AEB, 2007. Zuzendaria: Etienne Chatillez. Aktoreak: Cecile de France, Vincent Lindon.
98 min.
Elkar ezagutu aurretik, Chystelek eta Christophek ez zuten inorengan konfiantzarik eta ez zekiten zer zen norbait maitatzea. Horregatik, elkarrekin daudenetik ez dute inoiz banandu nahi. Maitasuna dagoenean, konfiantza itsua da...

Descubriendo a los Robinsons ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak.
102 min.
Lewisek etorkizunetik datorren mutil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

Diario de un escandalo
AEB, 2007. Zuzendaria: Richard Eyre. Aktoreak: Judi Dench, Cate Blanchett, Bill Nighy.
92 min.
Barbara irakasle bakartia da, Londresen. Sheba eskolako arte irakaslea heltzen denean, behar zuen laguna bilatuko du. Baina egun batean, Shebak ikasle batekin harremana duela jakingo du Barbarak.

El buen pastor ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Robert de Niro. Aktoreak: Matt Damon, Angelina Jolie, William Hurt, Joe Pesci, Alec Baldwin.
160 min.
Robert Wilson gazte idealista bat da, Margaretekin ezkondu berria. AEBetako Zerbitzu Estrategikoen Agentzian sartuko da, CIAren aurrekoan. Wilson denborarekin gero eta hotzagoa bilakatuko da, eta horrek bere bikote bizitzan eragin kaltegarria izango du.

El corazon de la tierra
AEB, 2007. Zuzendaria: Antonio Cuadri. Aktoreak: Catalina Sandino Moreno, Sienna Guillory, Bernard Hill.
90 min.
1888. urtea. Espainiako armadak Riotinto herriko biztanleei tiro egingo die, kalean protestan dabiltzan bitartean. Gatazka horren erdian, meatzari baten alabak eta zaldun britainiar baten ilobak adiskidetasun harreman bat hasiko dute, eta maitemindu egingo dira.

El ultimo show
AEB, 2006. Zuzendaria: Robert Altman. Aktoreak: Meryl Streep, Woody Harrelson, Lily Tomlin.
105 min.
Fitzgerald Theater antzoki zaharra botatzekotan dira, eta han country musikako irratsaio baten azken emanaldia egitekotan dira.

El velo pintado
AEB-Txina, 2007. Zuzendaria: John Curran. Aktoreak: Ed Norton, Naomi Watts, Liev Schreiber, Toby Jones.
125 min.
Kitty gazte britainiar bat da. Familia ingurutik ateratzeko, Walter medikuarekin ezkonduko da. Shanghaira joango dira, eta han Kitty AEBetako gizon batekin maiteminduko da. Baina senarra haien arteko harremanaz ohartuko da.

Seduciendo a un extraño
AEB, 2007. Zuzendaria: James Foley. Aktoreak: Bruce Willis, Hale Berry.
109 min.
Nowena Priceren txikitako laguna hil dute eta ez dute hiltzailea aurkitu. Nowena bere kabuz ikertzen hasiko da.



Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-05-11

Ereserki berria zelai berrirako

GRABAZIOA Mondra taldearen ereserkia grabatu dute Arrasate Musikaleko Bandak eta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak

AMAIA ANTZOKIAN 80 lagun inguruk hartu zuten parte domekan Amaia antzokian egindako grabazioan

ELKARLANA Jose Ramon Vitoriak konposatu zuen ereserkiaren musika 1989an; letra Iñaki Isazelaiarena da

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Mondra futbol taldearen ereserkia grabatu berri dute Arrasate Musikaleko Bandak eta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. 80 lagun inguruk hartu zuten parte domeka goizean Amaia antzokian egindako grabazioan. Iker Olazabal Bandako zuzendariak eta Tere Gonzalez Izaskun Murgiako presidenteak zuzendu zuten grabaketa, Jose Ramon Vitoria musikariaren aholkularitzarekin. Hain zuzen, musika Jose Ramon Vitoriak konposatutakoa da 1989. urtean. Iñaki Isazelaiaren letra ondo ezagutzen dute taldearen jarraitzaile zintzoenek: *"Eup! Mondrako mutil gazteak/eup! Mondrako talde itzela/eup! Arrasateko futbola aupa txuri eta ubela..."*. Lauzpabost instrumenturako idatzia hasieran, Banda osorako moldaketa egin du Vitoriak orain.

EMAITZA, EKAINERAKO

Bi hilabeteko entseguen ondoren, musikariak zein Mondra futbol taldeko ordezkariak pozik azaldu dira grabazioarekin. Soinua enpresa arduratu da grabazioaz; domekan bi ordu eta erdi inguruz aritu ziren musikariak eta teknikariak lanean. Jarraian, luntxa eman zieten Mondra taldekoek, Txalaparta elkartean.

Grabazioaren emaitza aurki ezagutuko dugu: ekainaren 9an Arrasaten ospatuko den Ardo Egunerako gertu izango da, beste hainbat produkturekin batera salgai jarriko da-eta egun horretan. Hasiera baten, ereserkiaren 1.000 disko kaleratuko dituzte. Ekainerako aurreikusita dagoen Mojategi futbol zelaiko inaugurazioan ere entzun ahal izango da. Bien bitartean, sailkapenean euren aurretik den Zestoari bisita egingo diote arrasatearrek zapatuan. Liga amaitzeko hiru partidu faltan, bosgarren tokia hobetzea da helburua. Jose Luis Azkarate taldeko presidentearen hitzetan, "laster ekingo diogu hurrengo denboraldia gertatzeari. Ea ereserkia hirugarren mailara heltzen den hurrengo urtean...".

ERESERKIA Arrasate Musikaleko Banda eta Izaskun Murgia Elkarteko kideak, domekako grabazioaren une baten. EDORTA AIASTUI

ahobero

"Ze herrialde da hau? Isabel Pantoja bezalako *tonadillera* handi bat terroristatzat kartzelan eta De Juana Chaos kalean egotea ere..."

Miguel Arias Cañete
> PPko ministro ohia

Antza denez, Arias Cañeterentzat, hain kantari ona izateagatik ustezko gaizkile ere ezin da izan Pantoja. Julian Muñoz kantari hastea falta orain!

iturri onetik

Elkartasun Eguna ospatuko dute Arrasaten ekainaren 9an, presoen alde

Aurten ere Elkartasun Eguna antolatuko dute Arrasaten. Portaloira Topaguneak du horren ardura, eta iazkoaren bideari jarraituko dio bigarren edizioak. Arrasateko presoen eskubideen aldeko ekimena ekainaren 9an izango da, eta iazkoaren antzeko egitaraua izango du: herri bazkaria, animazio ekitaldi ugari, kontzertuak herriko tabernatan, kale agerraldia, eta kontzertu erraldoia Monterronen.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Inbidia galanta

Barkatu, badakit gure zilborra oso garrantzitsua dela, baina aste honetako albistea –urte luzetakoa, niretzat- Ipar Irlandakoa izan da, Paisley eta McGuiness gobernuan kide ikustea.

Bi gauza aipagarri. Lehena: ezinezkoa egingarri da, ganoraz ekin ezkero. Nekez pentsa daiteke bi hauek baino etsai aurkakoagorik, gurean Migel Sanz eta Josean Urrutikoetxearen pare. Hala ere, bakea adostea baino askoz gehiago egin dute, lankide bihurtu dira gobernatzeko. Eta bi: hori guztia etorri da erabakitzeko eskumena ematen dien tresna demokratiko bat adostetik. Paisleyk gehiengoa duen artean, Ipar Irlandak britainiar jarraituko du. McGuinessek gehiengoa balu, Hego Irlandarekin batuko lirateke.

Horrela begiratuta, ez dirudi zaila, e?

ai, ene!

Barbie panpinaren itxura duten MP3 aparailuak

Urteak joan eta urteak etorri eta Barbiek modernoa izaten jarraitzen du: MP3 aparailuak atera dituzte haren itxurarekin.

http://tinyurl.com/27964w